

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEHIAKORTASUNARI BURUZKO 2024ko TXOSTENA

INKLUSIOA, LEHIAKORTASUNAREN
ETA ONGIZATEAREN MOTORRA



Deusto

Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren (Deustu Fundazioa) jarduerak erakunde hauen ekarpenei eta laguntzari esker eramaten dira aurrera:

Eusko Jaurlaritza; SPRI Taldea; Arabako Foru Aldundia; Bizkaiko Foru Aldundia; Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilboko Udala; EEE-Energiaren Euskal Erakundea; BBK Banku-Fundazioa, Iberdrola; Repsol-Petronor.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko Txostena
ISSN: 2990-2606



<https://doi.org/10.18543/OJDL7613>

Lehiakortasunari buruzko 2024ko txostena. Inklusioa,
lehiakortasunaren eta ongizatearen motorra
ISBN: 978-84-1325-243-8



<https://doi.org/10.18543/RDMU6951>

Itzulpena: Itziar Navarro, Deustuko Unibertsitatea
© Lehiakortasunerako Euskal Institutua – Deusto Fundazioa



Mundaitz 50, E-20012, Donostia
Tel.: 943 297 327. Fax: 943 279 323
comunicacion@orquestra.deusto.es
www.orquestra.deusto.es

© Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak
1 posta-kutxa - 48080 Bilbao
Helbide elektronikoa: publicaciones@deusto.eus

Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2024ko Txostena

Inklusioa, lehiakortasunaren eta ongizatearen motorra

Mari José Aranguren, Susana Franco, Mercedes Oleaga
eta James R. Wilson
(koordinatzaileak)

Imanol Aizpuru, Maddalen Alkorta, Mari José Aranguren,
Patricia Canto, Aitziber Elola, Susana Franco, Juan P. Gamboa,
Aitor Garmendia, Ibon Gil de San Vicente, Bart Kamp, Macarena Larrea,
Stephania Mosquera, Asier Murciego, Mercedes Oleaga,
Elsa Patús, Carla Peletier, Jabier Retegui, Ander Sánchez, Eduardo Sisti,
Rakel Vázquez, James R. Wilson eta Sofia Zhukova
(egileak)

Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2024ko Txostena

Txostena online eskuratzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2023ko Txostena PDFn dago eskuragarri, gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez, Orkestraren web orrian:

<https://www.orquestra.deusto.es>

Eskualdeko Lehiakortasunaren Behatokitako sarbidea

Lehiakortasunari buruzko Txosten honetan aurkeztu ditugun adierazleen eguneratzeak, denbora errealean, helbide honetan kontsulta daitezke:

<https://www.orquestra.deusto.es/competitiveness-observatory/es>

Aurkibidea

Hitzaurrea	VII
Esker ona	IX
Laburpen exekutiboa	X
Sarrera	1
1. Euskal Autonomia Erkidegoaren errendimendua ongizatea helburu duen lehiakortasunean	3
1.1. Gure azterketa esparrua	3
1.2. Ekonomia lehiakortasuna	5
1.3. Ongizatea	11
1.3.1. Ongizateari lotutako emaitzak	12
1.3.2. Inklusioa ongizatearen emaitzetan	17
1.4. Lehiakortasunerako eta ongizaterako palanka dinamikoak	19
1.5. Laburpena	29
2. Lehiakortasun inklusiboa eta ongizate inklusiboa: txanpon beraren bi aldeak	32
2.1. Zer da gizarte inklusioa?	36
2.2. Ongizate inklusiboa helburu duen lehiakortasun inklusiboa	38
2.2.1. Ongizateari lotutako emaitzak: inklusioa, sarbide gisa	38
2.2.2. Ekonomia eta enpresa emaitzak: lehiakortasun inklusiboa	39
2.2.3. Palanka dinamikoak: inklusioa, parte hartze gisa	40
2.2.4. Egiturazko ingurunea	41
2.3. Laburpena	42
3. Lehiakortasuna eta ongizatea helburu duen inklusioa Euskal Autonomia Erkidegoan	44
3.1. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria, adinaren, generoaren eta jatorriaren arabera	44
3.2. Giza kapitala: lehiakortasun inklusiborako palanka	48
3.2.1. Inklusioa, lan merkatuan parte hartzea	49
3.2.2. Inklusioa eta lan baldintzak	52
3.2.3. Inklusioa eta ikasketa mailak	60
3.2.4. Laburpena	64

3.3. Gizarte kapitala: lehiakortasun inklusiborako palanka.....	65
3.4. Inklusioa ongizatearen adierazleetan	67
3.4.1. Bizitzarekiko gogobetetasuna	68
3.4.2. Bizitza materiala.....	68
3.4.3. Enplegua	73
3.4.4. Gizarte bizitza.....	74
3.4.5. Osasuna.....	76
3.4.6. Laburpena.....	77
Ondorioak eta gomendioak	79
Erreferentzia bibliografikoak.....	86
1. eranskina: ekonomia eta enpresa emaitzen adierazleen bilakaera	90
2. eranskina: ongizatearen adierazleen bilakaera	95
3. eranskina: inklusioa ongizatearen ikuspegitik	101
4. eranskina: lehiakortasunerako palankak	103
Taulen zerrenda	108
Grafikoen zerrenda	109
Irudien zerrenda	111
Laukien zerrenda	112

Hitzaurrea

Orkestran lehiakortasuna eraikitzeko prozesuetan zenbat eta pertsona gehiagok parte hartu, ongizatea orduan eta inklusiboagoa izango dela uste dugu; izan ere, txanpon beraren bi aldeak dira, eta ezin dira ulertu bata bestea gabe. Lehiakortasun inklusiboa lurralde bateko pertsona guztiek, beren onena emanaz, balioa sortzeko prozesuan parte hartzen duten prozesua da. Eta ongizate inklusiboa gero eta pertsona gehiagok eta berdintasun handiagoarekin, osasuna, enplegua edo hezkuntza bezalako ongizatearen dimentsio desberdinetara sarbide duina izateko prozesua da. Beraz, ongizate emaitzetan inklusioa bermatu nahi badugu, lehiakortasuna eraikitzen duten prozesuetan inklusioa sustatu behar dugu, eta alderantziz.

Inklusioari buruz hitz egiten dugunean, pertsonen ari gara, azken batean, desberdintasuna eta bazterketa jasan dezaketenak, eta, era berean, lehiakortasunaren eta ongizatearen eraikuntzan parte har dezaketenak. Horrela, txostenak aniztasunak sortzen dituen aukerak aprobetxatzen dituen eta pertsona gehienentzako ongizaterako sarbidea bermatzen duen lehiakortasun inklusiboa eraikitzeko ditugun erronkak aztertzen ditu.

Azterketa konplexua da, pertsonak dimentsio anitzekoak direlako, eta haien beharrak eta interesak lurralde baten esparru sozioekonomiko eta politikoa duten rola baino haratago doazelako. Gure txostenak pertsonen inklusioa lehiakortasunarekiko duten harremanaren ikuspegitik aztertzen du, eta azterketa Euskadiko lehiakortasunaren eta ongizatearen erronka eta aukera kritiko batzuekin lotuta dauden hiru ezaugarri demografikotan zentratzen du: adina, jatorria eta pertsonen generoa.

Lehen biak gure lurraldeak aurre egiten dion erronka demografikoarekin lotuta daude zuzenean. Hirugarrena, pertsonen generoa, kategoria kritikoa da, emakumeen parte hartze tasak, zorionez, lan munduan hazten ari direlako, eta honek genero harreman sozialak eta ekonomian eta ongizatean duten eragina sakon aztertzerak behartzen gaituelako. Gainera, genero berdintasuna gure lurraldeko enpresa industrial eta nazioartekotuen lehiakortasuna bermatzeko funtsezko elementua da.

Aniztasuna lehiakortasun eta ongizate inklusiboaren motor gisa hartzeak, zalantzarik gabe, gizarte aurreratuago, berritzaileago, toleranteago eta kohesionatuagoak lortzea ekarriko du. Hala ere, pertsonen inklusioa esparru sozioekonomiko eta politikoa ez da berez garatzen; eta horregatik, politika publikoen eta enpresen bidez kudeatu behar da. Ahaleginak horretan inbertitu behar dira, aniztasunaren kudeaketa

eraginkorrak jarduera tasak handitzeko probabilitatea areagotzen baitu, lehiakortasunaren adierazle nagusi den biztanleko BPG handituz.

Txostena Euskadiko lehiakortasun eta ongizate arloko errendimendu orokorraren analisiarekin hasten da, eta ongizatea helburu duen lurralde lehiakortasunerako esparruaren bidez antolatutako 66 adierazleren azken bilakaera aurkezten du. Inklusioaren garrantziari buruzko hausnarketa kontzeptual batekin jarraitzen du, lurralde baten lehiakortasunaren eta ongizatearen ardatz transbertsal gisa. Era berean, pertsonen ezaugarri demografiko ugarietatik hiru —adina, jatorria eta generoa— enpirikoki aztertzen ditu, Euskadiko erroka zorrotzenetako batzuekin lotuta daudenak. Txostena analisi osoaren emaitzetatik ateratako ondorio eta gomendio sorta batekin amaitzen da.

Txosten hau Orkestrako parte diren eta lankidetzan aritzen diren pertsona guztien lan bikainari, inplikazioari eta konpromisoari esker izan da posible, baita gurekin bat egiten duten erakunde babesleen laguntzari esker ere, zeinen sostengurik gabe Orkestra ez litzatekeen errealitate izango, ezta ongizaterako lehiakortasunaren ikerketa-ekintzan nazioarteko erreferente ere.

Esker ona

Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2024ko Txostena SPRI-Eusko Jaurlaritzaren Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren finantzaketari esker pres-tatu da.

Txostena Mari Jose Aranguren, Susana Franco, Mercedes Oleaga eta James Wilsonek koordinatutako lantaldeak idatzi du. Baina, haiekin batera, modu batera edo bestera, Orkestrako lantalde osoak parte hartu du. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei prozesu osoan egin duten lanarengatik. Era berean, gure lana kontrastatzeko eskatu diegunean, Orkestrako Administrazio Kontseiluko, Aholku Batzordeko, era-kunde babesleetako eta beste erakunde batzuetako kideek egin dituzten ekarpenak ere eskertu nahi ditugu.

Txostena prestatzeko behar izan ditugun adierazleak kalkulatzeko Eustatek eman-dako datuak erabili ditugu. Hain zuzen ere, Eustatek berariaz eta eskuzabaltasunez ustiari ditu bere datu baseak, Orkestrak eskatutakoari erantzuteko. Eskerrik asko, beraz, Eustati, eman dizkigun erraztasun guztiengatik. Halaber, Sabi-Informak eman-dako laguntza ere eskertzen dugu, Txostenaren beste analisi batzuetarako datuak gure eskura jarri baititu.

Gainera, eskerrak eman nahi dizkiegu Orkestrak azken urteetan aurrera eraman di-tuen proiektuetan jakintza sortzen parte hartu eta lagundu duten eragile guztiei.


Orkestrak bere gain hartzen du Txosten honen edukian egon litezkeen akatsen edo hutsegiteen erantzukizuna.

Laburpen exekutiboa

Lurralde garapenean inklusioak duen garrantzia nabarmentzen dute nazioarteko erakundeek, esate baterako, Nazio Batuek, Lanaren Nazioarteko Erakundeak edo Europako Batzordeak, 'trantsizio bidezkoa' sustatu beharraz hitz egiten baitute. Ohikoa da trantsizio hirukoitzaz, alegia, trantsizio 'berdeaz, digitalaz eta sozialaz' hitz egitea (ELGEa, 2023). Hain zuzen ere, 2024ko irailean eratu zen Europako Batzorde berrian, presidenteordetza bati eman zaio trantsizio 'garbia, bidezkoa eta lehiakorra' sustatzeko erantzukizun esplizitua.

Inklusioa Orkestraren ongizatea helburu duen lehiakortasun esparruan ere txertatuta dago, zeharkako ardatz gisa, esparruaren hiru zatiekin berezko harremana duelako: inklusioa lurralde baten egiturazko ingurunean islatzen da, lurraldearen lehiakortasuna eta ongizatea baldintzatzen duten palankei eragiten die, eta lurraldeak lortzen dituen azken emaitzetan ere integratuta dago.

ONGIZATEA HELBURU DUEN LEHIAKORTASUN ESPARRUA



Inklusioa, berez, dimentsio askotako fenomeno da, eta, besteak beste, pertsonen generoarekin, adinarekin, jatorriarekin, gaitasunekin eta baliabide ekonomikoekin du lo-

tura. Alde batetik, desberdintasunen gorakadaren ondorio ekonomiko eta politikoen inguruko kontzientzia handia den une honetan, bereziki garrantzitsua da ulertzea nola islatzen diren lehiakortasunaren eta ongizatearen emaitzak pertsona taldeen arabera. Eta beste alde batetik, demografia aldaketekin eta giza kapitalaren eskasiarekin lotutako erronka kritikoak aurrean ditugula jakinik, berebiziko garrantzia du ulertzeak nola eragiten dieten lehiakortasunerako palankei genero desberdintasunak, belaunaldien arteko harremanek edo pertsona migratzaileak gizartean integratzeak, besteak beste.

Lehiakortasunari buruzko 2024ko Txosten honetan, inklusioaren zeharkako ardatzean sakondu dugu, ongizate inklusiboa sortzeko gai izango den lehiakortasun inklusiboa ziurtatzeak aurrean jartzen dizkigun erronkei buruz hausnartzeko. Txostenaren hasieran, Euskal Autonomia Erkidegoaren lehiakortasun eta ongizate errendimendu orokorra aztertu dugu. Horretarako, 66 adierazleren bilakaerarik berriena aurkeztuko dugu, ongizatea helburu duen lurralde lehiakortasunerako gure esparruaren arabera antolatuta. Horren ondoren, gogoeta kontzeptual bat proposatu dugu, inklusioak lurralde baten lehiakortasunean eta ongizatean duen garrantziaren inguruan. Eta, horrekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko lehiakortasunaren eta ongizatearen analisi enpirikoa egin dugu, inklusioaren hiru dimentsio kontuan hartuta: jatorria, generoa eta adina.

Lehiakortasuna eta ongizatea Euskal Autonomia Erkidegoan

Euskal Autonomia Erkidegoko lehiakortasunaren eta ongizatearen gaur egungo diagnosia egiteko, ekonomia eta enpresa emaitzen 22 adierazle, ongizate emaitzen 20 adierazle, eta lehiakortasunerako eta ongizaterako palanka dinamikoen 24 adierazle aztertu ditugu. Hurrengo hiru tauletan, aztertutako hiru adierazle multzoen emaitza nagusiak laburbildu ditugu.

Ekonomia eta enpresa emaitzak	
Ekonomia errendimendua	Biztanleko BPGk, erosteko ahalmenaren parekotasunean (EAP) neurtua, hazten jarraitu du 2023an ere, eta, horrela, EB-27ko batezbestekoarekiko alde positiboa handitu egin da (% 111) eta Alemaniarekiko alde negatiboa nabarmen murriztu da (% 96). Produktibitateak nabarmen egin du hobera, bai ekonomia osoan eta bai manufaktura sektorean. Produktibitateari lotutako adierazle guztietan, Euskal Autonomia Erkidegoa Espainiaren eta EB-27ren gainetik dago, baina Alemaniaren eta Austria Garaia eta Baden-Wurtemberg erreferentziazko eskualdeen azpitik.
Enpresa errentagarritasuna	Enpresa errentagarritasunak gora egin du 2023an; zehazki, errentagarritasun ekonomikoa (ROA) % 6.6 izan da eta finantza errentagarritasuna (ROE), % 11.8. Nabarmentzekoa da manufaktura sektoreko unitateko lan kostuak (ULK) izan duen jaitsiera. Ustiapeneko soberakin gordina egonkor mantendu da, % 43 inguruan. Ehuneko hori Espainiakoa eta EB-27koa baino pixka bat handiagoa da eta Alemaniakoa baino dezente handiagoa.
Berrikuntza eta ekintzailetza	Gora egin du produktuko berrikuntzak eta prozesuko berrikuntzak egiten dituzten enpresa txiki eta ertainen ehunekoak (% 26.1 eta % 32.6, hurrenez hurren). Hala ere, aldagai horretan beste herrialdeen atzetik gaude, bereziki enpresa txikietan eta antolaketako eta marketineko berrikuntzetan. Enpresa txiki eta ertainen estrategiak arrisku eta disrupzio maila txikikoak dira, eta berritzeko ikusten dituzten oztupoek zerikusi handiagoa dute berrikuntzaren kostu altuekin eta enpresan beste lehentasun batzuk egotearekin jakintzarekin baino. Ekintzailetzan, nahiz eta ekintzailetza tasa orokorrak (TEA) Espainiako edo Europako mailen azpitik jarraitu, emaitzak onak dira ekintzailetza teknologikoan eta hazkunde handiko enpresetan. Gainera, 5 pertsonatik gorako lantaldea duten enpresen kopuruak ere gora egin du, eta, beraz, enpresen batez besteko tamaina handitzen ari da.

Ekonomia eta enpresa emaitzak

Nazioartekotzea	Ondasunen nazioarteko esportazioek behera egin dute 2023an, BPGren % 37.9 izatetik % 35.8 izatera igaro baitira. Energia gaien esportazioak eta energiaz bestelako gaienak, biak, jaitsi dira. Joera bera ikusten da Espainian, Alemanian eta EB-27n ere. Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoak Europako batezbestekoarekiko duen egoerak nabarmen egin du hobera azken urteetan, baita 2023an ere. Gainera, merkataritza saldoa hobetu egin da. Horrek erakusten du ondasunen nazioarteko inportazioak esportazioak baino gehiago murriztu direla proportzioan, bai energia gaietan eta bai energiaz bestelakoetan.
-----------------	--

Ongizateari lotutako emaitzak

Bizitzarekiko gogobetetasuna	Bizitzarekiko gogobetetzea pixka bat jaitsi da Euskal Autonomia Erkidegoan 2023an, eta orain, EB-27ko batezbestekoaren oso antzekoa da, baina Alemaniakoa eta Espainiakoa baino handiagoa.
Bizitza materiala	Pobrezia edo bazterketa arriskuan dauden pertsonen proportzioak behera egiten jarraitzen du. 2023an, % 15.5 izan da, EB-27ko batezbestekoa baino txikiagoa (% 21.4). Desberdintasun ekonomikoan ez da aldaketarik izan. Hala ere, etheen errentaren medianak behera egin du azken bi urteetan, eta etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin duten pertsonen proportzioa igo egin da 2023an, eta Europako batezbestekoaren gainetik dago.
Enplegua	Langabezia tasa (% 7.6), EB-27ko batezbestekoaren gainetik dago (% 6.1), baina aldea txikituz doa, urtez urte. Lanarekiko gogobetetasun maila ere hobetu egin da (10etik 7.4 da azken urtean). Hala ere, lan egindako ordu bakoitzeko soldata arrakala, generoari dagokionez, 2017az geroztik etengabe jaitsi ondoren, handitu egin da azken urtean eta % 8.8 da orain.
Gizarte bizitza	Pertsonen duten denborarekiko gogobetetasun maila egonkorra da, azken hamarkadako igoeren ondoren. Pertsonen arteko konfiantzak hobera egin du eta pandemian izandako jaitsieraren zati bat berreskuratu da. Bestalde, delitu maila EB-27ko batezbestekoa baino askoz ere txikiagoa bada ere, Euskal Autonomia Erkidegoan jabetzaren kontrako 895 delitu izan genituen 100 000 biztanleko 2022an, aurreko urtean baino % 31 gehiago.
Ikaskuntza	Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailako hezkuntza duen 25-64 urteko biztanleriaren proportzioak goranzko bideari eusten dio Euskal Autonomia Erkidegoan, eta % 78.8 izanik, ia Europako batezbestekora iritsi da (% 79.8). Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoa aurre-aurrean dago etengabeko ikaskuntzan: 25 eta 64 urte arteko biztanleriaren % 18.2k hartu du parte prestakuntzako edo ikaskuntzako jardueretan. Hala ere, Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programaren (PISA) emaitzek matematikako, irakurketako eta zientziako batez besteko notaren beherakada erakusten dute, eta, gainera, EB-27ko batezbestekoan gertatutakoa baino handiagoa da.
Osasuna	Nahiz eta osasun egoera ona edo oso ona duela uste duen biztanleriaren proportzioak nolabaiteko beherakada izan (% 74.8tik % 73.4ra) eta airearen kutsadurak eragindako heriotza goiztiarrak pixka bat gora egin (100.000 biztanleko 30.9tik 31.3ra), Euskal Autonomia Erkidegoak lidergoan jarraitzen du EB-27ko batezbestekoarekiko (eta Alemaniarekiko) bi adierazle horietan eta bizi itxaropenean (83.5 urte).
Ingurumena	Berotegi efektuko gasen eta airearen kutsatzaileen isuriek gora egin dute 2022an, ekonomia jarduera handitu egin delako. Berotegi efektuko gasei dagokionez, % 5eko hazkundeak EB-27ko batezbestekotik urruntzea ekarri du, eremu horretan isuriak % 1.3 jaitsi baitira. Hala ere, 2022an hiri hondakinen birziklatze tasa % 47.4 igo da, eta, hala, ia desagertu da Euskal Autonomia Erkidegoaren eta EB-27ko batezbestekoaren arteko aldea.

Lehiakortasunerako eta ongizaterako palanka dinamikoak

Kapital naturala	Aztertutako adierazle gehienetan Euskal Autonomia Erkidegoa batezbestekoaren gainetik badago ere, azken urteko hobekuntza EB-27ko batezbestekokoa baino txikiagoa izan da. Erronka handiena energia berriztagarrien kuotarekin lotuta dago (% 18.2), okerrera egin baitu eta Europako batezbestekoaren azpitik baitago (% 23). Gainera, azken hamarkadan ez da aldea murriztea lortu.
Kapital fisikoa	Euskal Autonomia Erkidegoa ongi kokatuta dago Europako batezbestekoa- rekiko eta Alemaniarekiko kapitalaren eraketa gordinaren eta kapitaleko stockaren adierazleetan. Hala ere, bi aldagai horien balioak pixka bat jaitsi dira 2023an. Kapitalaren eraketa gordinaren barruan, gora egin du ekipo ondasu- netara bideratutako proportzioak. Urte horretan % 40.1 izan da eta, horrela, beste lurralde batzuekiko aldea handitu da (Alemanian, % 30.6 izan da eta EB-27n, % 29.5).
Finantzaketa	Azpimarratzekoa da ondare garbiaren adierazlearen bilakaera positiboa. Egi- turazko adierazle horrek bazkideek enpresetan inbertituta dituzten funtsak neurtzen ditu eta hobera egin du, % 49ra iritsi arte. Bestalde, atzerriko zu- zeneko inbertsioaren (AZI) irteerako stocka (BPGren % 95) Espainiako edo Alemaniako ekonomietakoa baino handiagoa da, eta euskal enpresen na- zioartekotze maila handiarekin lotuta dago. Atzerriko zuzeneko inbertsioaren sarrerako stockak, ordea, behera egin du azken urtean, beste lurralde ba- tzueta ez bezala. Gainera, stock hori txikia izatea egiturazko ezaugarria da gurean.
Jakintza	Ingurumen teknologietako patenteen proportzioa (% 18.7) eta argitalpen zien- tifikoen maila (3 373 miloi bat biztanleko) EB-27ko batezbestekoaren gainetik daude, argi eta garbi. Erronkak I+Gko gastu mailari eta patenteei lotuta daude, Europako eta Alemaniako batezbestekoaren azpitik baitaude eta, gainera, az- ken urtean okerrera egin baitute. Digitalizazioari dagokionez, Euskal Autono- mia Erkidegoak indarguneak ditu biztanleriaren gaitasun digitaletan eta azpie- giturretan, baita zerbitzu publikoen digitalizazioari lotutako elementu batzuetan ere. Hala ere, gabeziak ditu IKTetako espezialistetan eta enpresen digitaliza- zioaren alderdi batzuetan, esate baterako, makrodatuen, hodeiaren eta adi- men artifizialaren erabileran, bai eta administrazio publikoen web orrien erabi- lerraztasunean ere.
Giza kapitala	100 000 biztanleko medikuen kopurua, lurralde batek bere giza kapitala egoera onean mantentzeko duen gaitasuna erakusten diguna, egonkor dago azken urteetan. Azken urtean, kopuru hori 560 izan da, EB-27ko batezbeste- koa (397) baino % 40 handiagoa. Bestalde, enplegu tasa, lurralde batek erabil- garri duen giza kapitala zein neurritan aprobetxatzen duen adierazten diguna, 2023an EB-27ko batezbestekoa baino gehiago hobetu da, eta, horrela, lehen zegoen aldea desagertu da eta bi lurraldeak parean jarri dira (% 70). Biztanleria gazteenaren gaitasun orokorrak neurtzen dituzten bi adierazleek azken urtee- tako joerari eutsi diote eta hobera egin dute. Gainera, EB-27ko batezbestekoa- ren gainetik daude.
Gizarte eta erakunde kapitala	Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa txiki eta ertainen % 23.4 lankidetzan aritu da I+Gn 2022an, proportzioan, EB-27an baino gehiago. Hala ere, gure lurraldeko argitalpen zientifikoen % 2.4 baino ez dira industriarekin lankide- tzan egiten, EB-27ko batezbestekoan baino askoz ere gutxiago (% 4.3). Bes- talde, gobernuaren kalitate indizeak aurreko edizioetan etengabe egin zuen gora, baina azken edizioan nabarmen egin du behera. Horrela, Euskal Auto- nomia Erkidegoa adierazle horretan lehen tokian egotetik seigarren tokian egotera igaro da.

Inklusioa, lehiakortasunaren eta ongizatearen motorra, testuinguru demografiko aldakor batean

2024an, 1970eko hamarkadaren hasierako biztanleriaz oso bestelakoa dugu Euskal Autonomia Erkidegoan. Alde batetik, lan egiteko adinean dauden pertsonen proportzioa antzekoa bada ere (% 60), gazteen ehuneko handiaren ordezkari kolektibo handiagoa dugu gaur egun. Beste alde batetik, mende honen hasieran Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren % 2 besterik ez zen atzerrian jaioa eta 2023an, ordea, kopuru hori % 12koa da. Azkenik, atzeritar jatorriko pertsonen profila dibertsifikatuz joan da. Gaur egun, atzeritar jatorriko 10 pertsonatik 3 inguru jatorri amerikarrek emakumeak dira; 2, jatorri bereko gizonak; beste 2, munduko gainerako herrialdeetako gizonak (batez ere Magrebekoak); eta beste hirurak, munduko beste herrialde batzuetako emakume bat eta jatorri europarreko gizon bat eta emakume bat izango lirateke.

Biztanleria askoz ere zaharragoa da orain eta, jatorriari begiratuta, askoz ere anitzagoa. Eta horrek ondorio garrantzitsuak ditu inklusioak gure lurraldeko lehiakortasunean eta ongizatean duen rolean. Lehiakortasun inklusiboa lurralde bateko pertsona guztiek, beren onena emanaz, merkatutako eta merkatutik kanpo balioa sortzen parte hartzeko prozesua dela ulertuko dugu. Lehiakortasun inklusiboa duten lurraldeetan, pertsona guztiek aukera izan beharko lukete eskuragarri dituzten ongizate emaitzak eraikitzen parte hartzeko.

Inklusioaren zeharkako ardatza lehiakortasunaren eta ongizatearen motor gisa aztertzeko, funtsezkoa da parte hartzearen eta sarbidearen alderdiak lantzea. Inklusioa, sarbide gisa, ongizatearen emaitzekin lotzen da; inklusioa, parte hartze gisa, berriz, lehiakortasunerako palanka dinamikoekin lotzen da, batez ere giza kapitalarekin eta gizarte kapitalarekin.

INKLUSIOA PARTE HARTZE ETA SARBIDE GISA



Euskal Autonomia Erkidegoko inklusioaren ardatzean sakontzeko, pertsonengan jarri dugu arreta; izan ere, pertsonen bizi dute, azken batean, desberdintasuna eta bazterketa eta haiek har dezakete parte lehiakortasuna eta ongizatea eraikitzen.

Inklusioa, lehiakortasuna eraikitzeko prozesuetan parte hartze gisa ulertua

Adinak, generoak eta jaiolekuak eragin handia dute lan merkatuan sartzeko edo prestakuntza jasotzen jarraitzeko erabakietan, ikasketak edo enplegua lortzeko aukeretan, eta enpleguaren baldintzetan. Euskal Autonomia Erkidegoan, giza eta gizarte kapitalari lotutako inklusioak panorama konplexua erakusten digu, baina egoera ongi ulertzea kritikoa da lurraldeko lehiakortasun eta ongizate prozesuetan pertsona guztien inklusioa lantzeko. Hauek dira kontuan hartzeko ezaugarri nagusiak:

- **Landunen tasak:** Oro har, txikiagoak dira emakumeen artean eta atzerrian jaiotakoen artean. Alde batetik, emakumeei dagokienez, zaintzarekin lotutako etxeko zereginen denbora gehiago eskaintzeak eragin zuzena du lan merkatuan sartzeko aukeretan. Beste alde batetik, atzeritarrek beste oztopo batzuk dituzte lana aurkitzeko, horien artean daude lan esperientzia, heziketa maila eta egoera erregularizatze prozesuak.
- **Garatutako lan jarduera:** Gizonek presentzia handiagoa dute industria sektorean, eta emakumeek administrazio publikoan (hezkuntza eta osasunean). Jatorri amerikarrek eta Europako gainerako herrialdeetako gizon-emakumeak gehiago aritzen dira merkataritzan, garraioan eta ostalaritzan; eta munduko gainerako herrialdeetan jaiotako gizonak gehiago aritzen dira eraikuntzan. Atzeritar emakumeek, bereziki amerikarrek, presentzia handiagoa dute beste zerbitzu batzuetan, tartean, etxeko lanetan. Lanbideko kategoriei dagokienez, bertako pertsonen dituzte trebetasun gehien eskatzen duten lanbideak, kudeaketako lanetan, profesioan eta teknikoetan ari baitira. Atzeritar jatorrikoak, berriz, oinarritzko zereginetan aritzen dira. Emakumeak jarduera gutxi batzuetan dira nagusi kudeaketako arduretan eta lanpostu profesional eta teknikoetan: jarduera profesional, zientifikoa, tekniko eta administratiboetan eta Administrazio publikoan, hezkuntza eta osasunean. Emakumeak enpresa munduan gero eta gehiago badira ere, horrek ez du ekarri erabakiak hartzeko postuetan duten presentzia neurri berean handitzea.
- **Kontratu mota:** Aldi bateko kontratuek eragin handiagoa dute emakumeen artean gizonen artean baino, eta, gizonen artean, handiagoa da atzeritar jatorrikoen artean duten eragina. Kontratu mota horrek presentzia handiagoa du, halaber, gazteen artean. Gainera, lanaldi osoa ohikoagoa da gizonen eta adineko pertsonen artean; emakumeek, berriz, nahi gabeko partzialtasun handiagoa dute. Atzeritar jatorriko pertsonen artean, kontraturik gabeko edo gizarte segurantzako afiliatorik gabeko enpleguen presentzia nabarmentzen da. Ziurrenik, pertsona horien administrazio egoera irregularren ondorio izango da hori eta legezko kontratuak ez egitea ekarriko du. Ondorioz, zalantza egongo da pertsona horien babes juridikoa eta soziala.
- **Gaitasunak:** Gaitasunei dagokienez, bertako biztanleek atzeritar jatorrikoek baino prestakuntza maila handiagoa dute. Gainera, emakumeen ehunekoa handiagoa da hirugarren mailako prestakuntzan, eta gizonena, hirugarren mailakoez bestelako derrigorrezko prestakuntzan. Era berean, etengabeko prestakuntzan emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da. STEM ikasketei dagokienez,

unibertsitateko ikasleen % 28k aukeratzen ditu (horietatik % 34 emakumeak dira), eta lanbide hezietako ikasleen % 51k (% 11 emakumeak dira). Azkenik, bai gizonek (% 11.8), bai emakumeek (% 16.4) eta bai atzeritar jatorriko pertsonen (% 21.8) adierazten dute lanpostuan eskatzen dena baino prestakuntza maila handiagoa dutela. Beraz, ez dira behar bezala aprobetxatzen pertsonen gaitasunak, batez ere emakumeenak eta atzeritar jatorriko pertsonenak, eta horrek eragina du pertsona horien ongizatean eta lurraldearen lehiakortasunean.

- **Gizarte eta erakunde kapitala:** Atzeritar jatorriko pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoek baino konfiantza orokor txikiagoa dute, baina erakundee-kiko konfiantza handiagoa. Bestalde, bertakoek sare pertsonal zabalagoak dituzte eta haietan bilatzen dute laguntza. Era berean, erraztasun gehiago dituzte finantza eta osasun laguntza eta laguntza emozionala eskuratzeko. Egoera horien ondorioz, atzeritar jatorriko pertsonen bertakoek baino independentzia pertsonal handiagoa dute. Gai soziopolitikoekiko interesa oso antzekoa da, jatorria edozein dela ere, baina atzeritar jatorriko pertsonen askoz ere neurri txikiagoan hartzen dute parte hauteskundeetan, guztiek ez dutelako botoa emateko eskubiderik.

Inklusioa, ongizatearen emaitzetarako sarbide gisa

Generoaren, adinaren eta jatorriaren arabera inklusioaren inguruan egin dugun analisiak ongizatearen emaitzetarako sarbidea ere izan du aztergai, bost dimentsio-tan:

- **Bizitzarekiko gogobetetasuna:** Bizitzarekiko gogobetetasunari dagokionez, ez dago alde handirik emakumeen eta gizonen artean, baina gogobetetasunak behera egiten du, pertsonak adinean aurrera egin ahala.
- **Bizitza materiala:** Emakumeek, oro har, gizonen baino errenta txikiagoak dituzte, eta pobrezia erreala handiagoa da emakumeak buru dituzten etxeetan. Era berean, errentak txikiagoak dira eta pobrezia handiagoa da gazteen artean eta, bereziki, atzeritar jatorriko pertsonak buru dituzte etxeetan dago pobrezia arrisku handiena. Atzerriko nazionalitatea duten pertsonen eta bertakoen arteko soldata arrakala % 34.3koa da. Ildo beretik, 25-34 urte artekoen eta 55 urte eta gehiagoko arteko soldata arrakala % 27.9koa da. Eraitza horiek etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunetan ere islatzen dira: etxebizitza bat jabetzan edukitzea zaila da, bereziki gazteentzat, eta are zailagoa atzeritar jatorriko pertsonentzat. Beste alde batetik, atzeritar jatorriko pertsonen erabiltzen dituzten etxebizitzak egoera okerragoan daude, hezetetasunari eta hotzari dagokienez.
- **Enplegua:** Emakumeek lanarekiko duten gogobetetasuna gizonen baino txikiagoa da. Hala ere, gogobetetasunak gehiago egin du okerrera gizonen artean. Bestalde, emakumeek gizonen baino gatazka egoera gutxiago dituzte lanean.
- **Gizarte bizitza:** Gizonen eta emakumeen artean, desberdintasunak ikusten dira etxeko lanen banaketan, bereziki, seme-alaba adingabeen zaintzan. Emakume landunek gizonen baino ordu gehiago eskaintzen dizkiote egiteko horri egunero. Gainera, emakumeek eta gizonen etxeko lanei eskaintzen dieten eguneko denborarekiko gogobetetasuna antzekoa bada ere, adierazle batzuek erakusten digute gizonen etxeko lanaren banaketa orokorrarekin duten gogobetetasuna emakumeena baino handiagoa dela.

- **Osasuna:** Gizonek bere osasun egoeraren hautemate hobe dute edozein adinetan. Gainera, emakume gehiagok dituzte antsietate eta depresio sintomak gizonekin alderatuta, bereziki 45-64 urteko adin tartean. Eta horrek eragina izan dezake gizarte harremanetan, harreman emozionaletan eta lan harremanetan.

Gomendioak

Txosten honek gure lurraldean lehiakortasun ekonomikoaren eta ongizatearen emaitzak, beste lurralde batzuekin alderatuta, onak direla erakusten digu eta, gainera, nahiko inklusiboak. Aurreko urteetako Txostenen emaitzak indartuz, erronka handienak jakintzaren eta kapital naturalaren palanketan eta berrikuntzako eta ingurumeneko emaitzetan ditugu. Lehiakortasunari lotutako erronka horiek eta beste batzuk gaur egungo egoera demografiko aldakorrean landu ahal izateko, bereziki garrantzitsua da modu aktiboan lan egitea lehiakortasun prozesuak pertsona guztientzat inklusiboak izateko. Horrela, hobeto aprobetxatuko ditugu gaur egungo gaitasun guztiak. Horrekin batera, pertsonen gaitasunak sendotu ditzakegu, bizitza osoan zeharreko hezkuntzaz baliatuta. Bestalde, gure enpresetan eta erakundeetan aniztasuna egoki kudeatzen ere ikasi behar dugu eta lidergo egokiak sortu, aniztasuneko testuinguru hauetan.

Askotariko planak eta politikak bideratzen dira inklusioaren dimentsioetara, eta bakoitzak rol bat du prozesu horretan. Ongizate inklusiboa sortuko duen lehiakortasun inklusiboa bilatzerakoan, garrantzitsua izango da ongizatearen eta lehiakortasunaren arteko loturak, kontraesanak eta sinergiak lantzea, lurraldeak ekonomia eta enpresa lehiakortasunaren ikuspegitik dituen beharrak eta lurralde horretako pertsonen ongizatearen beharrak lerrokatzeko. Ildo horretatik, Txostenak gomendioak ematen ditu, sei arlo zehatzetan.

- I. **Pertsona guztien gaitasunen gainean eraikitzea:** Gure azterketak adierazten du ez direla aprobetxatzen Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztien parte hartzea edo gaitasunak, bereziki, emakumeenak eta atzerriar jatorriko pertsonenak. Talde horiek parte hartzeko dituzten oztopoak landu behar dira, haien gaitasunak eta lurraldearen beharrak kontuan hartuta. Emakumeei dagokienez, oztopo horiek zaintza lanen banaketarekin ere lotuta daude; atzerriarren kasuan, berriz, beste jarduera batzuk dira garrantzitsuagoak: administrazio egoerari irtenbideak bilatzea, sare pertsonalak sustatzea, eta enpresen beharrekin lerrokatutako egongo diren prestakuntzako laguntzak eta aukerak eskuratu ahal izango dituztela ziurtatzea (bereziki, lanbide heziketako sistemaren bidez).
- II. **Aniztasuna besarkatzea:** Egoera demografikoa aldakorra den garai hauetan, garrantzi berezia du lehiakortasun prozesuetan pertsona guztien inklusioa lortzeko aktiboki lan egiteak. Generoari, migratzaileei, adin desberdinetako pertsonen eta abarri lotutako inklusio horrek jarduera tasak handitzeko eta enpresek belaunaldi aldaketari dagokienez eta mota guztietako talentua bilatzeko erronkari erantzuteko aukerak handitzen ditu eta, horrela, lehiakortasuna eta ongizatea sortzen laguntzen du. Gainera, garrantzitsua da aniztasun hori enpresetan eta beste erakunde batzuetan kudeatzen (eta gidatzen) ikastea, erakundeen errendimenduan, berrikuntzan edo nazioartekotzean izan ditzakeen onurak aprobetxatzeko.

III. *Lehiakortasun digital-teknologiko-berdea indartzea:* Lehiakortasunerako eta ongizaterako beste palankak ahaztu gabe, euskal ekosistemako eragileek ekintzak eta estrategiak lehenetsi behar dituzte, kapital naturalaren eta jakintzaren palankak indartzeko. I+Gn inbertitzearekin eta jakintza berria merkaturatzearekin batera, jasagarritasunarekiko eta digitalizazioarekiko sentsibilitate berezia landu behar da, gure industriak lehiakortasun digital-teknologiko-berde baterako trantsizioaren abangoardian jartzeko aukera izan dezan. Gainera, energia berriztagarrien presentzia handiagoko energia sistema baterantz joateko erronkak teknologia-, gizarte- eta portaera-aldaketak dakartza. Hauek ongizate inklusiboa erraztu dezake, hainbat bidetatik, esate baterako kontsumitzailearen ahalduntzea, enplegu aukera berriak sortzea edo airearen kalitatea eta pertsonen osasuna hobetzea bultzatuz.

IV. *Berrikuntza eta produktibitatea sustatzea:* Berrikuntza estrategikoa da enpresa txiki eta ertainentzat, kritikoa baita epe ertain eta luzera ekonomiaren produktibitatearen igoera iraunkorrek sortzeko. Kultura berritzailea sustatzen jarraitu behar da, horretarako berrikuntzari lotutako kostuak murrizten lagunduz, arauketa eta izapideak sinplifikatuta, eta antolaketako eta marketineko berrikuntzak bultzatuz, produktuko eta prozesuko berrikuntzen osagarri. Ahalegin horiek, bereziki, tamaina txikiagoko enpresetan egin behar dira.

V. *Ongizatearen mehatxuak lantzea:* Euskal Autonomia Erkidegoan ongizate mailak altuak dira eta azken urteetan nabarmen hobetu dira, besteak beste, tradizioz ahulak izan diren arlo batzuetan, esate baterako, enpleguan. Baina, hala ere, garrantzitsua da ongizate horren gaineko mehatxuez jabetzea. Mehatxu horien artean aipatzekoak dira osasunari lotutako joera negatiboak eta desberdintasunak, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak eta gazteen hezkuntza arloko emaitzak. Nolanahi ere, erronka handienak ongizatearen ingurumen dimentsioan ditugu. Dimentsio horretan, gure gizartean trantsizio berdea modu ordenatuan bizkortu behar da, trantsizio horren gizarte eraginak ere zainduz, Lehiakortasunari buruzko iazko Txosteneko ondorioetan (Orkestra, 2023) aipatzen genuen bezala.

VI. *Ongizate emaitzei lotutako inklusioa indartzea:* Ongizate maila, oro har, handia bada ere, ongizatearen dimentsioetako batzuk ez dira berdin iristen gizarteko talde guztietara, eta horrek arreta berezia eskatzen du, benetan inklusiboa izango den ongizatea lortzeko. Berezi, hiru alderditan jarri beharko genuke arreta: diru sarreretan dagoen genero arrakala gainditzeko lan egin behar da, gazteek eta atzerriarrek etxebizitza bat eskuratzeko dituzten zailtasun handiei irtenbideak bilatu, eta osasun mentaleko arazoek emakumei besteei baino gehiago zergatik eragiten dieten hobeto ulertu.

Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2023ko Txostenak ingurumenaren aldetik jasagarria izango den lehiakortasunerako trantsizioa izan zuen aztergai, eta ondorio nagusi gisa azpimarratzen zuen trantsizio berdeari heldzean, «*ekonomia, ingurumen eta gizarte arloetan nahi diren emaitzak lortuko direla*» ziurtatu behar dela (Orkestra, 2023). Hiru arlo horiek aldi berean lantzeko, funtsezkoa da pertsona guztien inklusioa ziurtatzea lehiakortasun prozesuetan eta ongizatearen dimentsioetan. Horregatik, inklusioa zeharkako ardatz gisa ageri da Orkestraren ongizatea helburu duen lehiakortasun ereduan (ikus 1-1. irudia).

Lurralde garapenean inklusioak duen garrantzia nabarmentzen dute nazioarteko erakundeek ere, esate baterako, Nazio Batuek, Lanaren Nazioarteko Erakundeak edo Europako Batzordeak, «trantsizio bidezkoa» sustatu beharraz hitz egiten baitute. Hain zuzen ere, gero eta ohikoagoa da Europako gaur egungo industria politikaren ardatz nagusiez ari garela, trantsizio «berde eta digital» bikoitzaz hitz egin beharrean (Europako Batzordea, 2020, 2021), trantsizio hirukoitzaz hitz egitea: «berdea, digitala eta soziala» (ELGEa, 2023). Gainera, 2024ko irailean eratu zen Europako Batzorde berrian, presidenteordetza bati eman zaio trantsizio «garbia, bidezkoa eta lehiakorra» sustatzeko erantzukizun esplizitua.

Gero eta ohikoagoa da trantsizio «berde, digital eta sozial» edo trantsizio «garbi, bidezkoa eta lehiakor» hirukoitzaz hitz egitea

Alde batetik, inklusioa trantsizio «bidezkoa» edo «sozial» baten ardatz kritikoa da, eta berezko lotura du lurralde baten lehiakortasunarekin eta ongizatearekin; izan ere, lurralde baten lehiakortasunak lurralde horretan bizi diren pertsona guztien ongizatea sustatzeko gai izan beharko luke, bai orain, bai etorkizunean. Hala, inklusioak agerikoa izan beharko luke ongizatearen emaitzetan, gure esparruan lurralde baten azken emaitzak neurtzen dituen horretan.

Baina, beste alde batetik, inklusioak lurralde bateko lehiakortasunerako palanken eraginkortasunari ere eragiten dio, gure etorkizuneko lehiakortasunerako eta ongizaterako garrantzitsuak diren erronketako batzuekin elkarreaginean baitago, esate baterako, enpresetako eta administrazio publikoetako belaunaldi aldaketarekin, lurraldean gaitasun egokiak (edo «talentua») eskuragarri egotearekin, edo kudeaketa eta antolaketako eredu berrien bilakaerarekin.

Inklusioa, berez, dimentsio askotako fenomeno da, eta, besteak beste, pertsonen generoarekin, adinarekin, jatorriarekin, gaitasunekin eta baliabide ekonomikoekin du lotura. Desberdintasunen gorakadaren ondorio ekonomiko eta politikoen inguruko

kontzientzia handia den une honetan, bereziki garrantzitsua da ulertzea gurean nola islatzen diren lehiakortasunaren eta ongizatearen emaitzak hainbat pertsona taldeetan, zeharkakotasuna ere kontuan hartuta. Eta kontuan harturik une honetan lehiakortasun eta ongizate maila handiei eusteko giza gaitasunekin lotutako erronka kritikoei aurre egin behar diegula, berebiziko garrantzia du ulertzeak nola eragiten dieten lehiakortasunerako palankek —bereziki, giza kapitalari eta gizarte kapitalari— hainbat alderdik, besteak beste, genero desberdintasunak, belaunaldien arteko harremanek edo pertsona migratuak gizartean integratzeak.

Ongizate inklusiboa sortzeko gai izango den lehiakortasun inklusiboa ziurtatzeak aurrean jartzen dizkigun erronkak aztertutitugu

Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2024ko Txosten honetan inklusioaren zeharkako ardatzean sakondu dugu, pertsona guztientzako ongizate inklusiboa sortzeko gai izango den lehiakortasun inklusiboa ziurtatzeak aurrean jartzen dizkigun erronkei buruz hausnartzeko. Txostenaren hasieran, Euskal Autonomia Erkidegoaren lehiakortasun eta ongizate errendimendu orokorra aztertuko dugu. Horretarako, 66 adierazleren bilakaerarik berriena aurkeztuko dugu, ongizatea helburu duen lurralde lehiakortasunerako gure esparruaren arabera antolatuta. Bigarren kapituluak inklusioak lurralde baten lehiakortasunaren eta ongizatearen zeharkako ardatz gisa duen garrantziari buruzko hausnarketa kontzeptuala proposatzen du. Hirugarren kapituluak, berriz, inklusioaren hiru dimentsio aztertzen ditu Euskal Autonomia Erkidegorako —jatorria¹, generoa eta adina— eta ongizatearen adierazlee kin eta giza kapitalaren eta gizarte kapitalaren palankek in duten lotura arakatzen du. Txostena amaitzeko, hiru kapituluetakoz azterketetatik ateratako ondorioak azaldu eta haietatik sortzen diren gomendioak nabarmendu ditugu.

¹ Txosten honetan, pertsona baten jatorria jaiolekua dela ulertuko dugu.

1

Euskal Autonomia Erkidegoaren errendimendua ongizatea helburu duen lehiakortasunean

1.1 Gure azterketa esparrua

Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera aztertzeko, Orkestrak lurralde baten lehiakortasunaren eta ongizatearen baldintzatzailek ulertzeko garatu duen esparru holistikoa erabili dugu (Orkestra, 2021). 1-1. irudian ikus daitekeen bezala, esparruak hiru multzo handitan antolatzen ditu lurralde baten lehiakortasuna eta ongizatea ulertzeko adierazle nagusiak:

1. Erdian, urdinez, lurraldearen azken emaitzak neurtzen dira. Horien barruan, argi bereizten dira: (i) ekonomia eta enpresa emaitzen dimentsioak, lehiakortasunaren analisietan ohikoak direnak, eta (ii) pertsonen ongizatearen dimentsioak. Hain zuzen ere, ongizateak izan beharko luke lehiakortasunaren azken helburua.
2. Ezkerraldean, laranja, lurraldearen egiturazko ingurunea azaltzen da. Ingurune horretan jasotzen diren ezaugarriak, neurri handi batean, emanak daude eta ez dira ez onak eta ez txarrak *per se*. Gainera, gutxi aldatzen dira, epe laburrera, berden.
3. Eskuinean, berdez, lehiakortasunerako palanka dinamikoak jasotzen dira. Palanka horiek lehiakortasunean eta ongizatean eragina duten faktore guztiak hartzen dituzte barne, eta haien gainean jardun dezakete eragileek eta gobernuen politikek eta estrategiek.

Hiru multzo horiez gain, inklusioa eta nazioarteko konexioa ere esparruan integratuta daude, zeharkako elementu gisa. Hain zuzen ere, inklusioa da 2024ko Txosten honen aztergai nagusia, eta 2. eta 3. kapituluetan jorratuko dugu.

Esparruaren zati laranja oso mantso aldatzen da, eta xehetasunez aztertu genuen Lehiakortasunari buruzko 2022ko Txostenean (Orkestra, 2022). Txosten hartan, egiturazko ingurunearen ezaugarri nagusi hauek identifikatu genituen:


- **Manufakturaren egituraren sofistikazio handia eta egonkorra (dibertsifikazioa eta berezitasuna)**, Europarekin alderatuta, baina txikiagoa, manufakturaz gainera, ekonomiaren gainerako jarduerak ere kontuan hartzen direnean.
- **Egitura ekonomikoaren aldaketa mailakatuak**, Europarekin alderatuta, manufaktura aurreratuen eta jakintzaren ekonomiarako garrantzitsuak diren zerbi-

Inklusioa
zeharkako
elementu gisa
azaltzen da
ongizatea helburu
duen lehiakortasun
esparruan

tzuen espezializazioa handitzen ari baita, eta manufaktura sektore tradizionalen eta merkaturatze jarduerekin eta kudeaketa eredu berrien sustapenarekin lotutako zerbitzuen espezializazioa, berriz, txikitzen.

- **Zahartze tasa handia eta migrazio saldo positiboa**, lan merkatuan eta gizarte babeseko sisteman ondorio garrantzitsuak dituzten ezaugarriak biak.
- **Pertsonen balioen aldaketa**, batez ere lan eremuan: belaunaldi gazteek lehen-tasun handiagoa ematen diote soldadari eta ordutegiari eta txikiagoa, berriz, ekimena izateko edo erantzukizunak hartzeko aukerari. Gainera, absentismo maila altuak kezka sortzen du.

1-1. IRUDIA Ongizatea helburu duen lehiakortasun esparrua



Iturria: Orkestra (2021).

Kapitulu honetan, esparruaren zati urdinari eta berdeari erreparatuko diegu, Euskal Autonomia Erkidegoak ekonomia eta enpresa emaitzen lau dimentsioetan eta ongizatearen emaitzen zazpi dimentsioetan izan duen errendimenduaren diagnostiko eguneratua egiteko, eta lehiakortasunerako sei palanketako bakoitzeko adierazle gakoak bilakaerarik berriena ezagutzeko, hurrenez hurren.

Euskal Autonomiko Erkidegoko (EAE) lehiakortasunari buruzko gure diagnostikoa 66 adierazletan oinarritzen da

Analisi horretarako, 66 adierazle hautatu ditugu, bi faktore kontuan hartuta: alde batetik, dimentsio jakin bat ulertzeko duten garrantzia (adierazlearen egokitasuna) eta, beste alde batetik, datu berri eta alderagarrien eskuragarritasuna (adierazlearen egingarritasuna). Lehiakortasunari buruzko Txostenaren aurreko edizioetan bezala, Europar Batasuneko batezbestekoarekin eta beste erregio esanguratsu batzuekin alderatzeko aukera ematen diguten adierazleak hautatu ditugu². Bloke bakoitzean —ekonomia eta enpresa emaitzen dimentsioak, ongizatearen dimentsioak eta palanka dinamikoak—, taula bat aurkeztu dugu, adierazle bakoitzak datuak eskuragarri ditugun azken urtean izan duen balioa erakusteko. Horrekin batera, adierazleak azken

² Hala ere, adierazle egokiagoak kontuan hartzeko aukera gehiago izateko, zenbaitetan alderaketak herrialdeekin, Espainiako batezbestekoarekin edo gainerako autonomia erkidegoekin baino ez ditugu egin.

urtean izan duen bilakaeraren sailkapena eta EB-27ko batezbestekoarekiko kokapen erlatiboa ere eman ditugu. Gainera, bloke bakoitzak eranskin bat du; bertan aurkeztu ditugu adierazleek, erreferentziazko lurraldeekin alderatuta, azken hamarkadan izan duten bilakaeraren grafikoak.

1.2 Ekonomia lehiakortasuna

1-1. taulak Euskal Autonomia Erkidegoko azken datuak erakusten dizkigu, ekonomia eta enpresa lehiakortasunari lotutako 22 adierazletan, 4 multzotan antolatuta. Adierazle bakoitzaren errendimendua azaltzeko, datuak ditugun azken urteko bilakaera eta Europako batezbestekoarekiko kokapen erlatiboa ematen dira, bai termino absolutuetan eta bai azken urteko bilakaera erlatiboari begiratuta.³

1. eranskinak adierazle bakoitzerako hamar urteko bilakaeraren grafikoak ematen dizkigu, bai Euskal Autonomia Erkidegorako eta bai erreferentziazko lurraldeetarako.⁴

Lurraldearen **errendimendu ekonomikoa** eta enpresen **errentagarritasun ekonomikoa**, biak, oso positiboak dira. Biztanleko BPGk, erosteko ahalmenaren parekotasunean (EAP) neurtua, hazten jarraitu du 2023an ere, eta, horrela, EB-27ko batezbestekoarekiko (% 111) alde positiboa handitu egin da eta Alemaniarekiko (% 96) alde negatiboa nabarmen murriztu da. Produktibitate neurriek ere Europako batezbestekoaren gainetik egin dute gora, oro har (ekonomia osoko landun bakoitzeko produktibitatea bakarrik hazi da batezbesteko hori baino gutxiago) eta, kasu guztietan, Espainiaren eta EB-27aren gainetik dago, baina Alemaniako eta Austria Garaia eta Baden-Wurtemberg erreferentziazko eskualdeetako balioen azpitik.

Produktibitateak gora egin du EAEn 2023an, eta biztanleko BPG Europako eta Alemaniako batezbestekoa baino gehiago handitu da

Ekonomia eta enpresa sistemak bere jardueren bidez errentagarritasuna sortzeko duen gaitasunari dagokionez, bilakaera positiboa izan da adierazle guztietan. Euskal Autonomia Erkidegoa oso ongi kokatuta dago Europako batezbestekoarekin alderatuta. Unitateko lan kostuak (ULK), lanaren ordainsariaren eta produktibitatearen arteko azpiko harremana erakusten digunak, behera egin zuen ekonomia guztietan 2022an. Manufakturaren sektorean, ULKek EAEn izan duten jaitsiera nabarmenaren ondorioz, Alemaniako ULKren azpitik geratu dira eta EB-27tik eta Espainiatik hurbilago, aurreko urteetan baino. Ustiapeneko soberakin gordinak enpresa ustiapeneko jarduerak sortzen duten soberakina adierazten du, lan faktorea (zehazki, soldatapeko langileak) ordaindu ondoren. Adierazle hori egonkor mantendu da Euskal Autonomia Erkidegoan, % 43aren inguruan. Ehuneko hori Espainiakoa eta EB-27koa baino pixka bat handiagoa da, eta Alemaniakoa baino dezente handiagoa. Azkenik, enpresen errentagarritasunaren bi adierazleek ere gora egin zuten 2023an: errentagarritasuna

³ Kolore berdeak emaitza positiboa adierazten du, eta gorriak negatiboa. Koloreztatutako lehen eta bigarren zutabeetan, ikur batek adierazten du aldea % 1 eta % 5 artekoa dela; bi ikurrek, berriz, aldea % 5etik gorakoa dela esan nahi dute. Hirugarren zutabeetan, ikur batek adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoko aldakuntza EB-27ko aldakuntzarekin alderatuta portzentajeazko 0.5 eta 3 puntu artekoa dela; bi ikurrek esan nahi dute aldea portzentajeazko 3 puntutik gorakoa dela. Hiru kasuetan, aldea adierazitako balioak baino txikiagoa bada, berdin ikurra azalduko da.

⁴ Konparazioa egiteko honako lurralde hauek aukeratu ditugu: i) Europako bi erregio (Baden-Wurtemberg eta Austria Garaia), EAEn antzeko ezaugarriak dituztelako eta gizarte eta ekonomia errendimendu ona dutelako (Orkestra, 2020); (ii) Europar Batasuna (EB), 27 herrialdek osatua (EB-27), Europako batezbestekoarekin alderatzeko; (iii) Espainia, Euskal Autonomia Erkidegoa Espainiako batezbestekoarekin alderatzeko; eta (iv) Alemania, Europako erreferentziazko herrialdea. Lurralde horietako datuak aurkeztuko ditugu, eskuragarri dauden heinean.

sun ekonomikoa (ROA) % 6.6 izan zen eta finantza errentagarritasuna (ROE), % 11.8. Errentagarritasunaren hobekuntza nabarmenagoa izan da manufakturaren sektorean (% 6.5 2023an, hau da, 2022an baino portzentajezko 1.8 puntu handiagoa) eta zerbitzuen sektorean (% 6.8 2023an, 2022an baino portzentajezko 1.7 puntu handiagoa).

1-1. TAULA Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia eta enpresa lehiakortasunaren emaitzak

Adierazlea	Urtea	Balioa	Bilakaera (azken urtea)	Kokapen erlatiboa EB-27rekiko	
				Maila	Aldakun- tza
EKONOMIA ETA ENPRESA EMAITZAK					
Ekonomia eta enpresa errendimendua					
Biztanleko BPG (EAP-€)	2023	42 159	→→	↑↑	+
Lanaren ageriko produktibitatea landun bakoitzeko (k€ pertsona bakoitzeko)	2023	78.7	→	↑↑	-
Lanaren ageriko produktibitatea lan egindako ordu bakoitzeko (€ orduko)	2022	46.6	→→	↑↑	++
Manufakturako lanaren ageriko produktibitatea landun bakoitzeko (k€ pertsona bakoitzeko)	2022	84.6	→→	↑↑	++
Manufakturako lanaren ageriko produktibitatea lan egindako ordu bakoitzeko (€ orduko)	2022	50.6	→→	↑↑	++
Enpresa errentagarritasuna					
Unitateko lan kostua (ULK) ekonomia osoan (landun bakoitzeko %)	2022	59.1	→	↑	+
Unitateko lan kostua (ULK) manufaktura sektorean (landun bakoitzeko %)	2022	58.2	→→	↓↓	++
Ustiapeneko soberakin gordina (BPGren %)	2023	43.1	=	↑	+
Aktiboaren gaineko errentagarritasun ekonomikoa (ROA) (mediana; %)	2023	6.6	→→	d.e.	d.e.
Finantza errentagarritasuna (ROE) (mediana; %)	2023	11.8	→→	d.e.	d.e.
Berrikuntza eta ekintzailetza					
ETE berritzaileak guztira (CORE est. %)	2022	42.4	→→	↓↓	--
Produktuko berrikuntza duten ETEak (CORE est. %)	2022	26.1	→→	↓↓	++
Prozesuko berrikuntza duten ETEak (CORE est. %)	2022	32.6	→→	↓↓	--
Produktu berrien/hobetuen salmentak ETE berritzaileentzat (salmenta guztien %)	2022	11.1	←←	↑↑	-
Jarduera ekintzaileen tasa (18-64 urte arteko biztanleriaren %)	2023	5.5	→→	d.e.	d.e.
Hazkunde handiko enpresak (10 langile baino gehiagoko enpresen %)	2022	9.2	←←	↑↑	--
Nazioartekotzea					
Ondasunen nazioarteko esportazioak (BPGren %)	2023	35.8	←←	↓↓	+
Ondasunen nazioarteko merkataritza saldoa (BPGren %)	2023	6.4	→→	↑↑	++
Energiaz bestelako ondasunen nazioarteko esportazioak (BPGren %)	2023	33.6	←	↓↓	+
Energiaz bestelako ondasunen nazioarteko merkataritza saldoa (BPGren %)	2023	11.7	→→	↑↑	--
Ondasunen eta zerbitzuen nazioarteko esportazioak (BPGren %)	2023	40.2	←	↓↓	++
Ondasunen eta zerbitzuen nazioarteko merkataritza saldoa (BPGren %)	2023	6.3	→→	↑↑	++

Iturria: Geuk egina, 1. eranskinean jasotako grafikoak eta iturriak erabilia.

Regional Innovation Scoreboard (Europako Batzordea, 2023a) sailkapenean Euskal Autonomia Erkidegoa berritzaile sendoa eta bikaintasun poloa izendatzen bada ere, **enpresa txiki eta ertainetako berrikuntza** adierazleak ahulak dira, behin eta berriro, azken urteetako lehiakortasunaren errendimenduan. 1-1. taulan ikus daitekeen bezala, enpresa txiki eta ertainen berrikuntzako hiru adierazleetan Euskal Autonomia Erkidegoak desabantaila du Europako batezbestekoarekiko, alderatzeko moduko datuak ditugun azken urtean (2020). Hala ere, 2022ko datuetara jotzen badugu, Euskal Autonomia Erkidegoan hobekuntza handia ikusten da ETE berritzaileen ehunekoan (% 42.4), baita produktuko berrikuntzak dituzten ETEen ehunekoan (% 26.1) eta prozesuko berrikuntzak dituzten ETEen ehunekoan (% 32.6) ere. Gainera, nahiz eta EB-27ko 2022ko datuak oraindik eskuragarri ez egon, ikus daiteke Alemaniarekiko alde, oraindik handia bada ere, estutu egin zela 2022an, berrikuntzari lotutako hiru adierazleetan, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren hobekuntzari esker eta bai Alemaniako adierazleen beheranzko joeraren eraginez. Bestalde, produktu berrien edo hobetuen salmentak % 11.1ra jaitsi ziren 2022an Euskal Autonomia Erkidegoan. Hala ere, adierazle horretan Euskal Autonomia Erkidegoak oso kokapen ona izan du beti (% 4.8), EB-27ko batezbestekoarekiko, Espainiarekiko eta Alemaniarekiko.

Hobekuntza ikusten da enpresa txiki eta ertain (ETE) berritzaileen ehunekoan (% 42.3): bai produktuko berrikuntzak dituztenetan (% 26.1) eta bai prozesukoetan (% 32.6)

Lehiakortasunerako kritikoa den gai honetan sakontzeko, 1-1. laukiak, Eustaten Berrikuntzaren Inkestaren mikrodaturaz baliatuz, EAEko enpresa txiki eta ertainen berrikuntzaren inguruko azterketa zehatzaren mezu garrantzitsuenak eskaintzen ditu (Alkorta *et al.*, 2024).

1-1. LAUKIA EAEko enpresa txiki eta ertainen berrikuntza

Enpresa txiki eta ertainek berritzeko duten gaitasuna erabakigarria da edozein lurralderen lehiakortasunerako, eta are garrantzitsuagoa Euskal Autonomia Erkidegorako, gure ekonomian enpresa txiki eta ertainek pisu handia baitute. Euskal Autonomia Erkidegoko berrikuntza sistemaren errendimendua, oro har, ona da, baina kezka nabaria da ETE berritzaileen ehunekoa nahikoa txikia delako, erreferentziazko beste lurralde batzuekin alderatuta. Eustaten eta Eurostaten berrikuntza inkestetatik abiatuta, EAEko ETEek berrikuntzaren arloan dituzten ezaugarri nagusiak aztertu ondoren, honako hau nabarmendu behar dugu:

- **Berrikuntza eta enpresa tamaina:** Euskal Autonomia Erkidegoak beste lurralde batzuek baino ETEen ehuneko handiagoa du (enpresa guztien % 98 da txikia edo ertaina). Multzo horretan, beste lurraldeetan baino pisu handiagoa dute enpresa txikiek (% 82). Gainera, establezimendu txiki berritzaileen ehunekoa txikia da (% 38.9), eta EB-27rekiko abantaila erlatiboa galdu du establezimendu ertain berritzaileetan (% 60.7 EAEan eta % 65.2 EB-27n).
- **Produktuko berrikuntza:** Produktuko berrikuntzan aritzen diren ETEen ehunekoa EB-27ko batezbestekoaren eta Alemaniakoaren azpitik badago ere, nabarmentzekoa da berrikuntza mota hori egiten duten EAEko establezimendu ertainen ehunekoa (% 38.8). Hain zuzen ere, ETEen produktu berrien edo hobetuen salmentak (% 11.1), nahiz eta azken urteetan behera egin, Europako eta Alemaniako mailen gainetik daude, nabarmen, batez ere tamaina ertaineko establezimenduen balio altuagoei esker. Emaita horiek EAEko ETEetan nolabaiteko dualtasuna dagoela iradokitzen digute: enpresa ertainek nahiko kokapen ona dute eta enpresa txikiek, ordea, okerragoa.

Enpresa txiki eta ertainen berrikuntzan bi errealitate daude: enpresa ertainen kokapen erlatiboa enpresa txikiarena baino hobea da

ETEen berrikuntzarako oztopo garrantzitsuenak honako hauek dira: enpresek beste lehentasun batzuk izatea, kostuak handiak izatea eta merkatuko eskaria ziurgabea izatea

ETEetan, berrikuntza estrategiak etengabeko hobekuntzetan oinarritzen dira eta arrisku eta disrupzio maila txikikoak dira

- **Prozesuko berrikuntza:** Ekoizpen prozesuaren dimentsio desberdinetan berrikuntzaren bat egin duten ETEen ehunekoa, oro har, Espainiakoa baino handiagoa da, baina EB-27koa eta Alemaniakoa baino txikiagoa. Katēgoria bakarrean lortzen dira Europaren eta Alemaniaren antzeko balioak: ekoizpen metodoen kategorian. Enpresa txikiek EB-27n eta Alemanian baino kokapen kaskarragoa dute adierazle guztietan, eta alderik handiena antolaketa eta giza baliabideetan, negozio jardunbide eta kanpoko harremanetan, eta marketinean antzematen dira. Enpresa ertainetan, Europako batezbestekoarekin alderatuta, kokapena ona da ekoizpen metodoei lotutako berrikuntzan; okerragoa da, ordea, gainerako kategorietan eta, bereziki, antolaketa eta marketineko berrikuntzekin zerikusia duten guztietan.
- **Berrikuntza gastua:** Euskal Autonomia Erkidegoko berrikuntza gastua oso kontzentratuta dago ETEetan; beste lurralde batzuetan, ordea, enpresa handiek pisu handiagoa dute. Bereziki nabarmentzekoa da establezimendu ertainen berrikuntza gastua, negozio zifraren ehunekoa, baita barneko eta kanpoko I+Gko gastuaren pisu handiagoa ere, berrikuntzako beste gastu batzuen kaltetan. Hiru faktorek azaltzen dituzte emaitza horiek: (i) Euskal Autonomia Erkidegoan unitate handien ehunekoa txikia izateak; (ii) EB-27n eta Alemanian unitate handien batez besteko tamaina handiagoa izateak eta (iii) I+Gko zerbitzuetan sartzen diren erakunde gehienak —eta Euskal Autonomia Erkidegoaren berrikuntza gastuan hainbesteko pisua dutenak— tamaina handikoak ez izateak.
- **I+G+Bko lankidetzak:** Beste eragile batzuekin I+G+B arloan lankidetzan aritzea da EAEko berrikuntzaren bereizgarrietako bat. Hain zuzen ere, ETE berritzaileen %52 aritzen da I+G+Bn lankidetzan, beste lurralde batzuetan baino ehuneko askoz handiagoa. Lankidetzak hori eskualde eta nazio mailakoa da batez ere, eta atzerriarekin lankidetzan aritzen diren establezimenduen ehunekoa EB-27koa baino txikiagoa da. Enpresa txiki eta ertainak nagusiki aholkularitza enprekin eta zentro teknologiko, LBZ, BERC eta antzekoekin aritzen dira lankidetzan.
- **Berrikuntzarako laguntza publikoak:** Nabarmentzekoa da EAEn laguntza publikoak jasotzen dituzten ETEen ehunekoa, bai oro har (%53), bai I+G+Brako (%35). Ehunekoa Alemaniakoa eta Espainiakoa baino askoz handiagoa da. Administrazioei dagokienez, Eusko Jaurilaritza iristen da establezimenduen ehuneko handienera eta atzetik datoz Foru Aldundiak.
- **Berrikuntzarako oztopoak:** EAEko ETEentzako (berritzaileak eta ez-berritzaileak) oztopo garrantzitsuenak *enpresak beste lehentasun batzuk izatea* eta *kostuak handiak izatea* dira, eta, ondoren, *merkatuko eskariaren ziurgabetasuna*. ETE berritzaileek gehiago nabaritzen dituzte berrikuntzarako oztopoak eta, horien artean, nagusia *berrikuntzaren kostu handiegia* da. Horren atzetik aipatzen dituzte *enpresak beste lehentasun batzuk izatea* eta *laguntzak edo dirulaguntza publikoak lortzeko zailtasunak*. Bi kasuetan, *jakintzarekin* lotutako oztopoek dute garrantzi gutxien.
- **Enpresa estrategiak eta berrikuntza:** Establezimendu berritzaileek lehentasuna ematen diete, bereziki, i) kalitateari lotutako lidergoan oinarritutako estrategiei, ii) lehendik dituzten produktuak hobetzeari, iii) ohiko bezeroen gogobetetasuna ziurtatzeari eta iv) talde berrietara iristeari. Horrela, etengabeko hobekuntzan oinarritutako berrikuntza ereduak dira nagusi, arrisku eta disrupzio maila txikikoak.

Azterketak berresten digu behar-beharrezkoa dela berrikuntzari arreta eskaintzen jarraitzea, jarduera berritzaileak dituzten ETEen kopurua eta ehunekoa handitzeko. Alde batetik, garrantzitsua da ETEetan berrikuntzaren kultura sustatzen jarraitzea, uler dezaten etorkizunean ere lehiakorrak izan nahi badute ezinbestekoa dela berrikuntzan lan egitea, enpresaren estrategiaren zati integral gisa. Beste alde batetik, garrantzitsua da ETEen jarduera berritzaileak babesten jarraitzea, prozesu horretan topatzen dituzten oztopoei aurre egin ahal izateko, batez ere, kostuei eta enpresak beste lehentasun batzuk izateari dagokienez. Bereziki, egoeak agerian uzten du ahaleginak tamaina txikiagoko enpresetara bideratu behar direla eta ekoizpen metodoez bestelako berrikuntzak bultzatzen jarraitu behar dela, ETEen lehiakortasunerako palanka gisa.


Iturria: Alkorta et al. (2024). Ikus txosten osoa helbide honetan: <https://doi.org/10.18543/ECII3722>

1-1. taulak **ekintzailetzari** buruzko bi adierazle ere eskaintzen dizkigu. Alde batetik, jarduera ekintzailearen tasak, ekintzailetzako hasierako faseetan dagoen 18-64 urte arteko biztanleriaren ehunekoa neurtzen duenak, hobera egin du azken urtean, nahiz eta Espainiakoa eta Alemaniakoa baino txikiagoa izan. Jarduera ekintzailearen tasa biztanleriari egindako inkesta batean oinarritzen denez eta mota askotako ekintzailetzak hartzen dituen barne, interesgarria da enpresa teknologikoei buruz orain dela gutxi argitaratu den txosten bat aipatzea (El Referente, 2024). Horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa Espainiako laugarren erkidegoa da (Katalunia, Madril eta Valentziaren atzetik) 2010az geroztik sortu diren enpresa teknologikoen kopuruan. Gainera, lurralde horien aurretik gelditzen da, enpresa kopurua biztanleriarekin zatitzen denean. Bestalde, hazkunde handiko enpresen adierazleak⁵, sortzen diren enpresak benetan enplegua sortzeko gai diren neurtzen duenak, behera egin du eta Espainiaren antzeko mailetan dago orain, baina EB-27ko batezbestekoaren eta Alemaniaren gainetik.

Ekintzailetzak lotura estua du lurralde baten enpresa dinamismoarekin, eta gai horretan gehiago sakontzeko, 1-1. grafikoak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen alden eta baje bilakaera erakusten digu, 2013 eta 2022 urteen artean. Grafikoan ikus daitekeenez, enpresen alden 2014 eta 2020 urteen artean behera egin bazuten ere (2018an izan ezik, urte horretan nabarmen egin baitzuen gora enpresa berrien kopuruak), enpresen alden kopuruak gora egin du datuak ditugun azken bi urteetan. Aztertutako aldi osoan zehar, 2018an izan ezik, enpresen baje kopurua alden kopuruaren gainetik egon denez, lurraldeak saldo garbi negatiboak ditu enpresen sorreran. Hau da, grafikoaren bigarren zatian ikus daitekeenez, 2013 eta 2022 urteen artean (2013 = 100 oinarrian) enpresen kopuruak, guztira, behera egin du azken hamarkadan. Hala ere, bilakaera asko aldatzen da enplegu tartearen arabera: azertu dugun aldian, tamaina txikieneko enpresen kopuruak behera egin du eta 6 langile edo gehiagoko enpresen kopuruak, ordea, gora. Bilakaera horrek enpresen batez besteko tamainaren hazkundea ere ekarri du. Hala, enpresa bakoitzak, batez beste, 2013an 5.34 langile izatetik 2022an 6.23 izatera igaro da.

Enpresen batez besteko tamaina handitu egin da azken hamarkadan

1-1. GRAFIKOA Enpresa dinamismoa (2013-2022)



Iturria: Geuk egina, Eustaten Enpresak sortzearen eta ixtearen estatistika eta JEGID-Jarduera ekonomikoen gidazerrenda erabilia.

⁵ Datuak B-N sektoreetako enpresei buruzkoak dira (K642 izan ezik). Kalkuluek azken hiru urteetako hazkunde tasak kontuan hartzen dituztenez, oraindik ez da pandemiaren eraginik nabaritzen.

2023an behera egin dute esportazioek, baina, hala ere, EAEk EB-27ko batezbestekoarekiko duen kokapenak nabarmen egin du hobera


Taulako adierazleen azken multzoak **nazioartekotzeari** buruzko emaitzak eskaintzen dizkigu, kanpo merkataritzari buruzko adierazleez baliatuta. Ondasunen nazioarteko esportazioek behera egin zuten 2023an Euskal Autonomia Erkidegoan: BPGren % 37.9 izatetik % 35.8 izatera igaro ziren. Neurri batean, energia gaien esportazioen jaitsierak ekarri du aldaketa hori, baina horrekin batera, energiaren bestelako produktuak ere hartu behar ditugu kontuan, esportazioen zatirik handiena baitira. Eta horietan, esportazioek ere behera egin dute, nahiz eta energia baino gutxiago jaitsi (BPGren % 34.6 izatetik % 33.6 izatera igaro dira). Gauza bera gertatu da beste lurraldeetan ere, pandemia osteko esportazioen balioen aurreko mailetara itzultzen ari baitira esportazioak bai Espainian, bai Alemanian eta bai EB-27an. Hala ere, EAE-ren egoerak EB-27ko batezbestekoarekiko nabarmen egin du hobera azken urteetan, baita 2023an ere. Ondasunen merkataritza saldoak BPGrekiko hartzen duen ehunekoaren bilakaerak esportazioen kontrako joera izan du 2023an. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoan hobera egin du eta, neurri txikiagoan, baita EB-27n ere. Horrela, ehuneko horiek pandemia aurreko mailetara hurbiltzen ari dira. Horrek erakusten du ondasunen nazioarteko inportazioak esportazioak baino gehiago murriztu direla proportzioan, bai energia gaietan eta bai energiaren bestelakoetan. Energia gaietan, superatibak gora egin du eta energiaren bestelakoetan, defizita murriztu da. Ondasunen eta zerbitzuen merkataritzak ondasunen merkataritzaren antzeko bilakaera izan du.

Ezkatuko txapeldunek berebiziko garrantzia dute euskal lurraldearen sendotze ekonomiko eta sozialean

1-2. LAUKIA Gorabidean doazen nazioarteko merkatu nitxoetako liderrak		
INML enpresak, ingelesezko <i>International Niche Market Leaders</i> (ikus Kamp eta Ruiz de Apodaca, 2023) nazioarteko merkatu nitxoetako liderrak diren enpresak dira eta eskari oso espezializatuari erantzuten diote. Enpresa horiek ezkutuko txapeldun gisa ezagutzen den kontzeptuaren barruan sartzen dira (Simon, 1996; Simon, 2009; Venohr eta Meyer, 2007). Ezkutuko txapeldunak lehiakortasun handiko ekonomien arrakasta ulertzeko gakoetako bat dira. Ekonomia horiek berritzaileak eta irekiak dira, industriak pisu handia du ekonomia egituran eta manufakturako enpresen zati handi bat <i>Business to Business</i> merkatuetan aritzen da.		
Ezkatuko txapeldun horiek berebiziko garrantzia dute euskal lurraldearen sendotze ekonomiko eta sozialean. Alde batetik, kalitatezko enplegua sortzen dute, oso errotuta daude, eta jarduera ekonomikoan lurraldean zehar banatzen laguntzen dute. Beste alde batetik, kanpoko merkatuetako atea irekitzen dituzte, I+G+Bko ahalegin handia egiten dute eta sektore estrategikoetan trakzio lana egiten dute.		
15 000 pertsonari ematen diete lana, eta haien produktibitatea, langile bakoitzeko balio erantsi gordinen neurtua, manufakturako enpresen 75 kuartilaren (Q1 kuartila) gainetik dago.	Nagusiki euskal jabetzako enpresak dira (% 34, familia enpresak eta % 24, kooperatibak) eta modu iraunkorrean lan egiten dute jakintza arloko tokiko eragileekin, besteak beste, zentro teknologikoekin edo lanbide heziketako ikastetxeekin.	Ezkatuko txapeldunen % 75 baino gehiago euskal hiriburuetatik kanpo daude.
Salmenten % 75 esportatzen dute, eta partaidetzapeko 241 enpresa dituzte, Espainiatik kanpoko 39 herrialdetan.	Fakturazioaren % 4 bideratzen dute I+G+Bko jardueretara, antzeko beste enpresen batezbestekoaren bikoitza.	Enpresa horien % 75etik gora euskal ekonomiako sektore giltzari edo bultzatzaileetan aritzen dira, eta lotura ekonomiko estuak dituzte gainerako enpresekin.

Enpresa arrakastaren adibide nabarmenak direnez, ezkutuko txapeldunak tokiko beste enpresa batzuentzat inspirazio iturri izan daitezke nazioarteko merkatuetara ateratzeko eta berrikuntzan inbertitzeko eta, horrela, enpresa ekosistema dinamikoagoa eta erresilientea goa sustatzen dute. Hala ere, ezkutuko txapeldunak identifikatzea konplexua da; izan ere, horien ezaugarri diren faktoreetako asko enpresa barnekoak izaten dira edo ez dago datu homogeneizatu publikorik. Orkestrak lau INML mota identifikatu ditu, ezkutuko txapeldunen berezko ezaugarriak betetzearen arabera:

1. **INML izarrak:** nazioarteko merkatuetan kokapen sendoa duten eta ezkutuko txapeldunen ezaugarri guztiak betetzen dituzten enpresak dira.
2. **INML mehatxatuak:** nazioartean liderrak izanik ere, merkatuko kokapena (bolumena - kuota) eta/edo jardueraren errentagarritasuna arriskuan duten enpresak dira.
3. **INML emergenteak:** nazioarteko merkatu nitxo sendoetan gero eta kokapen hobea duten enpresak dira, bai atzerrian duten salmenta bolumenagatik, bai merkatutzat dituzten herrialdeen eta kontinenteen kopuruagatik, nahiz eta nazioarteko merkatuetan ez duten merkatu kuota nahikorik lortu goragoko kategorietan sartzeko.
4. **INML potentzialak:** hazkunde handiko eta nazioarteko bokazioko produktu izarra duten eta sendotuta ez dauden merkatuetan aritzen diren *start-up* pak edo enpresak dira.



INMLak eta horien arrakastaren atzean dauden estrategiak hurbiletik ezagutzea funtsezkoa da euskal enpresa sarea indartzeko. Behar hori ikusirik, BBK Fundazioak eta Orkestrak Ezkutuko Txapeldunen Behatokia jarri dute abian. Behatoki horren helburuen artean dago INMLen zenbaketa egitea (38 euskal enpresa) eta INML berrien mapaketa bat egitea (oraingoz, INML izan daitezkeen hogeita hamar enpresa baino gehiago identifikatu dira eta aztertzen ari dira), INML Izar bihurtzeko bidean laguntzeko.

Iturria: Geuk egina.

BBK Banku
Fundazioak
eta Orkestrak
Txapeldun
Ezkutuen
Behatokia jarri
dute abian

1.3 Ongizatea

Aurreko atalean aztertu ditugun lehiakortasun ekonomikoaren adierazleek lurraldeak bere jarduera ekonomikoetatik aberastasuna sortzeko duen gaitasuna erakusten digute, baina lurralde baten azken emaitzak bertan bizi diren pertsonentzat sortzeko gai den ongizate mailetan islatzen dira. Atal honetan, ongizatea helburu duen lehiakortasun esparruko ongizatearen zazpi dimentsioetako emaitzak aurkeztuko ditugu (ikus 1-1. irudia), eta, ondoren, inklusioaren egoeran sakonduko dugu, emaitza horietako batzuetan.

1.3.1 Ongizateari lotutako emaitzak

1-2. taulak Euskal Autonomia Erkidegoko azken datuak erakusten dizkigu, ongizateari lotutako 20 adierazletan, 7 multzotan antolatuta. Aurreko atalean bezala, taulan adierazle bakoitzak ikur bat du, bere bilakaera adierazteko, eta EB-27rekin ere alderatzen da. 2. eranskinak adierazle bakoitzaren bilakaera erakusten diguten grafikoak eskaintzen dizkigu, bai Euskal Autonomia Erkidegorako eta bai erreferentziatzko lurraldeetarako.

1-2. TAULA Euskal Autonomia Erkidegoaren errendimendua ongizate emaitzetan

Adierazlea	Urtea	Balioa	Bilakaera (azken urtea)	Kokapen erlatiboa EB-27rekiko	
				Maila	Aldakuntza
ONGIZATEARI LOTUTAKO EMAITZAK					
Bizitzarekiko gogobetetasuna					
Bizitzarekiko gogobetetasuna (0-10)	2023	7.3	←	=	--
Bizitza materiala					
Etxeetako urteko errentaren mediana baliokidea (€)	2022	19 920	←	↑	--
Pobrezia edo bazterketa arriskuan dauden pertsonen proportzioa (AROPE) (%)	2023	15.5	→	↑↑	=
Sarreraren S80/S20 kintilen ratioa	2023	5.0	=	↓↓	=
Etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin duten pertsonak (%)	2023	11.5	←←	↓↓	--
Enplegua					
Langabezia tasa (15-74 urte arteko biztanleriaren %)	2023	7.6	→→	↓↓	++
Lanarekiko gogobetetasun maila (0-10)	2023	7.4	→	d.e.	d.e.
Generoari lotutako soldata arrakala lan egindako ordu bakoitzeko (%)	2022	8.8	←←	d.e.	d.e.
Gizarte bizitza					
Pertsonek duten denborarekiko gogobetetasuna (0-10)	2022	6.9	=	d.e.	d.e.
Pertsonenganako konfiantza (0-10)	2023	6.3	→	↑↑	-
Jabetzaren aurkako delituen indizea (100 000 biztanleko)	2022	895	←←	↑↑	--
Ikaskuntza					
Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailako hezkuntza (25-64 urteko biztanleriaren %)	2023	78.8	→	↓	+
Etengabeko ikaskuntza (25-64 urteko biztanleen %)	2023	18.2	→	↑↑	--
Matematiketako, irakurketako eta zientzietako batez besteko nota PISA txostenean	2021	476	←	=	-
Osasuna					
Hautemandako osasun egoera (osasun ona edo oso ona duten pertsonen %)	2022	73.4	←	↑↑	=
Bizi itxaropena jaiotzean (urteak)	2022	83.5	=	↑	-
Airearen kutsadurak (PM2,5) eragindako heriotza goiztiarrak (100 000 biztanleko)	2021	31.3	←	↑↑	++
Ingurumena					
Berotegi efektuko gasen isuriak (biztanleko CO2 tona baliokideak)	2022	8.4	←←	↓↓	--
Airearen kutsadura (PM2.5 partikulen urteko batez besteko kontzentrazioa, ug/m3)	2022	9.5	←←	↑↑	--
Hiri hondakinen birziklatze tasa (%)	2022	47.4	→	↓	++

Iturria: Geuk egina, 2. eranskinean jasotako grafikoak eta iturriak erabilia.

Bizitzarekiko gogobetetasuna —biztanleriaren ongizate globalaren neurri subjektiboa— pixka bat jaitsi da Euskal Autonomia Erkidegoan 2023an, eta pandemiaren aurreko mailetara itzuli da, 2020ko igoyeraren ondoren. Orain EB-27ko batezbestekoaren oso antzeko mailan dago (eta Alemania eta Espainiaren gainetik).


Bizitza materialaren adierazleetan, Euskal Autonomia Erkidegoa nahiko ongi kokatuta dago, EB-27ko batezbestekoaren gainetik dago lau adierazleetatik bitan. Baina, jarraian ikusiko dugun bezala, adierazle bakoitzaren bilakaerak hasierako irudi hori zehazten du.

Bizitza materialaren maila orokorrari dagokionez, etxeetako errenta baliokidearen mediana aztertuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoak EB-27ren gainetik egoten jarraitzen du (19 920 € EAEn eta 19 089 € EBn). Hala ere, adierazle horrek apur bat okerrera egin zuen 2020 eta 2022 urteen artean. Gainera, joera hori biztanleko BPGren hazkunde sendoarekin batera gertatzeak honakoa iradokitzen digu: (i) hazkunde ekonomikoaren etekinen zati txikiagoa ari da etxeetara iristen; (ii) familien osaera aldatzen ari da; edo (iii) bien konbinazio bat.

Ekonomiak errenta sortzeko duen gaitasunaren eta batez besteko etxe batek jasotzen duen errentaren arteko harreman garrantzitsu horretan sakontzeko, 1-2. grafikoa bi aldagaien bilakaera erakusten digu Euskal Autonomia Erkidegorako, Alemaniako, Espainiako eta EB-27ko batezbestekorako, azken hamarkada honetan. Interesgarria da ikustea lau kasuetan bi aldagaien aldakuntza antzekoa izan zela 2020an pandemia hasi arte; grafikoko bi lerroak elkarrengandik oso gertu zeuden. Baina pandemiak biztanleko BPGren beherakada handia eragin zuen lurralde guztietan, eta, aldi berean, etxeetako errentaren medianak gora egin zuen. Harrezkero, bi lerroen arteko aldea nabaria da. Pentsa daiteke joera desberdin horiek eragileak pandemiaren hasierako shocka eta egoera horretan politketan egin diren doikun-

Bizitzarekiko gogobetetasuna EB-27ko batezbestekoaren oso antzekoa da, baina Alemaniakoa eta Espainiakoa baino handiagoa

1-2. GRAFIKOA Biztanleko BPGren eta etxeetako errenta baliokidearen medianaren aldakuntza (2013-2022)



Iturria: Geuk egina, Eustat eta Eurostateko datuak erabilia.

tzak izan daitezkeela, lehenengo pandemian zehar etxeetako diru sarrerak babes-teko eta, ondoren, ekonomiaren susperraldia sustatzeko hartutakoak. Aldea handia-goia izan da Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainian EB-27ko batezbestekoan eta Alemanian baino. Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetako errentaren medianak 2021ean eta 2022an izan zuen beherakadak adierazten digu aldakuntzen arrakala oraindik ez dela murriztu, beste lurraldeetan gertatu den bezala.

Kintil altuenaren sarrerak kintil txikienarenak halako 5 dira, eta ratio hori oso egonkor mantendu da azken hamarkadan

Bizitza materialaren inguruko beste hiru adierazleek, modu batera edo bestera, lurraldeko emaitza ekonomikoak herritarrengana nola iristen diren islatzen dute. S80/S20 kintilen ratioa desberdintasun ekonomikoaren neurri bat da, errenta handiena duen biztanleriaren %20aren diru sarrerak eta errenta txikiena duen biztanleriaren %20aren diru sarrerak alderatzen dituena. Euskal Autonomia Erkidegoan, kintil altuenaren sarrerak kintil txikienarenak halako 5 dira. Eta ratio hori oso egonkor mantendu da azken hamarkadan. Balio horiek EB-27ko (4.7) eta Alemaniako (4.4) batezbestekoak baino pixka bat gorago daude orain, herrialde horietako balioek behera egin baitute azken 2 urteetan. Era berean, Espainiako ratioaren azpitik dago (5.5), nahiz eta ratio horrek ere beheranzko joera izan. Gainera, 1-3. laukian erakusten den bezala, Orkestrak Kooperatiben Kontseiluarekin elkarlanean egin berri duen azterlan batek erakutsi du desberdintasunaren adierazle hori eta EAEko eskualdeetan koope-ratibek duten presentzia lotuta daudela.

Pobrezia edo bazterketa arriskuan dauden pertsonen proportzioak beheranzko joera du 2023an ere, pandemian gora egin ondoren

Nahiz eta etheen errentaren medianak behera egin eta desberdintasun maila egonkorra izan, positiboa da Euskal Autonomia Erkidegoan pobrezia edo bazterketa arriskuan dauden pertsonen proportzioak beheranzko joera izaten jarraitzea 2023an, pandemian gora egin ondoren. Tasa hori % 15.5ekoa da, eta EB-27ko batezbestekoa (% 21.4), Alemaniakoa (% 21.3) eta Espainiakoa (% 26.5) baino nabarmen baxuagoa da. Hala ere, beren etxebizitzan tenperatura egokia edukitzeko aukerarik ez duten pertsonen proportzioa igo egin zen 2023an eta, hala, Europako batezbestekoaren gainetik gelditu zen, nahiz eta Espainian baino askoz txikiagoa izan.

1-3. LAUKIA Kooperatibek Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeetako ongizateari egiten dioten ekarpena

Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 2023ko uztailaren 17ko A/78/187 bilkuran, aitortzen du ko-operatibek, beren balioak eta printzipioak direla eta, zuzeneko garrantzia dutela garapen jasanga-rrian. Txosten horren arabera, kooperatibek erakutsi dute pertsona guztien garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko gai direla, emakumeak, gazteak, adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak eta herri indigenak barne. Halaber, txostenak ondorioztatzen du gizarte inklusioan eta pobrezia eta gosea desagerrarazten laguntzen dutela eta garapen jasangarria sustatzen dutela, honen di-mentsio guztietan: gizarte garapena, ekonomiaren garapena eta ingurumenaren babesa.

Eustatek 2023ko urtarrilaren 1ean emandako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 55268 pertsona ari dira kooperatibetan lanean, 1848 enpresatan banatuta. Eskualde batzuetan, kooperatibetako enplegua enplegu osoaren % 10 baino gehiago da. Horixe gertatzen da, hain zuzen ere, Debagoienan (% 41.7), Bizkaia Kostan (% 11.8) edo Goierri-Tolosaldean (% 11.2).

Orkestra oraintxe Kooperatiben Kontseiluarekin elkarlanean lantzen ari den proiektuan, kooperatibek gure lurraldeko eskualdeetan duten presentziaren eta pertsonen berdintasu-nari buruzko adierazleen arteko erlazioa egiaztatzen ahalegintzen ari gara. Adierazle hauek erabili ditugu horretarako; pobrezia edo gizarte bazterketa arriskuan dagoen biztanleria, ge-neroaren arabera soldata arrakala, urteko errenta baliokidearen mediana, eta S80/S20 ra-tioa, diru sarrera handienak dituen biztanleriaren % 20aren biztanleko errentaren eta diru sarrera txikienak dituen % 20aren biztanleko errentaren arteko proportzioa neurtzen duena.

Kooperatibek EAEko 55 268 pertsonarentzako enplegua sortzen dute, jabetza kooperatiboko 1 848 enpresaren bidez

Hurrengo taulan, Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeak zerrendatu ditugu, kooperatibetako enpleguaren ehuneko handienetik txikienerako hurrenkeran, bakoitzarentzat ares-tian aipatu ditugun adierazleak zehaztuta. Eskualde bakoitzak berdintasunaren adierazle bakoitzari lotutako kuartilean hartzen duen kokapena koloreekin margotu dugu: berdea, berdintasunaren lehen kuartilerako; horia, bigarren kuartilerako; izokin-kolorea, hirugarren kuartilerako; eta laranja iluna, laugarren kuartilerako. Aipatzekoa da adierazleak kuartiletan antolatzeak ez duela berdintasun adierazlearen kokapen absoluturik erakusten, eskualde guztien arteko kokapen erlatiboak baizik.

Kooperatibetako enpleguaren ehunekoaren eta berdintasun adierazleen arteko erlazioa, eskualdeen arabera

Eskualdea	Pobrezia edo bazterketa arriskuan dauden pertsonak (%)	Soldata arrakala (%)	Urteko errentaren mediana baliokidea (€)	S80/S20 (ratioa)	Kooperatibetako enplegua/enplegu guztia (%)
Debagoiena	11.80	16.0	22 710	3.6	41.7
Bizkaia Kosta	19.66	12.8	21 381	3.3	11.8
Goierrri-Tolosalde	15.68	18.1	20 087	3.8	11.2
Durungaldea	16.52	21.4	17 750	3.3	9.2
Debarrena	22.07	17.8	20 556	3.9	5.4
Donostialdea	17.90	14.6	20 500	4.1	4.7
Aiara	10.61	23.1	22 800	3.6	4.5
Gasteiz	19.78	8.9	19 457	3.9	3.2
Ezkerraldea	20.58	21.7	18 673	3.7	3.1
Bilbo	23.99	10.4	19 646	4.7	3.0
Eskuinaldea	20.75	20.5	22 467	4.8	2.9
Araba hegoaldea	19.78	16.8	18 140	3.5	0.1

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Eustaten Pobrezia eta gizarte desberdintasunei buruzko inkestako (PGDI) datuak erabilita.

Eskualde baten errealitatea konplexua da, eta egungo errealitate sozioekonomikoan eragina izan dezaketen iraganeko eta egungo hainbat egoeraren mende dago; kooperatiben presentzia horietako bat besterik ez da. Hala ere, datuak aztertuta honako errealitate hauek ikus daitezke:

- Kooperatibetako enpleguaren proportziorik handiena duten hiru eskualdeek gainerako eskualdeek baino egoera orekatuagoa dute aztertutako aldagaietan, eta hiru eskualde horiek ez dute adierazlerik laugarren kuartilean. Debagoiena eskualdeari dagokionez (kooperatibetako enplegua enplegu osoaren % 41.7 da), aztertutako aldagaietako bitan lehen kuartilean dago eta beste bi adierazleetan, bigarren kuartilean.
- Eskualdeko kooperatibetako enpleguaren ehunekoak eraginik handiena S80/S20 ratioaren adierazlean du. Kooperatibetako enpleguaren proportziorik handiena duten 5 eskualdeetatik bakarra ere ez dago laugarren kuartilean berdintasun adierazle horretan.
- Gainera, proiektuaren beste analisi batzuen arabera, eskualdeetako kooperatibetako enpleguaren ehunekoaren eta berdintasunarekin lotutako beste aldagai batzuen arteko korrelazioa ere egiaztatu daiteke, horien artean, erregistratutako langabezia indizea edo industria enpleguaren ehunekoa.

Kooperatiben eta berdintasunaren arteko erlazioari buruzko azterketa zehatzagorik ez dagoenez, aurkeztutako ebidentziek iradokitzen digute korrelazioa dagoela kooperatibetako enpleguaren ehunekoaren eta berdintasunaren hainbat adierazleren artean, Nazio Batuen txostenak aipatzen duen bezala. Txosten horrek gobernuak bultzatzen ditu gaur egun indarrean dauden legeak eta araudiak aztertzea, nazioko ingurune juridikoa eta arauemaileak kooperatibak sortzeko eta hazteko egokiagoa izan dadin.

Iturria: Geuk egina.

Kooperatibetako enpleguaren proportziorik handiena duten hiru eskualdeek egoera orekatuagoa dute berdintasun adierazleetan

Lan egindako ordu bakoitzeko soldata arrakala, generoari dagokionez, 2017az geroztik etengabe jaitsi ondoren, handitu egin da azken urtean eta % 8.8 da orain

Enpleguari dagozkion adierazleen bilakaerak hobera egin du lanarekiko gogobetetasunean (10etik 7.4koa da) eta langabezia tasan (% 7.6). Tasa hori EB-27ko batezbestekoaren gainera badago ere (% 6.1), aldea murrizten ari da urtez urte. Bestalde, generoari dagokion lan egindako ordu bakoitzeko soldata arrakalak 2017az geroztik beheranzko joera izan badu ere, 2023an gora egin du eta % 8.8 izan da, aurreko urtean % 7.3 bazen ere. Igoera horren arrazoia da lan egindako ordu bakoitzeko soldata gehiago hazi zela gizonen kasuan emakumeen kasuan baino. 3. kapituluaren itzuliko gara gai horretara.

Gizarte bizitzaren adierazleetan, era guztietako emaitzak ditugu. Pertsonen libre duten denborarekiko duten gogobetetasuna egonkorra da (10etik 6.9), azken hamarkadako igoeren ondoren. Hala ere, ez dago duela gutxiko konparaziorik beste lurralde batzuekin. Pertsonenganako konfiantza 2022an 10etik 6.1 izatetik 2023an 6.3 izatera igaro da, eta, horrela, pandemian izandako jaitsieraren zati bat berreskuratu da. Jabetzaren kontrako delituak, 100 000 biztanleko neurtuta, 895ra iritsi ziren 2022an Euskal Autonomia Erkidegoan, aurreko urtean baino %31 gehiago. Hala ere, delituen maila EB-27ko batezbestekoa baino nabarmen txikiagoa da eta Espainiakoaren apur bat gainera dago.

EAEk lidergoari eusten dio etengabeko ikaskuntzan, baina PISAren emaitzek Europako batezbestekoak baino beherakada handiagoa izan dute matematika, irakurketa eta zientzietako batezbesteko notan

Hiru adierazle erabili ditugu ongizatearen barruan **ikaskuntza**ren dimentsioaren emaitzak neurtzeko. Ikaskuntza garrantzi handikoa da, ikasteko beharra gizakiaren funtsezko ezaugarrietako bat delako. Alde batetik, goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailako hezkuntza duen 25-64 urteko biztanleriaren proportzioak goranzko bideari eusten dio Euskal Autonomia Erkidegoan, eta % 78.8 izanik, ia Europako batezbestekora iritsi da (% 79.8). Bestalde, 25-64 urte arteko biztanleriaren % 18.2k hartu zuen parte prestakuntza edo ikaskuntza jardueretan. Ehuneko horiekin, Euskal Autonomia Erkidegoak lidergoari eusten dio etengabeko ikaskuntzan, eta Europako batezbestekoaren oso gainera dago (% 12.8). Azkenik, aurreko Lehiakortasunari buruzko Txostenetik argitaratu diren Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programaren (PISA) emaitza berriek matematikako, irakurketako eta zientziako batezbesteko notaren beherakada kezkarria erakusten dute, eta, gainera, EB-27ko batezbestekoan gertatutako beherakada baino handiagoa da.

Osasunak, ongizatearen beste dimentsio batek, Euskal Autonomia Erkidegoan emaitza onak izan ditu betidanik. Nahiz eta osasun egoera ona edo oso ona duela uste duen biztanleriaren proportzioak beherakada izan (% 74.8tik % 73.4ra) eta airearen kutsadurak eragindako heriotza goiztiarrak pixka bat gora egin (100.000 biztanleko 30.9tik 31.3ra), Euskal Autonomia Erkidegoak lidergoan jarraitzen du EB-27ko batezbestekoarekiko (eta Alemaniarekiko) bi adierazle horietan eta bizi itxaropenean (83.5 urte).

Berotegi efektuko gasen isuriak % 5 handitu ziren 2022an eta EB-27ko batezbestekoarekiko aldea negatiboa da orain, European gas isuriak % 1.3 jaitsi baitira

Ongizatearen emaitzen azken adierazleak **ingurumenaren** arlokoak dira; pertsonen osasunean eta bizi kalitatean duen eraginagatik hartzen da kontuan, bai gaur egun, bai hurrengo belaunaldietarako. Berotegi efektuko gasen eta airearen kutsatzaileen isuriek gora egin zuten 2022an. Igoera horren zati bat energia berriztagarrien ekoizpenaren jaitsierak (ikus, aurrerago, kapital naturalaren palankaren analisia) eta gasaren eskariaren igoerak eragin dute. Berotegi efektuko gasei dagokienez, % 5eko hazkundeak alde negatiboa ekarri du EB-27ko batezbestekoarekiko, batezbesteko horrek % 1.3 egin baitzuen behera. Horregatik, klima aldaketari aurre egiteko beharrezkoak izango liratekeen murrizketa mailetatik are urrunago gaude orain. Hala ere, 2022an hiri hondakinen birziklatze tasa % 47.4 igo da, eta, hala, ia desagertu da Euskal Autonomia Erkidegoaren eta EB-27ko batezbestekoaren arteko aldea, nahiz eta oraindik Alemaniarekiko oso urrun egon (% 69.1).

1.3.2. *Inklusioa ongizatearen emaitzetan*


Atal honetan aztertuko dugu zein neurritan iristen diren aztertu ditugun ongizatearen dimentsioetako emaitzak hainbat diru sarrera eta hezkuntza mailatarako pertsonengana. Talde bakoitzeko batez besteko balioak alderatzean desberdintasunik handiena erakusten duten adierazleetan jarriko dugu arreta. Ondoren, 3. kapituluan, xehetasun handiagoz aztertuko dugu inklusioa, adinaren, generoaren eta jatorriaren arabera.⁶

Bizitza materialari dagokionez, aurreko atalean ikusi dugu Euskal Autonomia Erkidegoan pobrezia edo bazterketa arriskuan dauden pertsonen proportzioa % 15.5 dela, EB-27ko batezbestekoa baino nabarmen txikiagoa. Gainera, pandemian ehuneko horrek gora egin bazuen ere, azken urteetan beherazko joera ikusten da. Bestalde, Eustaten Pobrezia eta gizarte beharrei buruzko inkestak erakusten digu 2022an EAEko biztanleriaren % 16.5ek diru sarrera txikiak zituela eta pobrezia erlatiboko egoeran zegoela. Mantentze pobrezia (edo diru sarreretako pobrezia) arriskuan zegoen kolektiboa⁷ % 4.9 izan zen, eta ehuneko horrek ere behera egin du 2020az geroztik. Kopuru horiek ikusirik, esan dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoan bizitza materialari lotutako inklusio maila orokorrean positiboa dela eta goranzko joera duela.

Bizitza materialari lotutako inklusio maila positiboa da eta goranzko joera du

Hala ere, argazki orokor horri hainbat ñabardura egin behar zaizkio. Alde batetik, eta, agian, azken urteetako inflazio maila handiarekin lotuta, diru sarreren gabeziaren eta mantentze pobrezia inguruko adierazleen bilakaerak —«Gaur egun ez ditu oinarritzko gastuak estaltzen (% 3.2), «Ez-ordaintzeak edo atzerapenak (alokairuak, kredituak, hipotekak, ordainagiriak, etab.)» eta «Bizirautearekin lotutako beste arazo batzuk-Hotza etxean azken neguan»— okerrera egin du 2022an, 2020arekin alderatuta. Beste alde batetik, hilaren bukaerara iristeko zailtasunak dituztela adierazten duten EAEko etxeen ehunekoak, diru sarreren mailaren arabera banatzen badugu, desber-

1-3. GRAFIKOA Hilaren amaierara iristeko zailtasunak dituzten etxeen bilakaera (etxe guztien %, 2013, 2018 eta 2023) eta diru sarreren kintilaren arabera (kintil bakoitzeko etxeen %, 2023)



Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osaginen Osasun inkesta erabilita.

⁶ Atal honetan generoaren arabera inklusioa berariaz aztertzen ez badugu ere, 3. eranskinean ikus dezakegu generoaren arabera desagregazioa adierazleetako batzuetan.

⁷ Adierazle horrek epe laburrean oinarritzko beharren (batik bat elikadura, etxebizitza, arropa eta oinetakoekin zerikusia dutenek) gastuei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez edukitzea esan nahi du. Pobrezia larriko arriskuan daude, erreferentziarako aldi batean, oinarritzko beharrei aurre egiteko zehaztutako atalaseak baino diru sarrera txikiagoak dituzten etxeak, etxean bizi diren kopuruaren eta etxeko erreferentziarako pertsonaren adinaren arabera.

dintasun handiak erakusten ditu oinarrizko bizitza maila bermatuta edukitzeko gaitasunari dagokionez (ikus 1-3. grafikoa). 2023ko ehuneko orokorra (% 11.8) aurreko bi inkestetakoaren antzekoa bada ere (2013 eta 2018), aldeak nabariak dira diru sarreren mailaren arabera. Diru sarreren kintilik txikienean dauden etxeen % 29.4k zailtasunak ditu hilaren amaierara iristeko. Diru sarrera gehien dituzten etxeetan, ordea, ehuneko hori askoz ere txikiagoa da, % 3.8.

Etxebizitza eskuragarriaren eskaintzarik ez egotea funtsezko oztopoa da 18 eta 44 urte arteko gazteen ongizaterako

Inklusioari begira, bizitza materialari lotutako beste dimentsio garrantzitsu bat etxebizitza eskuratzeko aukera da. Datuek erakusten dute 2023an Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza eskuragarrien eskaintzarik ez egotea funtsezko oztopoa dela ikasketa maila eta jarduera ekonomikoarekiko egoera askotariko pertsonentzat (ikus 1-3. taula). Etxebizitza merkatuari lotutako inklusiorik eza agerikoa da ikusten badugu lehen etxebizitza eskuratu nahi duten 18 eta 44 urte arteko pertsonen % 73.7k diru sarrera edo errenta propioen bat duela (izan eskasa/ezegonkorra, izan nahikoa). Hori, neurri batean, pertsona horien lan egoerarekin lotuta dago, baina azpimarratu behar da lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru sarrera nahikoak ez dituzten pertsonen ia erdiak (% 48.1) lanpostu finko bat duela. Era berean, etxebizitza premia duten pertsonen artean unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen ehuneko handia dagoela ere ikusten da.


1-3. TAULA Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen banaketa, ikasketa mailaren eta jarduera ekonomikoarekiko harremanaren arabera (2023)

	Guztira	Ikasketa maila				Jarduerarekiko harremana				
		Ikasketarik gabe/Lehen mailako ikasketak	Lanbide ikasketak	Bigarren mailako ikasketak	Unibertsitateko ikasketak	Soldatarik gabe	Landun finkoa	Aldi baterako landuna	Langabea	Beste egoeraren bat
Diru sarrerarik gabe	26.3	13.8	25.2	32.5	28.5	0	0	0	43.4	56.6
Diru sarrera eskasak / ezegonkorrak	59.0	11.9	31.4	12.7	44	4.4	48.1	41.6	3.3	2.6
Diru sarrera nahikoak	14.7	4.8	30.6	14.1	50.5	14.3	66.8	18.8	0	0

Iturria: Geuk egina, Eustaten Etxebizitza beharrei eta ezaugarriei buruzko inkesta erabilita.

Lanarekiko gogobetetasun eza handiagoa da diru sarrera txikiagoak dituzten langileen artean


Enplegua ongizatearen beste dimentsio bat da, eta, kasu honetan, diru sarreren eta ikasketen mailaren arabera bereizitako datuak ditugu eskuragarri, inklusioaren hainbat alderdi aztertu ahal izateko. 1-4. grafikoa ikus daitekeen bezala, lotura argia dago diru sarreren mailaren eta laneko gogobetetasun ezaren artean, gogobetetasun eza maizago sentitzen baita diru sarrerek behera egin ahala. Diru sarreren muturreko taldeen arteko gogobetetasun ezaren aldea portzentajezko 9 puntukoa izan da 2023an. Bestalde, ez dago lotura argirik lanarekiko gogobetetasun ezaren eta ikasketa mailaren artean. Goi mailako bigarren hezkuntzako ikasketak dituzte pertsonak dute lanarekiko gogobetetasunik txikiena.

1-4. GRAFIKOA Lanarekiko gogogabetasun eza, diru sarrera mailaren eta ikasketa mailaren arabera (taldearen %, 2023)

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osaginen Osasun inkesta erabilita.

Azkenik, **osasunaren** ongizate dimentsioari dagokionez, 1-5. grafikoak erakusten digu norberak bere osasun egoerarekiko duen hautematearen batez besteko balioek normalean gora egiten dutela diru sarrerak handitu ahala. Hain zuzen ere, portzenta-jezko bost puntuko aldea dago tarte altuenaren eta txikienaren artean. Antsietate eta depresio sintomek, osasun mentalaren neurrietako batek, alderantzizko harremana dute diru sarreraren mailarekin, eta hori bat dator osasunari buruzko bizi kalitatearen emaitzekin. Ondorioz, inklusioa, osasun emaitzei dagokionez, diru sarrerek baldintzatzen dute, eta diru sarreraren banaketan erdiko edo beheko tarteetan dauden pertsonen hautematen dute osasun kaskarragoa. Gauza bera gertatzen da ikasketa mailarekin ere. Izan ere, ikasketa maila txikieneko pertsonen (lehen mailako ikasketak eta behe mailako bigarren hezkuntzakoak dituztenek) osasun mental okerragoa dute eta, osasunari dagokionez, beren bizitza kalitatea apala dela uste dute.

Inklusioa, osasun emaitzei dagokionez, diru sarrerek baldintzatzen dute, eta diru sarrera ertain-txikiak dituzten pertsonen osasun kaskarragoa hautematen dute

1-5. GRAFIKOA Norberak bere osasunarekiko duen hautematea, diru sarrera mailaren eta ikasketa mailaren arabera (taldearen %, 2023)

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osaginen Osasun inkesta erabilita.

1.4 Lehiakortasunerako eta ongizaterako palanka dinamikoak

Euskal Autonomia Erkidegoko lehiakortasunari eta ongizateari buruzko emaitzarik berrienak aztertu ondoren, hau da, 1.1. irudian erakusten dugun esparruaren barneal-

deko adierazleak aztertu ondoren, atal honetan sei palanka dinamikoetako bakoitzeko funtsezko adierazleak aztertuko ditugu (esparruaren eskuineko aldea), jakinik eragileen eta gobernuen politikek eta estrategiek palanka horietan eragin dezaketela. Adierazleen datuak 1-4. taulan aurkeztu ditugu eta bilakaeraren grafikoak, berriz, 4. eranskinean.

1-4. TAULA Euskal Autonomia Erkidegoaren errendimendua lehiakortasunerako palanketan

Adierazlea	Urtea	Balioa	Bilakaera (azken urtea)	Kokapen erlatiboa EB-27rekiko	
				Maila	Aldakuntza
PALANKAK					
Kapital naturala					
Energia intentsitatea (petrolio tona baliokideak/M€)	2022	85.8	→	↑↑	--
Energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumo gordinen (%)	2022	18.2	←←	↓↓	--
Ingurumeneko zergekin bildutako dirua (BPGren %)	2021	1.75	→	↓↓	++
Ingurumen ondasunen eta zerbitzuen sektoreko enplegua (enplegu guztiaren %)	2021	2.06	→	↑↑	--
Ingurumen ondasunen eta zerbitzuen sektoreko balio erantsi gordina (BEG guztiaren %)	2021	1.95	←	↑↑	--
Kapital fisikoa					
Kapitalaren eraketa gordina (BPGren %)	2023	24.3	←	↑↑	--
Kapital fisikoaren stocka (BPG zenbat aldiz)	2023	3.2	←	↑↑	--
Kapitalaren eraketa gordina ekipo ondasunetan (guztizko kapitalaren eraketa gordinaren %)	2023	40.1	→	↑↑	+
Finantzaketa					
Ondare garbia aktiboarekiko (mediana, %)	2023	49.0	→	d.e.	d.e.
Atzerriko zuzeneko inbertsioaren (AZI) sarreraren stocka (BPGren %)	2022	26.6	←←	↓↓	--
Atzerriko zuzeneko inbertsioaren (AZI) irteeraren stocka (BPGren %)	2022	95.1	→→	↑↑	++
Jakintza					
I+Gko gastua guztira (BPGren %)	2022	2.08	←	↓↓	--
EPO patente zientifikoak milioi bat biztanleko (hiru urteko batezbestekoa)	2022	49.6	←←	↓↓	++
WOS argitalpen zientifikoak milioi bat biztanleko (hiru urteko batezbestekoa)	2022	3 814	←	↑↑	=
EPO patenteen ehunekoa ingurumen teknologietan (patente guztien %)	2021	18.7	→	↑↑	++
Giza kapitala					
Medikuak (100 000 biztanleko)	2021	560	=	↑↑	-
Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailako hezkuntza duen 25-34 urte arteko biztanleria (ISCED 3-8) (%)	2023	87.7	→	↑	++
Hirugarren mailako hezkuntza duen 25-34 urte arteko biztanleria (ISCED 5-8) (%)	2023	67.6	→→	↑↑	+
Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)	2023	69.9	→	=	+
IKTetako gaitasunak dituzten enplegatuen ehunekoa (%)	2023	5.3	→	↑↑	=
IKTetako gradudunen ehunekoa (%)	2022	4.8	→→	↑↑	-
Gizarte kapitala					
Gobernuaren kalitatearen indizea	2024	0.05	←←	↑↑	d.e.
I+Gn lankidetzan aritzen diren enpresa txiki eta ertainak (CORE establezimenduen %)	2022	23.4	→	↑↑	++
Industriarekin lankidetzan egindako argitalpenak (hiru urteko batezbestekoa) (argitalpenen %)	2022	2.44	→	↓↓	++

Iturria: Geuk egina, 4. eranskinean jasotako grafikoak eta iturriak erabilita.

Lehen palanka **kapital naturala** da. Kapital hori garrantzitsua da lurralde baten eta bertako enpresen lehiakortasuna hobetu daitekeelako materialak, energia eta beste baliabide batzuk efizientzia eta produktibitate handiagoz erabiliz, ingurumeneko arrasto txikiagoa utziz eta berrikuntza produktu eta zerbitzu berdeagoetara eta naturan oinarritutako konponbideetara bideratuz.⁸ Palanka honen barruan energiarekin, ingurumen fiskalitatearekin eta ingurumen ondasun eta zerbitzuen sektorearen pisuarekin lotutako adierazleak hartuko ditugu kontuan.

Energia adierazleak erakusten dutenez, Euskal Autonomia Erkidegoak energia intentsitatea hobetzen jarraitzen du (energiaren barne kontsumo gordinaren eta BPGren arteko zatidura). Adierazle horretan, abantaila du EB-27ko batezbestekoarekiko (baita Alemaniarekiko eta Espainiarekiko ere), nahiz eta Alemaniarekiko aldea urtetik urtera pixkanaka murrizten ari den. Bestalde, energia berriztagarriek energiaren azken kontsumo gordinen hartzen duten ehunekoak behera egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoan, 2021eko % 20.1etik 2022ko % 18.2ra. Beste lurraldeetan, ordea, kuota horrek gora egiten jarraitzen du. Jaitsiera hori urteren batean gertatzea nahiko ohikoa da, energia berriztagarrien ekoizpena eta energia kontsumoa aldakorrak baitira.⁹ Hala ere, nabarmenezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoa EB-27ko batezbestekoaren atzetik dagoela adierazle horretan, eta aldea ez dela murriztu azken hamarkadan (ikus 4. eranskina). Gainera, energia trantsizioa egiteko moduak eragina du aurreko atalean aztertu ditugun ongizatearen emaitzekin lotutako inklusio elementuetan (ikus 1-4. laukia).

Bestalde, ingurumen zergetatik bildutako dirua, BPGrekiko, handitu egin zen Euskal Autonomia Erkidegoan 2021ean, 2020ko jaitsieraren ondoren. Hain zuzen ere, % 1.75ekoa da, Alemaniakoaren eta Espainiakokoen oso antzekoa. Baina EB-27ko batezbestekoaren (% 2.24) azpitik dago oraindik ere, nabarmen.

Azkenik, ingurumen ondasun eta zerbitzuen sektoreak ekonomian duen pisua aztertuz gero, adierazleak EB-27rekiko kokapen ona erakusten dute,¹⁰ baina azken urteetan hazkundea gelditu egin da, 2019ra arte izandako bilakaera onaren ondoren. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Klusterraren Erakunde Dinamizatzaileak, Aclimak, 124 erakunde bazkide ditu (94 enpresa pribatu, 18 erakunde publiko, 6 zentro teknologiko, 4 unibertsitate eta 2 nazioarteko elkarte). Guztira 7.856 profesionali ematen diete enplegua eta 2021ean 2.101 milioi euro fakturatu zituzten. Kopuru horrekin, EAEko ingurumen sektorea lurraldeko BPGren % 5 inguru da.¹¹

EAEk bere energia intentsitatea hobetzen jarraitzen du, baina energia berriztagarrien kuotan EB-27ko batezbestekoaren atzetik dago

⁸ Lehiakortasunari buruzko 2023ko Txostenak Euskal Autonomia Erkidegoko lehiakortasunaren eta ingurumen jasagarritasunaren arteko harremanaren azterketa zehatza eskaini zuen (Orkestra, 2023).

⁹ Hain zuzen ere, 2022an % 4 egin zuen behera Espainiako energia berriztagarrien ekoizpenak, Red Eléctricak emandako datuen arabera, nagusiki ekoizpen hidraulikoaren jaitsieragatik, nahiz eta energia eolikoan eta eguzki energia fotovoltaiakoan ekoizpena inoiz baino handiagoa izan. Horren ondorioz, eta nahiz eta energiaren azken kontsumoak pixka bat behera egin, Euskal Autonomia Erkidegoan bi aldagai horien ratioak okerrera egin zuen, energia kontsumoaren eta, bereziki, elektrizitatearen zati garrantzitsu bat Espainiako beste erkidego batzuetatik datorrelako (ikus <https://www.sistemaelectricoree.es/2022/informe-del-sistema-electrico/generacion/generacion-de-energia-electrica/generacion-renovable-de-energia-electrica>).

¹⁰ Garrantzitsua da aipatzea datu horiek ez direla guztiz konparagarriak, Euskal Autonomia Erkidegoan beste elementu batzuk ere hartzen baitira kontuan, eta nahitaezkoak ez direnez, ez daude sartuta EB-27ko, Alemaniako eta Espainiako datuetan.

¹¹ Aclima (2024). Helbide honetatik hartua: <https://aclima.eus/somos/>. Bazkideak, oro har tamaina txikiak, zeharkako sei balio kate handiren inguruan antolatuta daude, eta gainerako ekonomia jarduerekin erlazionatzen dira: (i) hondakinak (minimizatzea, berrerabiltzea, birziklatzea, kudeatzea eta baliaraztea); (ii) lurzoru kutsatuak (ikerketa eta berreskuratzea); (iii) uraren ziklo integrala; (iv) airea eta klima aldaketa; (v) ekosistemak eta (vi) ekoizpen koefizienteak eta ekodiseinua.

Energia trantsizio
jasangarriak
gizarte eraldaketa
garrantzitsuak
eskatzen ditu,
horien artean,
kontsumitzaileen
ahalduntzea

Komunitateak
parte hartuta
garatzen
diren energia
berriztagarrien
proiektuek
enplegua sortuko
dute, energiaren
eskuragarritasuna
erraztuko dute,
gizarte kohesioa
bultzatuko
dute, eta
desberdintasuna
murrizten
lagunduko dute

1-4. LAUKIA Energia trantsizio bidezkoa

Ingurumen jasangarritasunera iristeko beharrezkoa den energia trantsizioa aldaketa teknologikoa eta baliabideak eskura edukitzea baino gehiago da. Gizarte eta portaera eraldaketa garrantzitsuak ere eskatzen ditu, sistemako eragile guztien aldetik, bereziki, kontsumitzaileen aldetik.

Trantsizioak kontsumitzaileen ahalduntzea eta rol aktiboa hartzea bultzatu behar du, kontsumitzaile pasiboaren rol tradizionalaren aurrean. Trantsizioak etxeen eskura autokontsumoko soluzioak eta energia komunitateak jarriko ditu, baita zerbitzu malguak ere, ibilgailu elektrikoek karga adimenduna eta eskarira egokitua ziurtatuz, kontagailu eta etxetresna elektriko adimendunez baliatuta. Energia komunitateek, bestalde, gizarte ekitatea eta energia justizia sustatzen laguntzen dute, komunitatearentzako onurak maximizatzen baitira eta herritarren parte hartzea areagotu, talde baztertuak edo kalteberak ere aitortuta (Caramizaru eta Uihlein, 2020).

Espainiari dagokionez, EAEn garatu dira gehien energia komunitateak. Estatu osoko komunitateen % 31 gure lurraldekoa da (2023an aktibo zeuden 368 komunitateetatik 118). Gainera, energia komunitate aktibo gehien dituzten hurrengo hiru erkidego autonomietan halako hiru baino gehiago daude gurean (Katalunia, 43; Valentziako Erkidegoa, 40; eta Nafarroa, 36) (Valero *et al.*, 2021).

Hala ere, kolektibo guztiek ezin dute parte hartu energia trantsizioak eta berriztagarriek eskaintzen dituzten abantailatan. Beharrezkoa da teknologia eta gizarte berrikuntzei buruzko jakiteak edukitzea, trebetasunak garatzeko gaikuntza izatea, erabakiak hartzen parte hartzea, eta eskura dauden baliabideak kontrolatzea. Izan ere, baliabideetarako sarbide horrek trantsiziotik kanpo geratzea ekar dezake, bereziki pobrezia energetikoko egoeran dauden kolektiboentzat (DellaValle eta Czako, 2022).

Pobrezia energetikoa baldintzatzen duten faktoreetako bat energiaren prezio altuak dira¹². Energia berriztagarrien iturriak hedatzeak handizkako merkatuan elektrizitatearen prezioak jaistea ekarriko duela espero da, eta horrek lagundu lezake pobrezia energetikoa arintzen, elektrizitatea sortzeko kostu txikiagoak azken kontsumitzailearengana eramaten badira. Hala ere, murrizketa ez dago bermatuta, elektrizitatearen faktura ez baita soilik sorkuntza kostuen araberakoa.


Era berean, etxeetako energia efizientzia hobetzea ere espero da, berokuntza (bero ponpak) eta garraioa (ibilgailu elektrikoak) elektrifikatzeari esker, baita pertsonen portaeraren aldaketari esker ere (ibilgailuen erabilera partekatua). Zhao *et al.*-ek (2022) ondorioztatu dute Europar energia berriztagarrien kontsumoa handitzeak eta energia efizientzia hobetzeak pobrezia energetikoa gutxitzea ekarriko dutela.

Berriztagarrien bidezko deskarbonizazioak inbertsio berriak eskatzen ditu sorkuntza teknologietan, sare elektriko adimendunetan eta beste hainbat elementutan eta, horretarako, finantzaketaz gainera, hainbat arlotako profesionalak behar dira, besteak beste, digitalizazioak, ekipamenduen fabrikazioak, instalazioetakoak... Jarduera horien soldata maila, gainera, nahiko handia da.

Inbertsio horri esker, berotegi efektuko gasen eta partikula kutsatzaileen isuriak murriztuko dira, eta, horrek klima aldaketa arintzen eta airearen kalitatea hobetzen lagunduko du. Bide horretatik, airearen kutsadurak eragindako heriotza goiztiarrak jaitsiko dira, baita kutsadura horrekin lotutako gaixotasunen osasun kostuak ere. Zenbatespenen arabera, isuriak murrizteak Europar Batasunean 58.000 heriotza goiztiar saihestuko ditu eta guztira 40.000 eta 140.000 milioi euroko aurrezkiak sortuko ditu airearen kalitate txarrak eragindako osasun kostuetan (European Council, 2020; Monitor Deloitte *et al.*, 2021).

Gainera, komunitateak parte hartuta garatzen diren energia berriztagarrien proiektuek enplegua sortu eta tokiko garapen ekonomikoa sustatuko dute, energiaren eskuragarritasuna erraztuko dute, lurralde eta gizarte kohesioa bultzatuko dute, eta eskualdeen eta lurralde historikoen erakargarritasuna handituko dute. Horrek guztiak lurraldeko desberdintasuna murrizten lagunduko du.

Energia trantsizio bidezkoa ongizate inklusiboa lortzeko



Oharra: 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Energia Trantsizioari eta Klima Aldaketari buruzkoa.

Iturria: Geuk egina.

Kapital fisikoaren palankan, kapitalaren eraketa gordinaren eta kapitalaren stockaren adierazleak landuko ditugu. Bi aldagai horietan, Euskal Autonomia Erkidegoak kokapen ona du EB-27rekiko eta Alemaniarekiko. Hala ere, bai kapitalaren eraketa gordinak (BPGrekiko neurtuta) eta bai kapital fisikoaren stockak behera egin zuten 2023an. Zehazki, kapital fisikoaren stocka EB-27n eta Alemanian baino gehiago jaitsi zen; azken herrialde horretan, gainera, gora egin zuen. Kapitalaren eraketa gordinaren barruan, gora egin zuen ekipo ondasunetara bideratutako proportzioak. Urte horretan % 40.1 izan zen eta, horrela, beste lurralde batzuekiko aldea handitu zen (Alemanian, % 30.6 izan zen eta EB-27n, % 29.5).

Finantzaketaren palankari dagokionez, azpimarratzekoa da ondare garbiaren adierazlearen bilakaera positiboa. Egiturazko adierazle horrek bazkideek enpresetan inbertituta dituzten funtsak neurtzen ditu eta hobera egin du, % 49ra iritsi arte. Bestalde, ekonomiak kanpoan duen inbertsio posizioari eutsi zaio. Atzerriko zuzeneko inbertsioaren (AZI) irteerako stocka (BPGren % 95) Espainiako edo Alemaniako ekonomietakoa baino handiagoa da, eta euskal enpresen nazioartekotze maila handiarekin lotuta dago. Atzerriko zuzeneko inbertsioaren sarrerako stockak, ordea, behera egin zuen azken urtean, beste lurralde batzuetan ez bezala. Gainera, stock hori txikia izatea egiturazko ezauga-

EAEra sartzen den atzerriko zuzeneko inbertsioa euskal enpresek atzerrian egiten duten zuzeneko inbertsioa baino txikiagoa da beti

¹² Ikus: https://energy.ec.europa.eu/topics/markets-and-consumers/energy-consumer-rights/energy-poverty_en

rria da gurean. Datu horiek Kamp *et al*-en (2024) ondorioak berresten dituzte. Lan horretan egiaztatzen da gure lurraldera sartzen den AZIa euskal enpresek atzerrian egiten duten AZIa baino txikiagoa izan dela beti. Gainera, sartzen den inbertsioaren zatirik handiena dagoeneko abian dauden enpresa proiektuak eskuratzera bideratzen da.

Enpresa talderen bateko parte diren EAEko 11 265 enpresetatik, % 76k bertako enpresa nagusia du

1-5. LAUKIA Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa taldeak: begirada dinamikoa

Enpresa taldeen bilakaerak ekonomia baten sozietate egitura islatzen du, baita kanpoan egiten dituen kapitaleko inbertsioen fluxuak (irteten den AZI) eta kanpotik jasotzen dituenak ere (sartzen den AZI). Orkestrak eta *Deusto Business Schoolek*, Finantzen Euskal Institutuaren babesarekin, egin duten ikerketak Euskal Autonomia Erkidegoan 11 265 enpresa (aztertutako 24 618 enpresetatik) enpresa talderen baten barruan daudela identifikatu du. Guztira 4 230 enpresa talde daude, 2023an baino % 3.4 gehiago (Garmendia-Lazcano *et al.*, 2023). Identifikatutako enpresa taldeen artean, atzerriko taldeen presentzia gutxiengoa da: enpresa taldeen % 75k du bertako enpresa nagusia; % 13k, Espainiako beste autonomia erkidego bateko enpresa nagusia; eta % 11k, atzerriko enpresa nagusia.

Garmendia-Lazcano *et al.*-en (2023) lanaren gainean egindako analisi dinamiko berritzaileak erakusten du pixka bat gora egin duela atzerriko enpresa taldeetako kide diren enpresen kopuruak. Eta horrek ekonomiaren osaeran egiturazko aldaketa bat gertatzen ari dela adieraz dezake:

Talderen bateko kide diren euskal enpresak	2023		2024	
EAEko enpresa nagusia	8 371	% 77	8 591	% 76
Espainiako beste erkidego bateko enpresa nagusia	1 385	% 13	1 466	% 13
Atzerriko enpresa nagusia	1 142	% 10	1 208	% 11
	10 898	% 100	11 265	% 100

Enpresa taldeen osaeran beste joera batzuk ere ikusten dira:

- **Akziodunen tipologiaren bilakaera:** Euskal enpresetako akziodunen artean gora egin du enpresen presentziak (portzentajeazko +0.5 puntu) eta arrisku kapitalarenak (portzentajeazko +0.1 puntu); akziodun pribatuen parte hartzeak, berriz, portzentajeazko 0.6 puntu egin du behera. Azken akziodun horiek dira euskal enpresetan nagusi, kapitalaren % 66.4 baitute. Akziodunen tipologia guztiek erabateko kontrola eskuratzeko bilatzen dute, arrisku kapitalak izan ezik, kontrol minoritarioa aukeratzen baitu (% 50etik beherakoa).
- **Sektore dibertsifikazioa eta nazioartekotzea:** Azpimarratzekoa da EAEko enpresa taldeek gaitasun handia dutela beren jarduerak dibertsifikatzeko eta eskualdeaz bestelako lurraldeetara zabaltzeko. EAEko eskumendekoen % 48 ez da enpresa nagusiaren jardueraren sektore berean aritzen. Egoera hori bereziki nabarmena da industria sektorean: industria sektoreaz bestelako jardueretara dibertsifikatzen da, bereziki, zerbitzuekin lotutako jardueretara (industria sektoreko enpresa nagusiek 217 eskumendeko dituzte zerbitzu jardueretan). Gainera, enpresa nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan duten taldeen % 26.2k eskumendekoren bat du atzerrian.
- **Beste lurralde batzuekin lotutako eskualdea:** EAEko enpresa taldeek atzerrian duten presentzia atzerriko enpresa taldeek EAEn duten presentzia baino handiagoa da (diferentzia oso aldekoa da Amerikarekin eta Asia-Ozeaniarekin). Euskal enpresa taldeak zein herrialdeetan dauden aztertuz gero, 200 nagusiak hartuta, ikusiko dugu enpresa taldeak Europara hedatzen direla (456 talde eta 774 eskumendeko), Ipar Amerikara (251 talde eta 826 eskumendeko), Hego Amerikara (182 talde eta 372 eskumendeko) eta Asia-Ozeaniara (111 talde eta 224 eskumendeko). Aitzitik, EAEn iritsi diren atzerriko enpresa taldeen presentzia aztertzean, Europako taldeen nagusitasuna nabari da (428 talde eta 830 eskumendeko), Ipar Amerikako taldeen presentzia askoz ere txikiagoa (116 talde eta 249 eskumendeko) eta Asia-Ozeaniako taldeen hutsaren hurrengo garrantzia (21 talde eta 34 eskumendeko).

Iturria: Geuk egina, Garmendia-Lazcano *et al.* (2023) eta SABI-Informa erabilita.

EAEko enpresa taldeek atzerrian duten presentzia atzerriko enpresa taldeek EAEn duten presentzia baino handiagoa da

Jakintzaren palankaren adierazleek, aurreko urteetan bezala, argi-ilunak dituzte. Alde batetik, 2021ean baliorik handiena lortu ondoren (% 2.11), 2022an pixka bat jaitzi zen I+Gko gastua, BPGren ehunekoan (% 2.8). Izan ere, I+Gko gastuak nabarmen egin zuen gora, baina BPG are gehiago igo zen. Balio hori EB-27ko batezbestekoaren (% 2.24) azpitik dago, eta gure erreferentziazko eskualdeetakoa baino askoz ere txikiagoa da (Austria Garaia, % 3.51 eta Baden-Wurtemberg, % 5.59).

Euskal Autonomia Erkidegoan, milioi bat biztanleko patenteen mailak EB-27ren azpitik jarraitzen du, eta erreferentziazko beste lurraldeak baino are beherago dago. Hala ere, adierazle horretarako 2022an lurralde guztietan nabaritu den beherakadaren arrazoietakoa bat da datuak oraindik osatu gabe daudela, eta orain arte, EAEko beherakada EB-27koa baino txikiagoa da, erlatiboki. Antzeko zerbait gertatzen da milioi bat biztanleko argitalpen zientifikoen adierazlearekin ere. Lurralde guztietan behera egin du, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoan gutxiago jaitzi. Horrela, EB-27ko batezbestekoaren eta aztergai ditugun beste lurralde batzuen oso gainetik jarraitzen du.

Ingurumen teknologietako patenteen ehunekoaren bilakaera ere positiboa da. Adierazle horrek garrantzi berezia du, ingurumen arloan berrikuntzak egiteak lagunduko baitu ingurumenaren aldetik jasagarria den lehiakortasunerako trantsizioa egiten (Orkestra, 2023). Ehuneko hori % 18.7ra iritsi zen 2022an, eta EB-27ko batezbestekoaren oso gainetik dago. Azken hori % 12.8ra jaitzi da azken urtean.

Trantsizio berdearekin batera, trantsizio digitalak ere ekonomiaren eta gizartearen sektore guztiei eragiten die, eta digitalizazioarekin lotutako jakiteak kritikoak dira enpresen lehiakortasunerako eta pertsonen ongizaterako. Jakintzaren dimentsio zehatz horretan Euskal Autonomia Erkidegoak duen egoeran sakontzeko, 1-6. laukiak Orkestrak Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia eta gizarte digitalaren inguruan egin berri duen txostenaren (Franco *et al.*, 2024) diagnostiko nagusia eta mezu garrantzitsuenak laburbiltzen ditu.

I+Gko gastua, BPGren ehuneko gisa (% 2.08), EB-27ko batezbestekoaren (% 2.24) azpitik dago, eta Austria Garaikoa (% 3.51) edo Baden-Wurtembergekoa (% 5.59) baino askoz ere txikiagoa da

Ingurumen teknologietako patenteen ehuneko (% 18.7) EB-27ko batezbestekoaren oso gainetik dago (% 12.8)

1-6. LAUKIA EAEko ekonomiaren eta gizartearen digitalizazioa

2022ko abenduan, Europako Parlamentuak eta Europako Kontseiluak hamarkada hau Hamarkada Digital izendatzeko erabakia hartu zuten, dimentsio horren garrantzia agerian jaritzeko eta, eraldaketa digitalari dagokionez, Europako politikaren ikuspegia zabaltzeko. Horren ondorioz, DESI indizeak (Ekonomia eta Gizarte Digitalen Indizea, ingelesezko izenetik) garrantzi handiagoa hartu du Europako digitalizazioaren monitorizazioan. Zehazki, 2023ko irailean argitaratu zen Hamarkada Digitalaren egoerari buruzko urteko txostenaren lehen edizioa (Europako Batzordea, 2023b). Txosten horretan, estatu kideen emaitzak alderatzen dira, 4 dimentsiotan egituratutako panela erabiliz: (i) gaitasun digitalak; (ii) azpiegitura digitalak; (iii) enpresen eraldaketa digitala; eta (iv) zerbitzu publikoen digitalizazioa. Franco *et al.*-en (2024) txostenean, panel hori Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzen da. Hauek dira emaitzak:

Adierazlea	Balioa (azken urtea)	Kokapena	EB 27ko batezbeste- koarekiko kokapena	Sailka- peneko kokapena
1 Gaitasun digitalak				
1a1 Interneteko erabiltzaileak	↑	↗	▲	
1a2 Gaitasun digitalak, gutxienez oinarrizko mailakoak	--	--	▲	
1a3 Gaitasun digitalak, oinarrizko mailaren gainetik	--	--	▲	
1a4 Eduki digitalak sortzeko gaitasunak, gutxienez oinarrizko mailakoak	--	--	▲	
1a5 IKTei buruzko prestakuntza ematen duten enpresak	↑	→	▲	
1a6 Gaitasun digitalak dituzten emakumeak, gutxienez oinarrizko mailakoak	--	--	▲	
1b1 IKT espezialistak	↑	↓	▲	
1b2 IKT gradudunak	↑	↓	▲	
1b3 IKTetan espezialistak diren emakumeak	↑	↑	▲	
2 Azpiegitura digitalak				
2a1 Gutxienez 100 Mbps-ko banda zabal finakoaren ezarpena	↑	↑	▲	
2a2 Gutxienez 1 Gbps-ko banda zabal finakoaren ezarpena	↑	↑	▲	
2a3 Edukiera oso handiko sare finakoaren estaldura (VHCN)	↑	↗	▲	
2a4 Zuntzaren estaldura instalazioetarako (FTTP)	↑	↗	▲	
2b1 Banda zabal mugikorraren ezarpena	↑	→	▲	
2b2 5G estaldura	↑	↓	▲	
2b3 5G espektra	↑	↗	▲	
3 Enpresen eraldaketa digitala				
3a1 Gutxienez intentsitate digitaleko oinarrizko maila duten ETEak	↑	↗	▲	
3b1 Informazio truke elektronikoa	↑	→	▲	
3b2 Sare sozialak	↑	→	▲	
3b3 Makrodatuak	↑	↓	▲	
3b4 Hodeia	--	--	▲	
3b5 Adimen artifiziala	--	--	▼	
3b6 Fakturazio elektronikoa	↑	↓	▲	
3c1 Lineako salmentak egiten dituzten ETEak	↑	↗	▼	
3c2 Lineako merkataritzaren negozio bolomena	↑	↓	▼	
3c3 Lineako mugaz gaidiko salmentak	↑	↑	▼	
4 Zerbitzu publikoen digitalizazioa				
4a1 Gobernu elektronikoaren erabiltzaileak	↑	↑	▲	
4a2* Administrazio publikoen web orri bat erabiltzeko zailtasuna	--	--	▼	
4b1 Osasun arloko historial elektronikorako sarbidea	--	--	▲	



Oharrak: Lehen zutabea, lehen urtetik eskuragarri dagoen azken urtera arteko balio aldakuntza azaltzen da. Gezi berde bat erantsi da aldaketa positiboa izan bada eta gezi gorri bat, aldaketa negatiboa izan bada. Bigarren zutabea, geziaren norabideak Europako sailkapenean izandako aldakuntza adierazten du: gezia berdea bada eta gora begira badago, hiru toki baino gehiago hobetu duela esan nahi du; gezia horia bada eta pixka bat gora okertuta badago, 1 eta 3 toki artean hobetu duela; gezia horia bada eta horizontala, berdin mantendu dela; gezia horia bada eta pixka bat behera okertuta badago, 1 eta 3 toki egin duela atzera; eta gezia gorria bada, hiru toki baino gehiago egin duela atzera. Hirugarren zutabea, Euskal Autonomia Erkidegoak Europako batezbestekoarekiko duen kokapena ikusten da. Batezbesteko horren gainetik dagoela adierazten du gezi berdeak eta haren azpitik dagoela, gezi gorriak. Sailkapeneko kokapenaren zutabea osatzeko, kokapenak kolore eskalan adierazitakoaren arabera multzokatu ditugu. Hala, kolore berdeak sailkapeneko goiko tokiak adierazten ditu eta gorriak, beheko tokiak.

Lehen bi zutabeek adierazleen dinamismoa islatzen dute: adierazle bakoitza zenbat aldatu den Euskal Autonomia Erkidegoan eta nola aldatu den haren kokapena gainerako herrialdeekin alderatuta. Euskal Autonomia Erkidegoak hobera egin du adierazle guztietan. Horrek erakusten du gure ekonomiaren eta gizartearen digitalizazioan etengabe ari garela aurrera egiten. Hala ere, adierazleen balioen gorakada joera orokorra da lurralde guztietan, eta bigarren zutabeak askotariko egoerak erakusten ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren bilakaera gainerako lurraldeen bilakaerarekin alderatzean.

Gainerako bi zutabeek Euskal Autonomia Erkidegoak adierazle bakoitzean gaur egun duen kokapena erakusten digute: Europako batezbestekoarekiko kokapen erlatiboa eta aztertu ditugun 28 lurraldeen sailkapeneko kokapena. Orokorrean, argazkia oso positiboa da: Euskal Autonomia Erkidegoa Europar Batasuneko batezbestekoaren gainetik dago 29 adierazleetatik 24tan. Gainera, lehen bost tokietan dago 9 adierazletan eta 6 eta 11 tokien artean, beste 8 adierazletan.

EAE Europako
batezbestekoaren
gainetik dago
digitalizazioari
lotutako DESI
indizearen 29
adierazleetatik
24tan

Ikuspegi orokor horren barruan, honako mezu hauek nabarmentzen dira:

- **Gaitasun digitalak:** Euskal Autonomia Erkidegoak indargune argiak ditu gaitasun digitaletan, baina dimentsio horretan ez gara liderrak Europan, IKTetan espezialistak diren emakumeen adierazlean izan ezik. Etorkizunari begira, deigarria da IKTetako gradudunen kopuruaren bilakaera, Euskal Autonomia Erkidegoak atzera egin baitu sailkapenean eta herrialde liderretatik urrun samar baitago.
- **Azpiegitura digitalak:** Euskal Autonomia Erkidegoa Europako liderren artean dago, argi eta garbi, eta adierazle guztietan lehen 7 postuetan dago (5G estalduraren adierazlean izan ezik).
- **Enpresen eraldaketa digitala:** Askotariko egoerak ikusten dira. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak ondo kokatuta daude digitalizazioaren oinarrietan, baina kokapena kaskarragoa da elementu aurreratuagoetan, esate baterako, makrodatuen eta hodeiaren erabileran, fakturazio elektronikoa eta, bereziki, adimen artifizialean.
- **Zerbitzu publikoen digitalizazioa:** Azken dimentsio horrek ez ditu hartzen Europako DESIn sartutako adierazleetako batzuk, zaila baita *e-Government Benchmark*-ekoekin bateragarriak diren adierazleak edukitzea. Kontuan hartzen diren hiru adierazleetatik, Euskal Autonomia Erkidegoa liderra da Europan osasun historial elektronikorako sarbidean. Gainera, kokapen ertaina du, eta hobera egiten ari da, gobernu elektronikoaren erabiltzaileen kopuruan. Administrazio publikoen web orrien erabileraren zailtasuna neurtzen duen adierazlean, ordea, azken tokietan dago.¹³

Oro har, azken urteetan gaitasun digitaletan, azpiegituretan eta zerbitzu publikoen digitalizazioan egin diren ahaleginekin jarraitzea gomendatzen da. Eta, horrekin batera, gaitasun digitalei dagokienez, IKTetako gradudunen tasa txikiak eta IKTetako espezialisten tasa nahiko txikiak adierazten digute esparru horretan ahalegin gehigarriak behar direla, bereziki kontuan hartuta enpresen eraldaketa digitaleko arlo sofistikatuenerako batzuekin erlazionatuta daudela eta horietan Euskal Autonomia Erkidegoa, beste lurralde batzuekin alderatuta, atzean gelditzen ari dela (makrodatuen erabilera, hodeia, fakturazio elektronikoa eta, bereziki, adimen artifiziala).

Iturria: Franco et al. (2024). Ikus txosten osoa helbide honetan: <https://doi.org/10.18543/DVOC9093>

Giza kapitalaren palankari dagozkion adierazleek emaitza oso positiboak erakusten dituzte. 100 000 biztanleko medikuen kopuruaren adierazlea da azken urtean hobetu ez den bakarra. 560 mediku ditugu 100 000 biztanleko, eta hori EB-27ko batezbestekoa baino % 40 gehiago da (397). Adierazle horrek lurralde batek bere giza kapitala egoera onean mantentzeko duen gaitasuna erakusten digu. Bestalde, enplegu tasa, lurralde batek erabilgarri duen giza kapitala zein neurritan aprobetxatzen duen adierazten diguna, 2023an EB-27ko batezbestekoa baino gehiago hobetu da, eta, horrela, lehen zegoen aldea desagertu da eta bi lurraldeak parean jarri dira (% 70).

Biztanleria gazteenaren gaitasun orokorrak jasotzen dituzten bi adierazleek (25 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa, hezkuntza mailaren arabera) azken urteetako hobekuntza joerari eutsi diote. Hirugarren mailako hezkuntza duen biztanleria (ISCED 5-8) % 67.6ra iritsi zen 2023an, EB-27ko (% 43.1) eta Alemaniako, Espainiako,

EAE beste lurralde batzuen atzean dago enpresen eraldaketa digitaleko eremu sofistikatuenerako batzuetan

Enplegu tasa, lurralde batek erabilgarri duen giza kapitala zein neurritan aprobetxatzen duen adierazten diguna, hobetu egin da eta EB-27ren pare dago orain (% 70)

Goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailako hezkuntza duen biztanleria nabarmen hazi da 2023an, eta EB-27ko batezbestekoaren gainetik geratu da lehen aldiz, 2013az geroztik

¹³ Garrantzitsua da adierazle horren mugak aitortzea. Izan ere, urte bakarreko datuak daude eskura, hainbat administrazio mailako web orriak nahasten dira, eta ez da kontuan hartzen administrazio publikoen web orrietara sartzen den erabiltzaileen bolumena toki batetik bestera aldatzen denik.

Austria Garaiko eta Baden-Wurtembergeko batezbestekoaren gainetik, oso nabarmen. Bestalde, goi mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailako hezkuntza (ISCED 3-8) duen biztanleriak gora egin zuen 2023an. Adierazle horretan, iraganean datuak askoz ere kaskarragoak ziren. 2023an % 87.7 izan zen ehuneko hori eta 2013az geroztik, lehen aldiz gelditu da EB-27ko batezbestekoaren (% 85.5) gainetik.

Eremu digitaleko berariazko gaitasunak islatzen dituzten bi adierazle ere aztertu ditugu, gero eta garrantzitsuagoak baitira digitalizazioak ekonomiaren sektore guztietan duen funtsezko eginkizunarengatik. IKT gaitasunak dituzten enplegatuen ehunekoak eta IKTetako gradudunen ehunekoak gora egin dute azken urteetan, eta, hala, Euskal Autonomia Erkidegoa Europako batezbestekoaren oso gainetik dago bietan. Hala ere, IKTetako gradudunen ehunekoan EB-27rekiko genuen alde positiboa murrizten ari da, eta Euskal Autonomia Erkidegoa Alemaniaren eta Espainiaren atzetik dago adierazle honetan (ikus, halaber, 1-6. laukia).


EAEko
industriarekin
lankidetzan
egindako
argitalpen
zientifikoak
(% 2.4) EB-27ko
batezbestekoa
(% 4.3) baino
txikiagoak dira

1-4. taulan landutako azken palanka **gizarte eta erakunde kapitalari** dagokio. Palanka horretan, bilakaera positiboa dute lankidetzaren sofistikazioa neurtzen duten bi adierazleek. EAEko ETEen % 23.4 lankidetzan aritzen zen I+Gren esparruan 2022an. Proportzio hori EB-27ko batezbestekoa baino nabarmen handiagoa da (% 5.9 2020an, datu konparagarriak dituen azken urtean).¹⁴ Hala ere, 2022an bilakaera positiboa izan arren, Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpen zientifikoaren % 2.4 bakarrik egiten dira industriarekin lankidetzan. Hortaz, akademiaren eta industriaren arteko lankidetzaren maila EB-27ko batezbestekoa (% 4.3) baino askoz ere txikiagoa da, baita Alemania, Espainia, Austria Garaia eta Baden-Wurtembergekoa baino txikiagoa ere.

Bestalde, gobernuaren kalitatearen indizeak aurreko edizioetan goranzko joera izan badu ere, ediziorik berrienean nabarmen egin du behera Euskal Autonomia Erkidegoan. Adierazle hori hiru-lau urtean behin eguneratzen da, hautemate inkesta baten bidez. Adierazlearen balioa ezin da zuzenean alderatu urte batetik bestera, urtero estandarizatzen baita, EB-27ren balioa zero izan dadin. Hau da, balioak adierazten du herritarrek lurraldean dauden administrazioei buruz (estatuko administrazioetatik tokiko administrazioetara) egiten duten balioespena Europako batezbestekoa baino handiagoa edo txikiagoa den. 1-6. grafikoak Espainiako autonomia erkidegoen bilakaera erakusten digu. Bertan ikus daiteke indize horrek behera egin duela erkidego batzuetan, baina ez guztietan, eta Euskal Autonomia Erkidegoa Espainiako lehen tokian egotetik seigarren tokian egoera igaro dela. Indizeak administrazio publikoen kalitatea neurtzeko hiru osagai aztertzen ditu: 1) hezkuntzaren kalitatea, osasun sistema eta legearen aplikazioa (Euskal Autonomia Erkidegoa zazpigarren postuan tokian dago Espainiako autonomia erkidegoen sailkapenean); 2) ustelkeriaren pertzepzioa eta ustelkeria moduren bat bizi izana (Euskal Autonomia Erkidegoa bigarren tokian dago); eta 3) inpartzialtasuna tratatu berdintasunari edo hezkuntzan, osasun sisteman edo legearen aplikazioaren pribilegioak edukitzeari dagokionez. Hain zuzen ere, osagai horretan du Euskal Autonomia Erkidegoak kokapenik okerrera (12. tokian dago Espainiako autonomia erkidegoen sailkapenean) eta, gainera, nabarmen egin du behera aurreko edizioarekiko; izan ere, 2021ean Espainiako sailkapeneko lehen tokian zegoen ustelkeriaren eta inpartzialtasunaren osagaietan eta bigarrenen, kalitatearen osagaian.

¹⁴ INE-Espainiako Estatistika Institutuaren datuen arabera, eta nahiz eta guztiz konparagarriak ez izan, euskal enpresen lankidetzaren maila ez da hain handia, baina, hala ere, Espainiako batezbestekoaren gainetik dago, nabarmen.

1-6. GRAFIKOA Gobernuaren kalitatearen indizearen bilakaera Espainiako autonomia erkidegoetan



Iturria: Geuk egina, Gothenburg-eko unibertsitateko European Quality of Government Indexeko datuak erabilita.

1.5 Laburpena

Egindako azterketatik ondorioztatzen da **lehiakortasun ekonomikoari** dagokion errendimendua oso sendoa dela: ekonomiak hazten jarraitu du eta produktibitateak hobera egin du, bai ekonomia osoan eta bai manufaktura sektorean. Horren ondorioz, unitateko lan kostuak jaitsi egin dira eta enpresen errentagarritasuna hobetu egin da. Aldagai horien bilakaera, oro har, EB-27koa baino hobea izan denez, handitu egin da Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Europar Batasuneko batezbestekoaren arteko aldea aldagai gehienetan, eta txikitu egin da manufakturako unitateko lan kostuetan zegoen aldea, nahiz eta oraindik ere EB-27koen gainetik egon. Kanpo merkataritzari dagokionez, esportazioek BPGn duten pisua 2023an jaitsi egin bazen ere, jaitiera hori beste lurralde batzuetakoa baino txikiagoa izan zen. Merkataritza saldoak ere hobera egin zuen.

Berrikuntzan ere aurrerapenak egin dira; zehazki, gora egin du produktuan eta prozesuan berrikuntzak egiten dituzten ETEen ehunekoak. Hala ere, azterketa konparatu horretatik ondoriozta daitekeenez, bereziki enpresa txikietan ikusten da alderik handiena Europako parekoekin, eta enpresa ertainetan desabantailak irauten du, bereziki, antolaketako eta marketineko berrikuntzetan. ETEen estrategiak arrisku eta disrupzio maila txikikoak dira eta berritzeko ikusten dituzten oztupoek zerikusi handiagoa dute kostu altuekin eta enpresan beste lehentasun batzuk egotearekin jakintzarekin baino. Beraz, gai hau estrategikoa da eta, horregatik, kultura berritzailea sustatzen eta berrikuntzari lotutako kostuak murriztea laguntzen jarraitu behar da.

Enpresa dinamismoari dagokionez, ikus daiteke ekintzailatza tasa (TEA) Espainiako edo Europako mailen azpitik dagoela, baina, Espainiarekin alderatuta, enpresa teknologikoen presentzia nahiko handia da eta hazkunde handiko enpresen proportzioa ere EB-27koa eta Alemaniakoa baino handiagoa da. Enpresen guztizko kopuruak behera egin du, baina haien batez besteko tamaina handituz doa.

Lehiakortasun ekonomikoari dagokionez, biztanleko BPGren hazkundera sendoa da, unitateko lan kostuek behera egin dute, eta produktibitatean, enpresa errentagarritasunean eta merkataritza saldoan hobekuntzak izan dira

Enpresa txikietan berrikuntza bultzatzeko, kultura berritzailea sustatzen eta berrikuntza kostuak murrizten laguntzen jarraitu behar da

Ongizateari dagozkion adierazleetan, bilakaera ona da enpleguaren, ikaskuntzaren eta gizarte bizitzaren dimentsioetan; eta zaindu egin behar dira bizitza materialaren, osasunaren eta ingurumenaren dimentsioen zenbait alderdi

Ongizateari dagozkion adierazleetan, askotariko irudiak ditugu. Azpimarratzekoa da enpleguaren dimentsioak bilakaera ona izan duela eta horri esker, Europarekiko alde txikitzen ari dela. Helduen ikaskuntzaren dimentsioan ere emaitzak onak dira. Gazteen hezkuntza maila begiratu, ordea, emaitzek okerrera egin dute, PISA txostenaren emaitzei erreparatu badiugu. Gizarte bizitzan, pertsonenganako konfiantzaren bilakaera positiboa nabarmendu behar dugu. Adierazle horren balioa Europako batezbestekoaren gainetik dago, nahiz eta delituek gora egin duten (nolanahi ere, delituen maila ez da Europakoa bezain handia).

Osasunaren dimentsioaren emaitzak oso onak dira, baina okerrera egin dute. Bizitza materialari dagokionez, kokapena, orokorrean, ona da, baina elementu kezkarriak ere badira, esate baterako, etxeetako errentaren medianak azken bi urteetan izan duen beherakada edo pobrezia energetikoaren gorakada. Azken hori Euskal Autonomia Erkidegoaz bestelako lurraldeetan ere ikusten da eta energiaren prezioen igorarekin du lotura, Ukrainako gerraren salbuespenezko gertaeraren ondorioz. Aldagai horren etorkizuneko bilakaera igoera horrek etxe kalteberenetan izan dezakeen eragin negatiboa saihesteko hartzen diren politika moten arabera izango da.

Ingurumenaren dimentsioan bilakaera okerragoa izan da, bai termino absolutuetan (berotegi efektuko gasen eta airearen kutsatzaileen isuri maila handiagoak) eta bai EB-27ko batezbestekoarekin alderatuta ere. Bilakaera horrek klima aldaketari aurre egiteko behar-beharrezkoak diren isurien murrizketa helburuetatik urruntzen gaitu.

Ongizate mailak diru sarreraren mailaren eta hezkuntza mailaren arabera nola aldatzen diren ere aztertuta dugu. Bizitza materialari dagokionez, diru sarrera txikienera etxeko ia % 30ek zailtasunak dituzte hilaren amaierara iristeko. Diru sarrera gehien dituzten etxeetan, berriz, egoera hori % 3.8 baino ez dute bizi. Azterketak erakusten du, halaber, gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunak diru sarrerak dituztenengana ere iristen direla, eta unibertsitate ikasketak edo lanpostu finkoa dutenei ere eragiten die.

Osasun maila orokorrekin eta osasun mentalekoek lotura positiboa dute diru sarrerekin eta ikasketa mailekin

Enpleguak, diru sarreraren iturri izateaz gainera, garapen pertsonalari eta profesionalari ere lagundu beharko lioke. Gure azterketaren arabera, bi faktoreak elkarri lotuta daude, eta lanarekiko gogobetetasuna handiagoa da diru sarrerak handitzen diren neurrian. Lotura hori ez da hain agerikoa ikasketa mailarekin. Azkenik, bai osasun maila orokorrak eta bai antsietate eta depresio sintomak edukitzeak, osasun mentalaren neurri gisa, itxuraz erlazio positiboa dute diru sarrerekin eta ikasketa mailekin.

Lehiakortasunerako palanka dinamikoaren bilakaera, oro har, positiboa da, batez ere giza kapitalaren palankan. Palanka horretan, European baino maila hobea dugu abiapuntu eta hobekuntza ikusten da adierazle guztietan, bai hezkuntzarekin lotutakoetan eta bai enpleguarekin lotutakoetan. Hobekuntza hori, gainera, European baino handiagoa da. Kapital fisikoaren palankaren bilakaera ere positiboa da. Gauza bera gertatzen da lankidetzarekin lotutako alderdiekin ere, gizarte kapitalaren palankan. Aldagai horretan, bilakaera positiboa da, bai absolutua eta bai alderatua; gobernuaren kalitatearen hautematean, ordea, emaitzek okerrera egin dute.

Finantza-eraketaren palankak denetarikoa irudiak erakusten dizkigu: enpresen ondare garbiak eta atzerrian metatutako inbertsioak bilakaera ona dute, baina atzerriko inbertsioaren sarrerako stockak behera egin du, eta horrek finantza-eraketa erakartzeko nolabaiteko zailtasuna adieraz dezake.

Erronka handienak jakintzaren eta kapital naturalaren palanketan daude. Lehenengoan, ingurumen teknologietako patenteen norabidea positiboa da eta argitalpen maila, nahiz eta zertxobait jaitsi den, Europako eta Alemaniako batezbestekoaren gainetik dago. Erronka I+Gko gastu mailan eta patenteen mailan dugu, bi aldagai horien balioak Europako batezbestekoaren eta Alemaniako balioen azpitik baitaude, eta azken urtean atzera egin dute, nahiz eta patenteen datuak oraindik osatu gabe dauden eta jaitsierak lurralde guztietan gertatu. Horrek iradokitzen digu ahaleginak egiten jarraitu behar dugula gastua handitzeko, beste lurralde batzuekiko aldea gainditu ahal izateko. Digitalizazioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoak indarguneak ditu biztanleriaren gaitasun digitaletan eta, batez ere, azpiegiturretan, baita zerbitzu publikoen digitalizazioaren elementu batzuetan ere. Baina gabeziak ikusten dira IKT espezialistetan eta enpresa digitalizazioaren zenbait alderditan, esate baterako makrodatuen, hodeiaren eta adimen artifizialaren erabileran, edo administrazio publikoen web orrien irisgarritasunean.

Lehiakortasun-
rako eta
ongizaterako
palanketako
erronka handienak
jakintzan eta
kapital naturalean
daude

Kapital naturalaren dimentsioan azpimarratzekoa da aztertutako adierazle gehienetan Euskal Autonomia Erkidegoa batezbestekoaren gainetik dagoela, baina azken urtean hobera egin duen arren, Europako batezbestekoan baino neurri txikiagoan egin du aurrera. Erronkarik handiena energia berriztagarrien kuotan dugu, batezbestekoaren azpitik baitago eta, gainera, okerrera egin du, EB-27ko batezbestekoan baino neurri handiagoan. Beraz, azken hamarkadan ez da aldea murriztu. Berriztagarrien presentzia handiagoa duen energia sistema baterako trantsizioaren erronkak aldaketa teknologikoak, sozialak eta portaerakoak ekarriko ditu eta trantsizioak bidezkoa izan behar du, kostuak eta mozkinak ekitatez banatzeko, batez ere kolektibo ahulenak kontuan hartuta.

2

Lehiakortasun inklusiboa eta ongizate inklusiboa: txanpon beraren bi aldeak

Lehen kapituluko 1-1. irudian aurkeztu dugun bezala, ongizatea helburu duen lehiakortasunerako gure esparruak bi emaitza multzo handi bereizten ditu: (i) ekonomia eta enpresa emaitzen lau dimentsio, lehiakortasunaren analisietan ohikoak direnak, eta (ii) pertsonen ongizatearen zazpi dimentsio, lehiakortasun ekonomikoaren azken helburu izan beharko luketenak. Txostenaren lehen kapituluan, dimentsio bakoitzeko funtsezko adierazleak aztertu ditugu, Euskal Autonomia Erkidegoko lehiakortasunaren eta ongizatearen gaur egungo emaitzak ikusteko. Analisi hori lehiakortasunerako sei palanka dinamikoen ezaugarri diren adierazleen azterketarekin osatu dugu, jakinik palanka horien gainean jardun dezaketela lurraldeko askotariko eragileek, politiken eta estrategien bidez, emaitzak hobetzeko.

Esparruak, gainera, zeharkako bi elementu ditu: nazioarteko lotura eta inklusioa. Nazioarteko loturak nazioartekotzera eramaten gaitu, esparru ekonomikoan eta enpresan. Eta kontuan hartu behar da, halaber, ongizatearen dimentsioak aztertzean, esate baterako, ingurumenaren dimentsioan, eta palanka dinamiko batzuetan, horien artean, jakintzan edo finantzaketan. Inklusioak esparruko beste zati batzuk zeharkatzen ditu eta hainbat modutara azal daiteke, aztertutako dimentsioaren eta palankaren arabera, esate baterako, aberastasunaren banaketari lotutako desberdintasunak edo genero, jatorri eta adinaren araberrak, besteak beste.

Txosten honek inklusioaren zeharkako ardatzean sakontzen du, aurrean ditugun erronken inguruan gogoeta egiteko, lehiakortasuna eraikitze prozesua eta prozesu horren emaitzak benetan inklusiboak izatea nahi badugu. Gure iritziz, lehiakortasun inklusiboa eta ongizate inklusiboa txanpon beraren bi aldeak dira, eta ezin dira bata bestea gabe ulertu. Harreman hori agerian geratzen da, halaber, gogoratzen badugu orain dela lau urte pandemiak funtsezkoa denaren ekonomiak (osasuna, elikadura, garraioa, hezkuntza edo zaintza) duen garrantzia erakutsi zigula, bai herritar guztien ongizatea bermatzeko eta bai garapen ekonomikoa bultzatzeko (Orkestra, 2020).

Inklusioaren ardatzean sakontzeko, pertsonengan jarriko dugu arreta; izan ere, pertsonak bizi dute, azken batean, desberdintasuna eta bazterketa, eta haiek har dezakete parte lehiakortasuna eta ongizatea eraikitzen. Pertsonen eremu sozioekonomikoko eta politikoko inklusioak hainbat bidetatik lagundu dezake lehiakortasuna eta ongizatea hobetzen. Horietako bat, adibidez, jarduera tasak handitzeko aukera da, gurean bezala, demografiaren erronka lantzen ari diren gizarteetan. Beste bide bat

Pertsonengan jarri dugu arreta; izan ere, pertsonak bizi dute, azken batean, desberdintasuna eta bazterketa, eta haiek har dezakete parte lehiakortasuna eta ongizatea eraikitzen

izan daiteke produktibitatea handitzea, gai baldin bagara aniztasunari dagokion babilioa aitortzeko, erakundeetan berrikuntzaren palanka gisa. Arlo horretako literaturak nabarmentzen du pertsonen adinaren, generoaren eta jatorriaren arabera aniztasunak berrikuntza ekartzen duela, baina azpimarratzen du hori ez dela automatikoa eta aniztasuna kudeatu egin behar dela, ondorio positiboak sor ditzan (Solheim eta Fiitjar, 2018; Solheim eta Herstad, 2018; Vema, 2020). Aniztasunaren kudeaketa onak, aldi berean, gizarte toleranteagoak sortzen laguntzen du eta zuzeneko eragina du lurraldeen gizarte kohesioan.¹⁵

Pertsonak sortzetiko ezaugarrien arabera bereiz daitezke, esate baterako, sexua- ren edo jatorriaren arabera, edo norberaren aukeren arabera, horien artean, erlijioa edo adskripzio politikoa. Adinagatik edo gizarte klaseagatik ere bereiz daitezke. Pertsonak ezaugarri jakin batzuen arabera kategorizatzeak ondorioak ditu, kategoriek nortasuna eta taldeko kide izatea sortzen dutelako, errealitatea ordenatzen laguntzen dutelako, eta haren irakurketa errazten dutelako,¹⁶ baina, aldi berean, kategorizatzen dituzten pertsonak bereizteko ere erabiltzen dira, nahiz eta horrek pertenezia subjektiborik ez adierazi. Edonola ere, inklusioa sinplifikatzen ari gara, ezaugarri demografiko jakin batzuk bakarrik hartuko baititugu kontuan, pertsonak dimentsio asko baditu ere; era berean, bere interesak eta beharrak lurralde baten esparru sozioekonomikoan eta politikoan duen rola baino urrunago doaz (Gidley *et al.*, 2010).

Pertsona guztien inklusioa aztertzeak duen konplexutasun hori onartuta, txosten honetan errealitate horren zati bat bakarrik hartuko dugu eta ezaugarri horietako batzuk aztertuko ditugu, lehiakortasunarekin duten harremanaren ikuspegitik. Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko lehiakortasunerako eta ongizaterako erronka eta aukera kritiko batzuekin lotuta dauden hiru ezaugarri demografikotan jarriko dugu arreta:

Hiru ezaugarri demografikotan jarri dugu arreta: adina, jatorria eta generoa

1. Pertsonen adina.
2. Pertsonen jatorria.
3. Pertsonen generoa.

Aipatzekoa da pertsonak dimentsio askotakoak izateak beste ezaugarri batzuk ere badakartzala, besteak beste, haien gaitasunekin zerikusia dutenak. Euskal Autonomia Erkidegoan, desgaitasuna duten pertsonen gizarte eta lan inklusioan egin den ahalegina nabarmendu behar da, pertsona horiek ere laguntzen baitiete lehiakortasunari eta ongizateari (ikus 2-1. laukia).

¹⁵ Gainera, gizarte, kultur eta ekonomia errealitateen inklusioak demokrazia indartzen eta herritarren parte hartzea sustatzen du (Falk *et al.*, 2000).

¹⁶ Ikus: Trepte eta Loy (2017) eta Prati *et al.* (2021).

Desgaitasuna duten Pertsonentzako Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte eta Lanerako Inklusio Eredua duela 40 urte baino gehiago hasi zen garatzen

2022an EHLABEko entitateek gizartearentzat sortu duten Gizarte Balio Integratua 794 milioi eurokoa izan zen (7 euro jasotako dirulaguntza publikoko euro bakoitzeko)

2-1. LAUKIA Desgaitasuna duten pertsonen gizarte eta laneko inklusio eredua Euskal Autonomia Erkidegoan



Desgaitasuna duten Pertsonentzako Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte eta Laneko Inklusio Eredua (Eredua, aurrerantzean) duela 40 urte baino gehiago hasi zen garatzen. Eredu horren ezaugarri bereizgarrietako bat da eragile publiko eta pribatuaren sare batek lankidetzan egindako lanaren emaitza dela, enpresek, lehiakorrak izateaz gain, ongizate inklusibo eta jasangarria ezaugarri duten gizarteak sortzen lagun dezaketela sinetsita.

Ereduaren erdi-erdian EHLABE-Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea dago, desgaitasuna duten pertsonen gizarte eta lanerako inklusioa sustatzen duten irabazi asmorik gabeko entitateen euskal elkartea. Elkartea horrek erakundeekiko eta gizarte eragileekiko solaskidetzaz sustatzen eta garatzen du, elkartea osatzen duten entitateekin lankidetzan. Elkartea desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasuna eta haien gizarte inklusioa hobetzea du helburu.

EHLABEk bultzatu eta Orkestrak bideratu zuen gogoeta prozesu batek (Canto *et al.*, 2023) ondorioztatu zuen Ereduak Euskal Autonomia Erkidegoko ongizatea helburu duen lehiakortasunari laguntzen diola, honako bide hauen bidez:

- Industria eta zerbitzu sektoreetako enpresa jardueren bidez, enpresa horiek euskal enpresa sarea osatzen duten balio kateen parte baitira.
- Gizartean parte aktiboa izateko oztopo gehien dituzten pertsonen gizarte eta lanerako inklusioaren aldeko lanean 40 urte baino gehiagoko ibilbidean ikasitako guztia eragatik. Gainera, kolektibo horren barruan laguntza premia handiena duten desgaituak lehenesten, Ereduak berrikuntzan eta ekintzailetzan oinarritutako tresna kutxa bat sortu du, beste kolektibo batzuetara ere estrapolatu daitekeena. Tresna kutxa horrek, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko hazkunde ekonomikoari modu aktiboan laguntzen dio.
- Gizartearentzat, oro har, eta desgaitasuna duten pertsonentzat eta haien ingurunearentzat balioa sortzen duelako, baita elkarteen bezeroentzat eta hornitzaileentzat ere. 2022an, EHLABEko erakundeek sortutako Gizarte Balio Integratua (GBI) 794 milioi eurokoa izan zen (7 euro jasotako dirulaguntza publikoko euro bakoitzaren truke), desgaitasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat sortutako balioa 90 milioi eurokoa izan zen, eta enpresa ekimenek bezeroei eta hornitzaileei guztira 395 milioi euroko balioa sortu zieten.
- Gainera, interes ekonomiko eta sozial orokorra bilatzen dute, gizarte ekonomiaren printzipioekin bat eginik: (i) pertsonak eta gizarte edo ingurumen helburuak mozkinaren aurretik jartzea; (ii) irabazi eta soberakin gehienak berrinbertitzea kideen/erabiltzaileen edo, oro har, gizartearen aldeko jarduerak egiteko; eta (iii) gobernantza demokratikoa edo parte hartzailea.

Iturria: Canto *et al.* (2023).

Bai identifikatutako hiru ezaugarri demografikoak bai txostenean aztertzen ez diren beste batzuk ez dira baztertzailerak, pertsona berak bizi baititzake eta, testuinguruaren arabera, pribilegioak edo desberdintasun sistemikoak erreproduzitzen dituzte. Interseksionalitatea, ezaugarri demografikoen (eta kontuan hartzen ez ditugun beste batzuen) gainjartze hori jasotzen duen kontzeptua, oso garrantzitsua da pertsonen gizarte inklusioa aztertzen dugunean. Arrazoi hori dela eta, txostenak interseksionalitate hori ezaugarri duten kasu batzuk aztertzen ditu.

Lehenengo bi ezaugarri demografikoek, adina eta jatorria, zuzeneko lotura dute gure lurraldeak duen erronka demografikoarekin, jaiotza tasen etengabeko jaitsieraren eta biztanleriaren zahartzearen ondorioz. Zahartze tasa handiek lan egiteko adinean dagoen biztanleria murriztea dakarte eta horrek eragin kaltegarria izan dezake ekoizpen ahalmenean. Egoera horri erantzuteko, immigrazioa funtsezkoa izango da, eta aukera bat eskaintzen digu aktiboa izan daitekeen biztanleriaren jaitsieraren zati bat konpentsatzeko eta biztanleriaren hazkundera bermatzeko, hazkunde horren iturri bakarra, 2021 eta 2035 urteen artean, migrazio saldo positiboa izango dela aurreikusten baita (Orkestra, 2022). Lurralde, erregio eta herrialdeek talentua erakartzeko (eta hari eusteko) duten lehia areagotu egingo denez, garrantzi berezia izango du profil desberdinetako etorkinen integrazio egokia zaintzeak eta haien gaikuntza eta laneratzea bideratzeak, enpresen eta lurraldearen beharrekin bat, erraztuko duten mekanismoak abian jartzeak. Integrazio eta laneratze horrek pertsona horien ongizatea bultzatzen du.

Funtsezkoa da profil desberdinetako etorkinen integrazioa erraztea, enpresen eta lurraldearen beharrekin lerrokatuta

Baina etorkinei ekonomian eta gizartean integratzeko aukerak emateaz gainera, gure lurraldeko erronka demografikoak beste zerbaite ere eskatzen du: adinekoen eta gazteen artean berdintasun handiagoa bilatzea, hainbat eremutan. Adibidez, ELGERen txosten batek (2020) ohartarazten du belaunaldi askotako plantillak sortzeak eta adinekoen belaunaldiei lan egiteko aukera handiagoak emateak %19 handitu lezaakeela biztanleko BPG datozen hiru hamarkadetan. Testuinguru horretan, beharrezkoa da adinekoen eta gazteen belaunaldien arteko elkarriketa sustatzea, hainbat gizarte eremutan (Lorenz *et al.*, 2023). Era berean, pertsonen bizitza luzatzeak zaintza ereduaren tentsioak sortzen ditu eta formulazio berriak bilatzera eramane behar gaitu, eredu hori indartzeko.

Beharrezkoa da adinekoen eta gazteen belaunaldien arteko elkarriketa sustatzea

Hirugarren ezaugarri demografikoari, generoari, dagokionez, dinamika ekonomikoaren genero dimentsioak eta horrek emakumeengan dituen inplikazioak ikusarazi behar dira. Kategoria kritikoa da; izan ere, emakumeak lan munduan duen parte hartzearen ratioak handitzen joan dira, eta beharrezkoa da jakitea nolako eragina duen generoak enpleguan, lurraldeko lan merkatuan eta enpresen egituran (Gray eta James, 2007). Emakumeak ekonomian duen parte hartzea, sarritan, elementu hauekin identifikatzen da: generoari lotutako soldata arrakala, generoari lotutako segregazioa jarduera adarren eta lanbideen arabera, eta ordaindu gabeko etxeko lanak eta zaintza lanak agerian jartzeko beharra (Rodríguez Enríquez, 2015).

Garrantzitsua da emakumea lan merkatuan gehiago sartzearekin batera, kontziliazio politikak bultzatzea eta etxeko lanak eta zaintza gizonen eta emakumeen artean hobeto banatzea

Beharrezkoa da, halaber, generoak ugalkortasunean duen garrantzia onartzea. Teoria soziologikoak erakusten du emakumeen lan jardueraren gorakadak eragina duela jaiotza tasetan, etxeko lanak eta zaintza birbanatzeak eta kontziliazio politika egoiak laguntzen ez badituzte. Horregatik, garrantzitsua da emakumea lan merkatuan gehiago sartzearekin batera, egiturazko beste aldaketa batzuk ere egitea, horien artean, kontziliazio politikak bultzatzea eta etxeko lanak eta zaintza gizonen eta emakumeen artean gehiago banatzea.¹⁷

¹⁷ Familia osatzeko ereduaren inguruko azterketek erakusten dute ezkontzaren gainbeheraren zati handi bat, dibortzioen eta bizikidetzaren gorakadak ikusita, erantzukizunetan ikusten den genero asimetriari egotz dakiokeela (Goldscheider, 2000) eta, zenbat eta handiagoa izan genero berdintasuna, errazago berreskuratuko direla ugalkortasun tasa txiki horiek (Esping-Andersen eta Billari, 2015). Politika publikoek, beraz, familia bizitza eta lana bateratzeko eta lan bizitza zabalagoa izateko neurriak hartu behar dituzte kontuan. Impicciatoren eta Semenzaren arabera (2017), hori onuragarria izango litzateke lan merkaturako eta biztanleriaren zahartzearen gizarte jasangarritasunerako.

Laburbilduz, gure gizartea osatzen duten pertsona guztiak eta, batez ere, emakumeak, adin guztietako pertsonak eta etorkinak erabat integratzeko ditugun erronkak aztertzea eta horiei buruz hausnartzea funtsezkoa da lehiakortasun eta ongizate inklusiboak bermatzeko. Lehiakortasun inklusiboa lurralde bateko pertsona guztiek, beren onena emanez, merkaturako eta merkatutik kanpo balioa sortzen parte hartzeko prozesua da. Eta ongizate inklusiboa gero eta pertsona gehiagori eta berdintasun handiagoarekin ongizatearen dimentsioetarako —besteak beste, osasuna, enplegua edo hezkuntza— sarbide duina emateko prozesua da.

Horrela, ongizate inklusiboa duten lurraldeetan, pertsonen ongizate maila ona izan beharko lukete (gutxieneko sarbide duina), berdintasun handiagoarekin. Gutxieneko maila duina eta lurraldeetako berdintasuna batera hobetu beharko lirateke, modu koherentean. Era berean, lehiakortasun inklusiboa duten lurraldeetan, pertsona guztiek aukera izan beharko lukete eskuragarri dituzten ongizate emaitzak eraikitzen parte hartzeko.

Kapitulu honen gainerako edukia honela antolatu dugu: hurrengo atalean, gizarte inklusioaren kontzeptuan sakonduko dugu. Eta, ondoren, gizarte inklusioak ongizatea helburu duen lehiakortasunerako gure esparruaren elementuetan duen garrantzia landuko dugu.

2.1 Zer da gizarte inklusioa?

Literatura akademikoak gizarte bazterketa eta inklusioa continuum batean irudikatzen ditu (Moyano, 2020).¹⁸ Mutur batean, gizarte bazterketa baliabideak, eskubiak, ondasunak eta zerbitzuak ez edukitzea da, baita gizarte bateko pertsona gehienek esparru ekonomikoan, sozialean, kulturean edo politikoan dituzten harreman eta jardura arruntetan parte hartzeko aukerarik ez izatea ere. Pertsonen bizi kalitateari eta gizarte osoaren ekitateari eta kohesioari eragiten dio (Levitas *et al.*, 2007). Beste muturrean, gizarte inklusioak hainbat arrazoiengatik (adina, generoa, jatorri etnikoa, erlijioa, desgaitasuna, gizarte klasea eta/edo beste ezaugarriren bat) desabantailan egon daitezkeen pertsonen gizartean duten parte hartzea hobetzea eta haien aukerak, baliabideetarako sarbidea, ahotsa eta eskubideekiko errespetua areagotzea da (Butkevičienė *et al.*, 2021).

Gizarte inklusioa prozesu konplexua da, eta dimentsio ekonomiko, politiko, kultural eta erlazionalen arteko interakzioan garatzen da

Gizarte inklusioa prozesu konplexua da, eta dimentsio ekonomiko, politiko, kultural eta erlazionalen arteko interakzioan garatzen da. Premiak aitortzearekin du zerikusia, baita beste pertsonen ezaugarriak eta aberastasuna aitortzearekin ere, elkarrekikotasunez (Procentese eta Gatti, 2024). Gizarte inklusioaren ikuspegi integralak komunitatearen ondasunak babesteko erantzukizun partekatua azpimarratzen du,

¹⁸ Gizarte inklusioaren kontzeptua XIX. mendekoa da, eta Weberrek gizarte kohesioaren garrantziari buruz egin zituen lanetatik ondorioztatzen da (Gidley *et al.*, 2010). Aurrerago, kontrako esanahia duen kontzeptu honekin batera erabili zen: gizarte bazterketa. Durkheimek (1964) gizarte bazterketa elkartasunarekin eta gizarte kohesioarekin harremanetan —eta elkarren kontra— planteatzen zituen. Lenoirrek (1974), Frantziako Gizarte Ekintzarako Estatu idazkariak, kontzeptu hori erabiltzen zuen ohiko gizarte segurantzako sareen estaldurarik ez zuten pertsonak izendatzeko (Mascareño eta Carvajal, 2015; ELGE 2023b). Berrikiago, gizarte inklusioaren kontzeptuak protagonismoa hartu du Europako diskurtso politikoan, pobrezia kontzeptua ordeztu zuenetik aurrera, pertsonen bizitzaren dimentsio gehiago hartzen baititu kontuan (Aasland eta Fløtten, 2000).

nabarmenduz pertsona guztiek izan behar dutela aukera komunitate horri ekarpena egiteko (Lorenz, *et al.* 2024).

Ikuspegi horretatik, gizarte inklusioa emaitza eta prozesua izan daiteke (Yang *et al.*, 2016). Literaturak hiru hurbilpen ideologiko identifikatzen ditu ikuspegi bikoitz horren atzean (Gidley *et al.*, 2010). Lehenengoak gizarte inklusioa sarbide gisa ulertzen du; bigarrenak, parte hartze gisa; eta hirugarrenak, ahalduntze gisa. Hiruren arteko aldea, nagusiki, irismenak emango digu.

- **Sarbidea:** gizarte inklusioaren interpretaziorik murriztena da, eta ikuspegi neoliberaletik, pertsonak baliabideetarako eta zerbitzuertarako sarbidea edukitzea esan nahi du, gizartean dauden egituretan barneratzeko bitarteko gisa, egitura horiek zeharkatzen dituzten botere asimetriak kontuan hartu gabe. Ikuspegi horretatik, gizarte bazterketa aukerertarako sarbidea murriztea eta aukera horiek kapitalizatu ahal izateko gaitasunak mugatzea izango litzateke.
- **Parte hartzea:** gizarte inklusioaren ikuspegi zabalago batek pertsonak bizi diren gizarteko funtsezko jardueretan, komunitatearen bizitzan eta erabakiak hartzeko prozesuetan modu aktiboan parte hartzea azpimarratzen du. Ikuspegi horrek gizarte justiziaren printzipioan ditu oinarriak eta baztertutako taldeen inklusioaren eta ordezkartzaren garrantzia nabarmentzen ditu.
- **Ahalduntzea:** gizarte inklusioaren interpretaziorik zabalena da. Pertsona bakoitzaren potentziala maximizatzea du helburu, urritasun ereduak erabili beharrean, aukera ereduak erabiliz. Azken ikuspegi hori sarritan giza potentzialaren ikuspegia-ekin lotzen da, eta gizakien konplexutasuna hartzen du kontuan, baita pertsona guztiak dimentsio askotako izakiak garela ere, eta, ildo horretatik, desberdintasunari eta aniztasunari dagokien balioa ematen die.

Hiru interpretazio horiek ez dira baztertzailak eta testuinguru edo ingurune jakin batean bizi dira. Hain zuzen ere, eskema habiaratu gisa irudikatzen dira: geruzarik zabalena, ahalduntzeak, parte hartzearen geruza hartzen du barne eta horrek, aldi berean, sarbidea hartzen du (Gidley *et al.*, 2010). Txosten honi dagokionez, gure iritziz hiru ikuspegiak osagarriak dira eta garrantzitsua da hirurak kontuan hartzea gizarte inklusioaren kontzeptua lantzean.

Sarbidearen ikuspegia, funtsean, Orkestraren esparruaren ongizatearen dimentsioetarako sarbidean jasotzen da; partaidetzaren ikuspegia, berriz, palanka dinamikoetan islatzen da, batez ere giza kapitalaren eta gizarte kapitalaren palanketan. Ahalduntzeari dagokionez, pertsona bakoitzak ongizateari ekarpena egiteko duen potentziala maximizatzea bilatzen duela kontuan hartuta, pertsonarekin berarekin lan egitea eskatzen du, familia, erakunde eta gizarte eremuetan. Orkestraren esparruan, batez ere ongizate subjektiboaren dimentsioan eta palanka dinamikoak azpimarratzen eta lotzen dituzten gobernantza prozesuetan islatzen da.

Hurrengo atalean, gizarte inklusioari buruz xehetasun handiagoz hausnartuko dugu, sarbidearen, parte hartzearen eta ahalduntzearen ikuspegietatik abiatuta, lehiakortasun esparruko bloke bakoitzean.


Gizarte inklusioa 'sarbide' gisa, ongizateari lotutako emaitzetan jasotzen da; gizarte inklusioa 'parte hartze' gisa, lehiakortasunerako eta ongizaterako palanketan islatzen da

2.2 Ongizate inklusiboa helburu duen lehiakortasun inklusiboa

Inklusioak bertutezko zirkulu bat sor dezake lehiakortasun inklusiboaren eta ongizate inklusiboaren artean, besteak beste aniztasunaren kudeaketaren estrategien bidez lantzen bada, elkar indartzen laguntzen baitute

Orkestraren ongizatea helburu duen lehiakortasun esparruan, inklusibotasuna zeharkako ardatzetako bat da, funtsezkoa baita bai gizarteak bilatzen dituen azken emaitzetarako (zati urdina), bai emaitza horietan eragin dezaketen palanka dinamikoetarako (zati berdea) eta bai lurraldearen egiturazko ingurunerako (zati laranja) (ikus 2-1. irudia). Zeharkako ardatz gisa, inklusioak bertutezko zirkulu bat sor dezake lehiakortasun inklusiboaren eta ongizate inklusiboaren artean, besteak beste aniztasunaren kudeaketaren estrategien bidez lantzen bada, elkar indartzen laguntzen baitute. Atal honetan, sarbidearen, parte hartzearen eta ahalduentzearen hiru ikuspegiak gure lehiakortasun esparruan txertatuko ditugu. Horrela, inklusioaren zeharkako elementu hori esparruan nola gauzatzen den ulertu nahi dugu eta, hortik abiatuta, lehiakortasun inklusiboa eta ongizate inklusiboa lortzeko landu behar ditugun erronkei buruz gogoeta egin.

2-1. IRUDIA Ongizatea helburu duen lehiakortasun esparru sinplifikatua



Iturria: Orkestra (2021).

2.2.1 Ongizateari lotutako emaitzak: inklusioa, sarbide gisa

Ongizate inklusiboa bultzatzea gero eta pertsona gehiagori eta berdintasun handiagoarekin ongizatearen dimentsioetarako sarbide duina emateko prozesua da

Ongizatearen emaitzak dimentsio askotakoak dira. Zehazki, lehiakortasun esparruan ongizate objektiboaren sei emaitza jasotzen dira (bizitza materiala, gizarte bizitza, ikaskuntza, enplegua, ingurumena eta osasuna) eta ongizate subjektiboaren adierazle bat, ongizatearen alderdi guztiak barne hartzen dituen (bizitzarekiko gogobetetasuna).

Ongizate inklusiboa bultzatzea gero eta pertsona gehiagori eta berdintasun handiagoarekin ongizatearen dimentsioetarako sarbide duina emateko prozesua da. Garrantzitsua da dimentsio bakoitzean ongizate maila ona izateaz gainera, dimentsio guztietan oreka lortzea. Bisquerrak adierazten duen bezala (2013, 15. or.), «segur aski, ongizate mota desberdinen konbinazio harmoniatsua eta horien arteko elkarrekintza hurbilduko da gehien ongizate orokorrera».

Aurreko atalean aurkeztu ditugun hiru ikuspegietatik, **inklusioa sarbide gisa** hartzen ari gara hemen. Horrela, ongizate inklusiboa duten lurraldeetan, pertsonen ongizate maila ona dute dimentsio guztietan —gutxieneko sarbide duina—; berdintasun mailak nahiko handiak dira ongizatearen dimentsioetan; eta horrek gizarte kohesioa errazten du. Gainera, garapen orekatua egon beharko litzateke, gutxieneko maila duinak modu koherentean hobetu daitezken, berdintasun egokiari eutsiz. 2-1. taulak inklusioaren esanahi zehatza ematen digu, ongizatearen zazpi dimentsioetako bakoitzean.

2-1. TAULA Inklusioa ongizatearen dimentsioetan

Ongizatearen dimentsioa	Inklusioa, sarbide gisa
Bizitza materiala	Lurralde bateko pertsonen bizitzaren alderdi materialetarako (etxebizitza, errenta...) gutxieneko sarbide duina eta, neurri batean, berdintasunezkoa
Enplegua	Lurralde bateko pertsona gehiagok dute kalitatezko enpleguetarako sarbidea
Gizarte bizitza	Lurralde bateko pertsona gehiagok dute gizarte, familia, lagunarte eta komunitateko sare baterako sarbidea
Ikaskuntza	Lurralde bateko pertsona gehiagok dute bizitzan zeharreko prestakuntza, ikaskuntza eta gaitasunen garapenerako sarbidea
Osasuna	Lurralde bateko pertsona gehiagok dute osasun zerbitzuertarako sarbidea, eta osasun fisiko eta mental ona dute
Ingurumena	Lurralde bateko pertsona gehiagok dute ingurumen garbi baterako sarbidea (airea, ura, natura guñeak...)
Bizitzarekiko gogobetetasuna (ongizate orokorra)	Ongizatearen sei dimentsioetarako sarbide orekatua

Iturria: Geuk egina, Orkestrako lanak erabilia (2021).

2.2.2 Ekonomia eta enpresa emaitzak: lehiakortasun inklusiboa

Txosten honetan, lehiakortasun inklusiboa lurralde bateko pertsona guztiek, beren onena emanaz, merkatutako eta merkatutik kanpo balioa sortzen parte hartzeko prozesua dela ulertuko dugu. Lehiakortasun inklusiboa duten lurraldeetan, pertsona guztiek aukera izan beharko lukete eskuragarri dituzten ongizate emaitzak eraikitzen parte hartzeko. Ongizatea ez dator emana, eraiki egin behar da, baina pertsona guztiek ezin dute eraikuntza horretan modu berean parte hartu. Hainbat egoerak errazten edo zailtzen du pertsonen ongizatearen eraikuntzan parte hartzea, horien artean, lehen ere adierazi dugun bezala, intersektionalitateak. Arestian aipatutakoaren ildotik, txosten honetan pertsonen ezaugarriak lehiakortasunarekin duten harremanaren ikuspegitik aztertuko ditugu, eta, horregatik, pertsonak aztertzean, jatorria, adina eta generoa besterik ez ditugu kontuan hartu.

Jatorri, adin eta genero desberdineko pertsonen inklusioaren alde lan egiteak gero eta lehiakortasun inklusiboagoa sortuko du. Etorkinen inklusioak, adin desberdinetako pertsonenak, genero desberdinetakoenak eta abar jarduera tasak handitzeko probabilitatea areagotzen du, eta, horrekin batera, enpresek hainbat motatako talentuak bilatzeko dituzten erronkei erantzuten die. Horren ondorioz, lehiakortasun eko-

Jatorri, adin eta genero desberdineko pertsonen inklusioaren alde lan egiteak gero eta lehiakortasun inklusiboagoa sortuko du

nomikoaren adierazle garrantzitsuenak hobetu, horien artean, enpresen errentagarritasuna, produktibitatea eta biztanleko BPG.

Gainera, adinaren, jatorriaren eta generoaren arabera inklusioak aniztasun handiagoa sortzen du. Literaturaren arabera, bi aniztasun mota daude: lehen mailakoa eta bigarren mailakoa. Lehen mailako aniztasunak esan nahi du pertsona anitz horiek testuinguru jakin batean elkarrekin egotea; bigarren mailako aniztasunak, berriz, lehen mailakoari erantzen dio pertsonen hezkuntzaren eta lan ibilbidearen bidez eskuratzen dituzten trebetasunak eta jakiteak. Bigarren mailako aniztasuna erakundearen errendimenduarekin eta berrikuntzarekin lotuta dago, lehen mailako aniztasuna baino urrunago doalako, erakundearen jakintzaren oinarrien osaera ere kontuan hartzeko (Solheim eta Herstad, 2018). Literaturan ez dago oinarri enpiriko nahikorik lehen mailako aniztasunaren eta berrikuntza eta produktibitate mailen arteko harremanari buruz. Bigarren mailako aniztasunaz ari garenean, berriz, harreman hori arrazoitzea errazagoa da (Solheim eta Fitjar, 2018; Solheim eta Herstad, 2018; Vema, 2020).

Adinaren, jatorriaren eta generoaren arabera inklusioak aniztasun handiagoa sortzen du, eta horrek ondorio positiboak izan ditzake berrikuntzan, produktibitatean eta nazioartekotzean

Azkenik, Solheim eta Fitjar-ek (2018) aniztasunak nazioartekotzeari egiten dion ekarpena azpimarratzen dute, batez ere jatorriari dagokionez, eta pertsonen bera-ekin dakartzaten kultur arteko gaitasunengatik eta sareengatik. Gaitasun horiek jakintza eta ideien aukera zabalagoa eskaintzen dute, eta hori gero eta garrantzi-tsuagoa da lehiakortasunerako. Edonola, zenbait azterlanek atzerriko langileen pre-sentziaren eta berrikuntzaren artean korrelazio positiboa dagoela ondorioztatzen badute ere, esan behar da eragina asko aldatu daitekeela langile horien hezkun-tza mailaren arabera eta, egiturazko ezaugarriei lotuta, aniztasunaren kudeaketa-ren konplexutasunaren arabera. Azterlan horiek ondorioztatzen dute atzerriko lan-gileek berrikuntzari laguntzen diotela, bereziki nazioarteko harremanak sustatzeko duten gaitasunaren bidez, nagusiki nazioarteko lankidetzarako beste biderik ez du-ten enpresetan.

2.2.3 Palanka dinamikoak: inklusioa, parte hartze gisa

Lurraldeko eragileek palanka dinamikoetan politiken eta estrategien bidez eragin dezakete, ekonomia eta enpresa emaitzak eta ongizate emaitzak hobetzeko. Sei pa-lanka dinamikoetatik (kapital naturala, kapital fisikoa, finantzaketa, giza kapitala, ja-kintza, eta gizarte eta erakunde kapitala), bik dute loturarik estuena pertsonekin eta pertsonen arteko harremanekin: giza kapitalak eta gizarte eta erakunde kapitalak. Bi horiek aztertuko ditugu txosten honetan, inklusioaren ikuspegitik (ikus 2-2. taula).

2-2. TAULA Inklusioa giza kapitalaren eta gizarte eta erakunde kapitalaren palanketan

Palanka dinamikoa	Inklusioa, parte hartze gisa
Giza kapitala	Pertsonen prestakuntzaren, ikaskuntzaren eta lan merkatuaren esparruetan parte hartzeko estrategiak garatzea (balio ekonomikoa eta ongizatea sortzen eragina izango dutenak)
Gizarte eta erakunde kapitala	Pertsonen gizartearen dinamiketan parte hartzea erraztuko duten arau sistemak, erakundeak eta antolakundeak garatzea, balio ekonomikoa eta ongizatea sortzen laguntzen duten gizarte elkarreraginak indartuz.

Iturria: Geuk egina.

Orokorrean, beharrezkoa da giza kapitalaren palankan eta gizarte kapitalarenean estrategiak garatu eta abian jartzea, lurralde bateko pertsona guztiek ongizatearen emaitzak eraikitzen parte hartuko dutela bermatzeko. Beraz, bi palanka dinamiko horietan inklusioa parte hartze gisa hartzen dugu. Giza kapitalaren kasuan, adibidez, horrek esan nahi du pertsonen lana, oinarri-oinarrizkoa, eskuratzeko aukera emango dieten mekanismoak abian jartzea, gaikuntza programen bidez. Gizarte kapitalari dagokionez, pertsonen gizarteko hainbat eremutan parte hartzea erraztea izango litza-teke helburua, esate baterako, tituluak homologatuz (unibertsitatekoak zein unibersitateaz bestelakoak), migratzaileak lan merkatuan integratzeko prozesuak arinduz, administrazio egoera irregularrean dauden pertsonen gaikuntza eskainiz (besteak beste, prestakuntzaren bidezko errotzeari lotutako politikak landuz) edo belaunaldien arteko harremanak sustatuz.

Beharrezkoa da giza kapitalaren palankan eta gizarte kapitalarenean estrategiak garatu eta abian jartzea, lurralde bateko pertsona guztiek ongizatearen emaitzak eraikitzen parte hartuko dutela bermatzeko

Illo horretatik, lurralde bateko eragileek (enpresak, gobernuak, ikastetxeak, etab.) adin, genero eta jatorri askotako pertsonen gaitasunak garatzea eta parte hartzea erraztuko duten testuinguruak sortzen eta estrategiak bultzatzen badituzte, eta aniztasun hori modu estrategikoan kudeatzen bada, eragin positiboa izango du berrikuntzan, produktibitatean eta lehiakortasunean, lehen ere esan dugun bezala. Epe labur eta ertainean izan dezaketen eraginagatik, prestakuntza zentroetako eta lan inguruneetako antolaketa berrikuntzako estrategiak nabarmentzen dira, pertsonentzat sorkuntza, parte hartze eta ikaskuntza testuinguruak errazten dituztenak.

Gainera, gobernu maila desberdinetan pertsonen ikasteko eta ekarpen handiagoa egiteko aukera ematen dieten lan inguruneak sortzen badira, elkarlaneko gobernantzak sortuko dira eta horrek lehiakortasun inklusiboagoa lortzen lagunduko du. Lehiakortasunari buruzko 2023ko Txostenean argudiatu zen bezala, elkarlaneko gobernantza horrek garrantzi berezia du lehiakortasun jasangarrirako trantsizioa bizkortzeko (Orkestra, 2023). Eta, oro har, parte hartze eta gobernantza hori errazten eta aktibatzen bada, pertsonak guztiak, beren ezaugarriak (adina, jatorria, generoa...) edozein izanik ere, kontuan hartuta, ongizatea helburu duen lehiakortasun inklusibo sortzeko prozesu sendoagoa bultzatuko da.

Enpresetan eta administrazioetan lan egiteko modu horiei esker, konfiantza eta harremanetako kapital handiagoa sortzen da adin, genero eta jatorri desberdinetako pertsonen artean, baita pertsonen eta erakunde edo antolakundeen artean ere, eta, horrela, lurraldearen gizarte eta erakunde kapitala sendotzen da. Eremu hori indartzen jarraitzeko, beharrezkoa da aztertzea zer erakunde edo kolektibo geratu diren elkarlaneko gobernantza prozesuetatik kanpo, eta zer mekanismo behar diren prozesu horietan integratzeko.

2.2.4 Egiturazko ingurunea

Azkenik, lehiakortasunaren eta ongizatearen emaitzak lurralde baten egiturazko ingurunearen ezaugarriek baldintzatzen dituzte. Egiturazko ezaugarri horiek, neurri handi batean, aurrez zehaztuta daude, eta aldatzen zailagoak dira. Geodemografiari, ekonomia eta enpresa egiturari eta erakunde eta balioei lotutako ezaugarriak dira. Egiturazko ezaugarrien hiru multzo horietatik, inklusioa gehien baldintzatzen dutenak demografikoak eta balioei lotutakoak dira, pertsonen eta pertsona kolektiboen egiten baitiete erreferentzia.

Lurralde baten egitura demografikoaren osaerak eta bilakaerak, bai adinaren arabera, bai jatorriaren arabera, lehiakortasuna eta ongizatea baldintzatzen ditu, eta lurraldean inklusioarekin lotutako hainbat erronka sortzen ditu

Lurralde baten egitura demografikoaren osaerak eta bilakaerak, bai adinaren arabera, bai jatorriaren arabera, lehiakortasuna eta ongizatea baldintzatzen ditu, eta lurraldean inklusioarekin lotutako hainbat erronka sortzen ditu. Gizarte zahartu batek, jaiotza tasa txikien eta bizi itxaropen handien ondorioz mendekotasun tasa handiak dituenak, esate baterako, erronka handiak ditu, besteak beste, honakoak: ongizate estatuaren jasagarritasuna, ongizatearen dimentsioak adin desberdinetako pertsonengana iristea, belaunaldien arteko ordezkapena edo adin desberdinetako kolektiboen inklusioa lan merkatuan. Era berean, jatorriari begiratuta, aniztasun handiagoa duen gizarte batek, pertsona horiek lan egiteko adinean kontzentratzen direla jakinik, aukera gehiago ditu lurraldean lehiakortasuna eta ongizatea sortzeko, eta pertsona guztiak gizartean integratzeko eta lan merkatuan eta gizarteko beste dinamika batzuetan parte hartzeko.

Baina ezaugarri demografikoek ez ezik, adin eta jatorri desberdinetako pertsonen balioek ere eragina dute, pertsonen jarrerak balioek baldintzatzen baitituzte. Konpromisoak, lanaren balioak edo ahaleginak gizartean balioa sortzeko jarrera proaktiboa sustatzen dute (bai merkaturako eta bai merkatutik kanpo). Balio horiek funtsezkoak dira inklusiorako, parte hartzearen ikuspegitik.

Euskal Autonomia Erkidegoko balioen bilakaerari buruzko azterketa batean, Izulainek (2024) ondorioztatzen du EAEn bizi diren pertsonen uste dutela aukeratzeko askatasun eta beren bizitzan gaineko kontrol handia dutela, Alemanian gertatzen den bezala. Halaber, korrelazio positiboa ikusten du alde batetik aukeratzeko askatasunaren eta bizitzaren gaineko kontrolaren eta beste aldetik, bizitzarekiko gogobetetasunaren artean (ongizate subjektiboaren adierazlea), literaturan aitortzen den bezala (Graafland, 2023; Inglehart *et al.*, 2008; Verme, 2009). Neurtzeko zailak diren ukiezin azterketa horiek inklusioa ahalduentzearen ikuspegitik lantzen dute. Kapitulu honen sarrerako atalean esan dugun bezala, ahalduentze hori pertsonekin lankidetzan landu behar da. Ezaugarri horiek oso garrantzitsuak dira lehiakortasunerako eta ongizaterako, eta eskuratzeko zailak dira, baina esparruaren dimentsioetan islatzen dira.

Azkenik, ezin dugu ahanzi gure lurraldea testuinguru globalean garatzen dela eta testuinguru horrek eragiten digula, baina, aldi berean, guk ere eragin dezakegula hartan. Horrela, gure esparruko nazioarteko loturaren zeharkako ardatzean ere eragina du inklusioak eta, beraz, inklusioaren begirada hori eraman beharko dugu beste lurralde batzuetan egiten ditugun jarduerak guztietara.

2.3 Laburpena

Kapitulu honetan gizarte inklusioaren kontzeptua aztertu dugu, inklusioaren eta lurralde lehiakortasunaren eta ongizatearen arteko harremanetan sakontzeko. Gure ustez, lehiakortasun inklusiboa eta ongizate inklusiboa txanpon beraren bi aldeak dira. Ongizatearen emaitzak inklusiboak izango direla ziurtatu nahi badugu, lehiakortasunaren azpian dauden prozesuen inklusioa sustatu beharko dugu, eta alderantziz.

Gizarte inklusioari buruzko hiru hurbilketa ideologiko aplikatu ditugu —sarbidea, parte hartzea eta ahalduentzea— ongizatea helburu duen lurralde lehiakortasunerako gure esparruan (ikus 2-2. irudia). Inklusioa, sarbide gisa, ongizatearen emaitzekin lotzen da; inklusioa, parte hartze gisa, berriz, lehiakortasunerako palanka dinamikoekin

Lehiakortasun inklusiboa eta ongizate inklusiboa txanpon beraren bi aldeak dira, eta ezin dira bata bestea gabe ulertu

lotzen da, batez ere giza kapitalarekin eta gizarte kapitalarekin. Ahalduntzea esparruaren zati zehatz batekin lotzea zailagoa da, baina pertsonen ongizate subjektiboaren dimentsioarekin eta palanka dinamikoen azpian dauden eta palankak harremanetan jartzen dituzten gobernantza prozesuekin lotzen da.

2-2. IRUDIA Inklusioa, parte hartze eta sarbide gisa



Iturria: Geuk egina.

Gogoeta kontzeptual honek hurrengo kapituluaren egingo dugun analisiaren oinarriak jartzen ditu. Dagoeneko aipatu ditugun hiru ezaugarri demografikoak aztertuko ditugu (pertsonen adina, jatorria eta generoa), ezaugarri horiek gure testuinguruan erroka eta aukera kritikoak sortzen baitituzte eta, elkarri gainezkatuta, askotariko desberdintasunak edo abantailak sortzen baitituzte.

3

Lehiakortasuna eta ongizatea helburu duen inklusioa Euskal Autonomia Erkidegoan

Inklusioa lehiakortasunaren eta ongizatearen motor gisa aztertu nahi badugu, funtsezkoa da parte hartzearen ikuspegia (prozesu ikuspegia) eta sarbidearen ikuspegia lantzea, 2. kapituluaren aurkeztu dugun esparru analitikoaren arabera. Prozesuaren ikuspegiari heltzeko, inklusioa gure lehiakortasun esparruko palanka dinamikoe-tan aztertuko dugu, bereziki, giza kapitalaren palankan eta gizarte kapitalarenean, bi bide horiek funtsezkoak baitira lurraldearen lehiakortasuna eta ongizatea sortzen pertsona guztiek parte hartuko dutela bermatzeko. Kapitulu honetako lehen atalean Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren egituraren berrikuste laburra egin ondoren, bigarren atalean giza kapitalaren palanka aztertuko dugu eta hirugarrenean, berriz, gizarte kapitalaren palanka. Bestalde, laugarren atalak ongizatearen emaitzak noraino iristen diren aztertzen du, bereziki, bizitzarekiko gogobetetasuna, bizitza materiala, enplegua, gizarte bizitza eta osasuna.¹⁹

Gure lanaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko inklusioaren gaur egungo egoera aztertzea; horregatik, ez dugu bilakaera aztertuko eta ez dugu erreferentziazko eskualdeekiko edo Europar Batasuneko batezbestekoarekiko konparaziorik egingo. Analisi horretarako aldagai egokienak identifikatzeko hainbat estatistika iturritako inkestak aztertu ditugu, inklusioa lehiakortasunerako palanketan eta ongizatearen dimentsioetan neurtzeko. Datuak hautatzeko orduan, ziurtatu nahi izan da datuak eskuragarri daudela hiru ezaugarri demografikoen araberrako analisia egiteko: adina, generoa eta jatorria.

3.1 Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria, adinaren, generoaren eta jatorriaren arabera


Fenomeno demografikoak pixkanaka bilakatzen dira, baina, urteek aurrera egin ahala, aldaketa sortzen dituzte bai udalerrien tamainan eta bai biztanleriaren osaeran

Fenomeno demografikoak pixkanaka bilakatzen dira, baina, urteek aurrera egin ahala, aldaketa sortzen dituzte bai udalerrien tamainan eta bai biztanleriaren osae-

¹⁹ Giza kapitalaren eta ongizatearen dimentsio batzuen (bereziki, ikaskuntza eta enplegua) artean nolabaiteko gainjartzea dagoenez, kapitulu honetan ikaskuntzari eta prestakuntzari lotutako elementu guztiak giza kapitalaren palankaren azterketan biltzea hautatu dugu, uste baitugu elementu horiek funtsezkoak direla norberaren ongizatea eta lurralde lehiakortasun hobea sortuko duen enplegu bat lortzea errazteko. Enpleguari dagokionez, aldagai subjektiboenak, hala nola gogobetetasuna, inklusioa ongizaterako sarbide gisa aztertzean hartuko ditugu kontuan, eta alderdi objektiboenak berriz, giza kapitalaren atalean landuko dira. Ingurumenaren dimentsioaren azterketa ez da analisi honetan sartu, ingurumena birsortu, zaindu eta behar bezala kudeatzeari lotutako erronka Lehiakortasunari buruzko 2023ko Txostenean (Orkestra, 2023) zabal aztertu zelako.

ran. 3-1. grafikoan ikus daiteke 1970eko hamarkadaren hasieran Euskal Autonomia Erkidegoan 2 milioi pertsona baino gutxiago bizi ginela eta biztanleria oso gaztea zela: soilik % 8 zen 65 urtetik gorakoa eta % 30 zen 0 eta 15 urte artekoa. Biztanleria nabarmen hazi zen 1970eko hamarkadan, baina adinaren arabera egitura ez zen aldatu, oso antzekoa zen. 1980ko hamarkadatik aurrera, jaiotza tasaren beherakadak eta krisi ekonomikoak migrazio saldo positiboak geldiarazi zituzten eta guztizko biztanleria pixka bat jaitsi zen, XX. mendearen amaierara arte. Aldi horretan, heriotza tasaren jaitsierari eta bizi itxaropenaren igoerari esker, 65 urtetik gorako pertsonen biztanleria handituz joan zen eta pisu handiagoa hartu zuen biztanleria osoan. Zehazki, mendearen amaieran biztanleriaren % 17 zen. Urte horietan, gazteen ehunekoa balio minimoetan zegoen (% 13) eta lan egiteko adinean zegoen biztanleria, berriz, balio handienetan (% 70). Orduz geroztik, gazteen ehunekoa nahiko egonkorra izan da, biztanleria osoaren % 13-14 ingurukoa. Baina aurreko hamarkadetako jaiotza tasa txikiak ondorioak izan dituzte lan egiteko adinean dagoen biztanlerian. Horregatik, biztanleria horrek behera egin du azken bi hamarkadetan: mende honetan, behera egin du bai termino absolutuetan eta bai erlatiboetan, eta, orain, biztanleriaren % 60 baino ez da. Beherakada horren aurrean, adineko biztanleriaren pisua gero eta handiagoa da.

3-1. GRAFIKOA Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren bilakaera, adin talde handien arabera (mila pertsona, 1971-2023)



Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estadística Institutuaren Biztanleriaren estatistika jarraitua erabilia.

2024an, 1970eko hamarkadaren hasierako biztanleriaz oso bestelakoa dugu, askoz ere zaharragoa. Hala, lan egiteko adinean dauden pertsonen proportzioa antzekoa bada ere, adinekoen kolektibo handiagoak ordezkatu du gazteen hasierako ehuneko handia. Pixka bat aurrerago ikusiko dugun bezala, lan egiteko adinean dauden pertsonen egitura bera ere aldatu egin da.

Adinaren arabera egituraren ikusten diren aldaketaren arrazoi bakarrak ez dira jaiotza tasaren eta heriotza tasaren aldaketak izan. Migrazio fluxuek ere zerikusi handia izan dute eta biztanleriaren egitura aldatzen ari dira, funtsezko beste alderdi batean: pertsonen jatorria. Euskal Autonomia Erkidegoan migrazio fluxuak betidanik izan diren arren, mende honen hasierara arte gurerara iristen ziren pertsonak batez ere Espainiako gainerako erkidegoetakoak ziren. 3-2. grafikoan ikus daitekeen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren 2 milioi pertsona baino gehiagotatik % 2 baino ez


2024an, 1970eko hamarkadaren hasierako biztanleriaz oso bestelakoa dugu, askoz ere zaharragoa

ziren atzerrian jaiotakoak. Orduz geroztik, Espainian jaio diren pertsonen kopurua 2 milioitik behera jaitsi da eta biztanleriak gora egin du, atzerriko jatorriko pertsonen kopurua etengabe handitu delako. 2023an, biztanleria osoaren % 12 dira.

Atzeritar jatorriko pertsonak EAEko biztanleriaren % 12 dira jada, eta horietako % 62 duela 10 urte baino gehiago iritsi zen lehen aldiz gure lurraldera

Pertsona horietako batzuk duela gutxi iritsi dira gurera, baina beste batzuk dagoe-neko denbora luzea daramate gure lurraldean. Atzeritar jatorriko biztanleen estatistikaren arabera, atzeritar jatorriko biztanleen % 8 orain dela 4 urte baino gutxiago iritsi zen lehen aldiz Euskal Autonomia Erkidegora, eta % 62 orain dela 10 urte baino gehiago etorria da. Atzeritar jatorriko hamar pertsonatik bederatzik Espainiako nazionalitatea du, bizileku iraunkorra du bertan edo aldi bateko bizilekua eta lan baita. Hala eta guztiz ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, lan merkatuan duten presentzia ez da Espainian jaiotakoen berdina

3-2. GRAFIKOA Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren bilakaera, jatorriaren arabera (mila pertsona, 2002-2023)




Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estatistika Institutuaren Biztanleriaren estatistika jarraitua erabilia.

Atzeritar jatorriko 10 pertsona hartuta, honela banatzen dira: 3 jatorri amerikarreko emakumeak dira; 2, jatorri bereko gizonak; 2, munduko gainerako herrialdeetako gizonak; 1, jatorri bereko emakumea; 1 jatorri europarreko gizona eta azkena, jatorri europarreko emakumea

Jatorriari begiratuz gero, atzeritar jatorriko pertsonen profila ere aldatzen ari da (3-3. grafikoa). Mende honen hasieran, atzeritarren % 35 inguru Europatik zetorren eta % 45 Amerikatik. (emakumeak gizonak baino gehiago). Azken hamarkadan, Europako pertsonen fluxua eten egin da eta, horregatik, pisua galtzen doa atzerriko gutzitzaioan. Gaur egun % 18aren inguruan dago. Atzerriko kolektiboen artean, Amerikatik etorritakoak dira nagusiki: atzeritar jatorriko pertsonen erdia baino gehiago dira. Horien artean, emakumeek pisu handia dute. Era berean, gora egin du munduko gainerako herrialdeetatik etorritako pertsonen kopuruak. Kasu honetan handiagoa da gizonen presentzia emakumeena baino. Gaur egun, atzeritar jatorriko 10 pertsonatik 3 inguru jatorri amerikarreko emakumeak dira; 2, jatorri bereko gizonak; beste 2, munduko gainerako herrialdeetako gizonak (batez ere Magrebekoak); eta beste hiruak, munduko beste herrialde batzuetako emakume bat eta jatorri europarreko gizon bat eta emakume bat izango lirateke.


3-3. GRAFIKOA Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren bilakaera, jatorriaren eta sexuaren arabera (2002-2023)



Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estatistika Institutuaren Biztanleriaren estatistika jarraituak erabilia.

Adinaren arabera ere nabari da biztanleriaren jatorriaren aldaketa. 3-4. grafikoan ikus daitezkeen bezala, biztanleria estratuak gorantz mugitu dira azken hogeitaz urteetan eta, horregatik, 65 urtetik gorako pertsonen ehunekoa handiagoa iza-

3-4. GRAFIKOA Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren piramideak (2002, 2023)



Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estatistika Institutuko Biztanleriaren estatistika jarraitua erabilia.

Bizi dugun aldaketa demografikoak dakarren erronka garrantzitsuenetako bat belaunaldien arteko erreleboa da

Inkestatutako enpresek, tamaina edozein delarik ere, ez dute belaunaldi ordezkapenari heltzeko plan edo estrategiarik

Belaunaldi ordezkapenerako politikak indartu behar dira, laneratzea bultzatuz, lan egiteko adinean dauden pertsona guztiei prestakuntza eskaintzearen bidez

teaz gainera, laneko adinean dagoen biztanleria ere tarte altuenetan kontzentratzen da neurri handiagoan. Zalantzarik gabe, hori erronka handia da enpresen belaunaldien arteko erreleborako (ikus 3-1. laukia). Mendearen hasieran, ia ez zen hautematen atzeritar jatorriko biztanleria, eta, orain, biztanleriaren piramidearen erdi-erdian dago eta lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren zati handi bat, % 17, hartzen du.

3-1. LAUKIA Belaunaldien arteko erreleboa eta adinaren kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoan

Bizi dugun aldaketa demografikoak dakarren erronka garrantzitsuenetako bat belaunaldien arteko erreleboa da. Euskal enpresak gai honetan nola dauden jakiteko, 2022an, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailarekin lankidetzan, Orkestrak ikerketa bat garatu zuen. Euskal Autonomia Erkidegoko ia 1000 enpresari inkesta bat egin genien, honako helburu hauekin: (i) belaunaldien arteko erreleboari buruz duten hautematea ezagutzea, (ii) datozen 5 eta 10 urteetan eraginik handiena izango duten enpresetako eta sektoreetako ordezkapenen behar zehatzak identifikatzea, eta (iii) belaunaldi ordezkapena egin ahal izateko interesgarriak izan daitezkeen tresnak identifikatzea.

Belaunaldi ordezkapenaren hurbilketa estrategikoari dagokionez, azterketaren emaitzetako bat da elkarrizketatutako enpresek adierazi dutela ez dutela belaunaldi ordezkapenari heltzeko planik edo estrategiarik, enpresaren tamaina edozein dela ere. Era berean, azterketan parte hartu duten enpresek emandako erantzunak xehetasunez aztertuz, datozen urteetan eskari handieneko lanbideak zein izango diren identifikatu ahal izan da. Lanbide horietako batzuk kualifikatuak dira (zientzietako eta ingeniarietako profesionalak eta teknikariak, esate baterako); beste batzuk, ordea, kualifikazio txikiagokoak (adibidez, garbitzaileak edo zaintza pertsonaleko langileak).

Emaitza horietan oinarrituta, lau mezu dira garrantzitsuak:

- **Estrategia inklusiboak:** Beharrezkoa da euskal enpresek belaunaldi ordezkapeneko estrategia inklusiboak eta adin askotakoak garatzeko lan egitea; estrategia horien bidez gaitasun digital eta kognitibo kritikoak, trebetasun sozial eta emozionalak, moldagarritasuna eta erresilientzia lantzeko.
- **Adinaren kudeaketa:** Lanpostuetan adinaren kudeaketa bultzatu behar da, pertsonen lanpostuan geratzeko eta haietan hazteko aukerak emanez.
- **Laneratzea:** Belaunaldi ordezkapenerako politikak indartu behar dira, laneratzea bultzatuz, Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiteko adinean dauden pertsona guztiei —lanik gabe daudenak, iraupen luzeko langabetuak, 55 urtetik gorako pertsonak, migratzaileak eta emakumeak— prestakuntza eskainiz, ikuspegi intersektoriala kontuan hartuta.
- **Gizarte elkarrizketa:** Erronka konplexu horri osotasunean heltzeko, funtsezkoa da belaunaldien ordezkapen inklusiboaren inguruko gizarte elkarrizketa sortzeko lan egitea.

Iturria: Geuk egina, dokumentu hau erabilita: https://bideoak2.euskadi.eus/2023/03/29/news_84746/Orkestra_-_encuesta_reemplazo_generacional_ES.pdf

3.2 Giza kapitala: lehiakortasun inklusiborako palanka

Adinak, generoak eta jaiolekuak pertsonen enplegarritasuna baldintzatzen dute, eta eragin handia dute lan merkatuan sartzeko edo prestakuntza jasotzen jarraitzeko erabakietan, ikasketak edo enplegua lortzeko aukeretan, eta enpleguaren baldintzetan. Horiek guztiak funtsezko elementuak dira lehiakortasunari lotutako inklusioa

lantzeko. Horregatik, atal honetan lan merkatuko parte hartzearen, lan baldintzen eta ikasketa mailaren analisi zehatza egingo dugu, adinaren, generoaren eta jatorriaren arabera.


3.2.1 Inklusioa, lan merkatuan parte hartzea

3-5. grafikoan ikus daitekeen bezala, emakumeen jarduerarik ezaren tasa gizonena baino handiagoa izaten da (Europako beste herrialde batzuetan jaio diren eta gazteenen kasuan izan ezik). Lanik gabe dauden pertsonen ehunekoetan ez dago alde handirik bi sexuen artean; aldea puntu bakarrekoa da (Amerikatik etorritako emakumeen eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritako gizonen kasuan izan ezik). Emakume landunen ehunekoa gizonena baino txikiagoa izatearen arrazoia ez da, beraz, lan bila dabiltzanek lanik ez aurkitzea, baizik eta, aurrerago aztertuko ditugun arrazoiak direla eta, pertsona horiek lan merkatuan hain aktibo ez izatea. Hori bereziki deigarria da munduko gainerako herrialdeetan jaioetako emakumeen kasuan, % 61,4k ez baitu lan merkatuan parte hartzen.

Emakume landunen ehunekoa gizonena baino txikiagoa izatearen arrazoia ez da lan bila dabiltzanek lanik ez aurkitzea, baizik eta pertsona horiek lan merkatuan hain aktibo ez izatea

Jatorriari dagokionez, enplegu tasak txikiagoak dira atzerrian jaioetako artean Espainian jaioetako artean baino, neurri batean langabeen ehuneko handiagoa dagoelako (lana bilatzen ari direnak, baina aurkitzen ez dutenak) eta, kasu batzuetan, jarduerarik ezaren tasa (ez dute enplegurik eta ez dira modu aktiboan bilatzen ari) ere Espainian jaioetakoena baino handiagoa delako. Horixe gertatzen da Europako gainerako herrialdeetan jaioetako gizonekin eta munduko gainerako herrialdeetan jaioetakoekin, baina ez Amerikan jaioetakoekin, haien jarduera tasa ia %85 baita eta Espainian jaioetakoena, berriaz, %80,4. Kontinente horretatik etorritako emakumeen jarduera tasa portzentajezko 3 puntu handiagoa da, halaber, Espainian jaioetakoena baino, eta portzentajezko 4,3 puntu handiagoa, Europako gainerako herrialdeetan jaioetakoena baino.

3-5. GRAFIKOA Biztanleriaren lan egoera Euskal Autonomia Erkidegoan (16-64 urte arteko biztanleriaren %, 2023)




Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estatistika Institutuko Biztanleria aktiboaren inkestako datuak erabilia.

Lan egoerari adinaren arabera begiratzen badiogu, ikusiko dugu gizonen eta emakumeen enplegu tasa handiagoa dela 35-55 urteko adin taldean, proportzio txikiagoa baitira bai langabetuak eta bai, nagusiki, aktiboak ez direnak. Nabarmentzekoa da gazteen artean ez dagoela alde handirik gizonen eta emakumeen artean; aldeak nabariagoak dira beste adin taldeetan, bereziki emakumeen jarduerarik ezaren tasak gizonenak baino askoz ere handiagoak direlako.

Enplegua bilatu nahi ez duten pertsona ez-aktiboaren arrazoiak askotarikoak dira, eta aldatu egiten dira aztertutako kolektiboaren arabera

3-6. grafikoan ikus daitekeen bezala, enplegua bilatu nahi ez duten pertsona ez-aktiboaren arrazoiak askotarikoak dira, eta aldatu egiten dira aztertutako kolektiboaren arabera. Zaintza lanei lotutako aldeak nabarmentzen dira, emakumeen % 26,6k aipatzen baitituzte eta gizonen % 2,5k besterik ez. Jatorriaren arabera eta adinaren arabera bereizita, bietan, emakumeen kasuan arrazoi horrek gizonen kasuan baino neurri handiagoan mugatzen du lan merkatuan sartzea, baita gazteenen kasuan ere. Bereiziki esanguratsua da munduko gainerako herrialdeetan jaiotako emakumeen artean, horietan ehunekoa % 47,7ra igotzen baita. Beraz, zaintzaileen rol tradizionalak eragiten dute emakume talde hori lan ingurunetik kanpo egotea. Adinaren araberrako azterketan ikusten da, espero zitekeen bezala, gazteenen artean lana ez bilatzeko arrazoi nagusia oraindik prestakuntza jasotzen ari direla dela. Erdiko adin tartean, gaixotasuna da gizonentzat faktore mugatzaile nagusia eta emakumeetan, berriz, dagoeneko aipatu dugun zaintzaz gainera, gaixotasuna eta zehazten ez diren beste arrazoi batzuk aipatzen dira. Adineko pertsonen artean, erretiroak hartzen du pisua, baina hori batez ere gizonen artean gertatzen da, eta askoz ere mugatuagoa da emakumeen kasuan.

3-6. GRAFIKOA Pertsona ez-aktiboek enplegurik ez bilatzeko arrazoiak (16-64 urte arteko biztanleriaren %, 2023)



Oharra: Gaixotasuna norberaren gaixotasunari edo ezintasunari dagokio; zaintzak barne hartzen du seme-alabak edo beste senide batzuk zaintzea, bai eta bestelako familia arrazoiak ere.

Iturria: Geuk egin, INE-Espainiako Estatistika Institututuko Biztanleria aktiboaren inkestako datuak erabilia.

Lanik gabe daudenei dagokionez, Atzeritar jatorriko biztanleen estatistikak kolektibo honek lana aurkitzeko orduan hautematen dituen zailtasunen inguruko ideia batzuk eskaintzen dizkigu. Informazio horrek agerian uzte du etorkinek lan merkatuan bizi duten egiturazko diskriminazioa (3-1. taula). Kasu guztietan, lan esperientziarik ez edukitzea, adina eta ikasketa maila dira zailtasun nabarmenenak, eta elkarri lotutako elementuak izan ohi dira, gainera. Munduko gainerako herrialdeetan eta Amerikan jaiotako pertsonen kasuan, hizkuntza ez jakitea ere eragozpena da. Horri lege egoera gehitu behar zaio, bereziki garrantzitsua baita Amerikan jaio zirenen kasuan. Europako pertsonentzat generoa ez da lana aurkitzeko oztopo, baina oztopotzat hartzen dute Amerikako pertsonen ehuneko (% 1) eta munduko gainerako herrialdeetako pertsonen (% 1.3) ehuneko txiki batek.

Atzeritar jatorriko pertsonak lana aurkitzeko dituzten zailtasunen artean daude lan esperientziarik ez edukitzea, adina eta ikasketa maila

3-1. TAULA Enplegua aurkitzeko zailtasunak (16-66 urte arteko biztanleria langabea, 2023)

	Europa	Amerika	Munduko gainerako herrialdeak
Heziketa maila	23.0	19.1	31.2
Tokiko hizkuntzen maila	9.2	17.9	22.7
Lan esperientzia	26.1	23.5	27.9
Soldata desiragarria	5.1	4.4	3.8
Familia kargak egotea	7.8	7.0	6.0
Jatorrizko herrialdea	8.0	9.5	21.2
Sexua	0.0	1.0	1.3
Adina	19.8	18.8	15.2
Muga fisikoak	4.1	3.9	8.5
Legezko egoera	0.0	29.5	16.9

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren Atzeritar jatorriko biztanleen estatistika erabilia.


Pertsonak nahiko luketen enplegu motari dagokionez, Eustaten Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkestako datuek adierazten dute bai emakume eta bai gizon landunek lehentasunez sektore publikoan lan egin nahi dutela, bereziki emakumeek (% 67.7 eta % 51.5, hurrenez hurren). Bestalde, gizon landunek emakume landunek baino nahiago dute autonomoak izan (gizonen % 19.3k eta emakumeen % 11.8k). Hala ere, Biztanleria aktiboaren inkestako datuek erakusten digute landun gehienak sektore pribatuko soldatapekoak direla, lan egoera, jatorria edo adina edozein izanik ere (3-7. grafikoa).

Aipatzen dituzten lehentasunekin bat dator sektore publikoko soldatapekoen artean emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa dela eta gizonen ehuneko handiagoa dela autonomoa edo enpresaburua. Batez ere Europako gainerako herrialdeetatik datozen gizonak nabarmentzen dira bi kategorietan, eta autonomoen kasuan, Europako gainerako herrialdeetatik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorritako gizonak eta Europako gainerako herrialdeetatik etorritako emakumeak. Kasu horietan, autonomoen ehuneko handia beharrari lotuta egon daiteke, egoera hori benetan nahi izateari baino gehiago. Eta, horrekin batera, beste arrazoi

16-34 urte arteko pertsona gehienak sektore pribatuko soldatapekoak dira, eta ehuneko hori pixkanaka murrizten da hurrengo adin taldeetan, haietan enpresaburu, autonomo eta soldatapeko publiko gehiago baitaude

bat izan daiteke beren trebetasunak eta esperientziak aplikatzeko aukera ematen diela. Adinari dagokionez, ikusten da 16-34 urteko pertsona gehienak sektore pribatuko soldatapekoak direla, eta ehuneko hori pixkanaka murrizten da hurrengo adin taldeetan, haietan enpresaburu, autonomo eta soldatapeko publiko gehiago baitaude.

3-7. GRAFIKOA Landunen egoera profesionala (% , 2023)



Oharra: Enpresaburuak soldatapekoak dituen enpresaburua adierazten du; autonomoak, langile independentea edo soldatapekorik gabeko enpresaburua; beste batzuk aukeraren barruan sartzen dira kooperatibetako bazkideak, familia enpresan edo negozioan laguntzen ari direnak, eta beste egoera batzuk.

Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estatistika Institutuko Biztanleria aktiboaren inkestako datuak erabilita.

3.2.2 Inklusioa eta lan baldintzak

Gizonek nagusiki industrian egiten dute lan eta emakumeek, berriz, administrazio publikoan, hezkuntzan eta osasunean

Lan baldintzak aldatu egiten dira sektore batzuetatik besteetara, eta 3-2. taulan ikus daitekeen bezala, jatorri eta adin desberdinetako gizonak eta emakumeak ez dira proportzio berean banatzen jardueren artean. Adin guztietan, gizonek nagusiki industrian egiten dute lan eta emakumeek, berriz, administrazio publikoan, hezkuntzan eta osasunean, bereziki, adin handieneko emakumeek (%46.3 ari da sektore horretan lanean). Industria enpresetako parekotasunik ezak emakumeen lan baldintzetan ez ezik, sektore horretako enpresen lehiakortasunean ere eragina du. Hain zuzen ere, horixe landu dugu 3-2. taula.

Bi sexuetan, merkataritza, garraio eta ostalaritza sektorea dago bigarren tokian. Hala ere, horrek Espainian jaiotako pertsonen errealitatea deskribatzen du nagusiki. Merkataritza, garraio eta ostalaritzaren nagusitasuna agerikoa da edozein jatorriko pertsonetan. Bestalde, atzerrian jaiotako gizonek, eta bereziki munduko gainerako herrialdeetan jaiotakoek, Espainian jaiotakoek baino presentzia handiagoa dute erai-kuntzan. Azken horiek industrian ere presentzia nahiko handia dute. Hala ere, Amerikako eta Europako gainerako herrialdeetako gizonek presentzia txikiagoa dute in-

dustrian eta handiagoa merkataritzan, garraioan eta ostalaritzan. Atzerrian jaiotako emakumeen kasuan, beste zerbitzu batzuetako enplegua nabarmentzen da, bereziki amerikar jatorriko emakumeen artean, % 42.8ra iristen baita. Kategoria horretan daude, hain zuzen ere, etxeko langileak. Atzerrian jaiotako pertsonen presentzia txikiagoa dute jarduera profesionalean eta zerbitzu osagarrietan, baita administrazio publikoan, hezkuntzan eta osasunean ere. Sektore banaketa horren eraginez, atzerriarren lan baldintzak Espainian jaiotakoenak baino okerragoak dira, bereziki emakumeetan.

Sektore banaketaren eraginez, atzerriarren lan baldintzak Espainian jaiotakoenak baino okerragoak dira, bereziki emakumeetan

3-2. TAULA Biztanleria landuna, sektorearen arabera (% , 2023)

Jatorria	Gizonak				Emakumeak			
	Espainia	Europako gainerako herrialdeak	Amerika	Munduko gainerako herrialdeak	Espainia	Europako gainerako herrialdeak	Amerika	Munduko gainerako herrialdeak
Nekazaritza eta abeltzaintza	1.3	5.4	3.2	0.8	0.7	0.0	0.0	0.0
Industria	32.7	16.8	11.0	26.0	9.5	9.7	4.9	0.0
Eraikuntza	7.1	20.7	18.9	38.3	1.9	0.0	0.5	0.0
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	20.9	30.0	44.1	24.9	20.2	31.5	31.2	64.9
IT, finantzak eta higiezinak	7.4	9.1	2.8	1.2	5.9	0.0	1.9	0.0
Jarduera profesionalak, zientifikoak, teknikoak eta administratiboak	9.5	7.2	5.9	2.2	14.5	6.7	9.4	6.2
Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna	17.8	10.8	5.5	3.8	40.0	30.0	9.3	6.7
Bestelako zerbitzuak	3.3	0.0	8.6	2.7	7.5	22.2	42.8	22.2

Adina	Gizonak			Emakumeak		
	16-34	35-55	56-64	16-34	35-55	56-64
Nekazaritza eta abeltzaintza	0.6	1.4	2.7	0.0	0.5	1.5
Industria	30.4	32.6	24.5	8.3	10.1	5.7
Eraikuntza	6.6	9.3	13.1	1.1	2.0	1.2
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	25.3	21.6	24.2	27.0	21.5	19.5
IT, finantzak eta higiezinak	8.0	7.7	3.4	5.8	5.9	2.3
Jarduera profesionalak, zientifikoak, teknikoak eta administratiboak	7.9	8.3	11.9	11.5	14.3	13.9
Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna	15.7	15.7	18.4	35.1	33.2	46.3
Bestelako zerbitzuak	5.4	3.4	1.9	11.3	12.4	9.7

Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estatistika Institutuko Biztanleria aktiboaren inkestako datuak erabilia.

SPRIren *Impacto de la mujer en la competitividad industrial/Emakumeen inpaktua lehiakortasun industrialean* azterlanak genero berdintasunaren eta enpresen lehiakortasunaren arteko harremana aztertzen du, EAEko industria sektorean

3-2. LAUKIA Emakumea, industria eta nazioartekotzea

Genero berdintasuna funtsezko elementua da gure lurraldeko industria enpresen eta nazioartekotuen lehiakortasuna bermatzeko. 2020az geroztik, SPRI *World Manufacturing Foundation* erakundeak sustatutako *Women in Manufacturing* aditu taldearen buru da. *World Manufacturing Foundation* erakundeak Milanen du egoitza eta industria kultura mundu osora zabaltzea du helburu. Taldearen emaitza berrienetako bat *Impacto de la mujer en la competitividad industrial/Emakumeen inpaktua lehiakortasun industrialean* (Spri, 2023) azterlana da. Genero berdintasunaren eta enpresen lehiakortasunaren arteko harremana aztertzen du, EAEko industria sektorean. Emakumeek industrian duten presentziari buruzko datu kezkarriak ikusita, SPRIk lan hori egitea erabaki zuen, UNIDOk (Nazio Batuen Industria Garapenerako Erakundea) 2019an nabarmendu zuen premisetako bat egiaztatzeko: genero berdintasuna ez da soilik giza eskubideen kontu bat, baizik eta funtsezkoa da lehiakortasuna eta ekonomiaren susperraldia ziurtatzeko. Azterlanaren emaitza nagusia da zenbat eta berdintasun handiagoa izan enpresetan, handiagoa dela haien lehiakortasuna.

Lehenengo, esparru metodologiko bat garatu zen eta horren barruan, indize konposatu bat diseinatu zen, lehiakortasunaren dimentsioak eta genero berdintasuna hainbat aldagai haztaturen bidez korrelazionatzeko.

LEHIAKORTASUN INDIZEA		BERDINTASUN INDIZEA	
AZPIINDIZEAK	1. Fakturazioaren hazkundera	1. Emakumeen banaketa, sailen arabera	
	2. Enpleguaren hazkundera	2. Emakumeen banaketa, lanpostuen arabera	
	3. Berrikuntza jarduera	3. Berdintasuna hautaketa prozesuetan	
	4. Nazioartekotzea	4. Lana eta familia bateragarri egiteko politikak	
		5. Genero berdintasunarekiko konpromisoa	

Metodologia hori erabiliz, azterlan bat egin zen. Bertan industria sektoreko eta/edo industriari lotutako zerbitzuetako 474 enpresak hartu zuten parte, eta ondorioztatu zen nahiz eta emakumeak sektoreko enpresetako langileen % 21 besterik ez izan, enpresa lehiakorrenak berdinzaleagoak ere badirela eta berdintasunean emaitza hobeak dituztela, aztertutako dimentsioetan.

Gainera, ondorioek erakusten dute genero berdintasun handiena duten enpresak lehiakorragoak direla eta emaitza hobeak dituztela fakturazioari, enpleguari, I+G+Bri eta nazioartekotzeari dagokienez, eta berdintasuna oinarri hartuta lehiakortasuna bultzatzeko gako hauek nabarmentzen dira: (i) segregazio horizontala (sailen arabera); (ii) segregazio bertikala (erantzukizun mailaren arabera); (iii) lana eta bizitza pertsonala bateratzeko neurriak (ordutegi malgutasuna, telelana, zaintza baimenak...); eta (iv) berdintasunerako barne politikak (planak, batzordeak, prestakuntza eta berdintasun protokoloak). Emaitza horiek potentzial handia dute enpresetan genero berdintasunerako politikak ezartzea motibatuzko; izan ere, egiaztatuta dago genero berdintasuna ez dela soilik giza eskubideen kontua, baizik eta funtsezkoa dela lehiakortasuna eta suspertzea ziurtatzeko.

Genero berdintasun handiena duten enpresak lehiakorragoak dira eta emaitza hobeak dituzte fakturazioari, enpleguari, I+G+Bri eta nazioartekotzeari dagokienez

Genero berdintasunak nazioartekotzean duen eragina xehetasun handiagoz aztertzeke, 2024an *Basque Women in Global* (Basque Trade & Investment, SPRI eta Eusko Jaurlaritza, 2024) azterlana aurkeztu zen. Euskal enpresa nazioartekotuaren diagnostiko honek enpresen nazioartekotzearen eta genero berdintasunaren arteko loturak azaltzen ditu, 280 enpresa esportatzailearen lagin bateko datuen analisitik abiatuta. Hauek dira azterlanaren ondorio nagusiak:

- Enpresa nazioartekotuetan, enplegatuen % 29 emakumeak dira; zifra positiboa da, baina genero parekotasunetik urrun dago.
- Batez beste, langileen % 19 ari dira nazioartekotzeari berariaz lotutako lanpostuetan, eta horietatik % 37 emakumeak dira, baina haien presentzia handiagoa da tradizioan emakumeei lotutako beste arlo batzuetan: merkataritza eta marketina (% 42.8), arloko arduraduna (% 40.4) eta finantza eta administrazio sailak (% 58.5).
- Soilik emakumeen % 21ek du erantzukizun posturen bat enpresen nazioartekotzean, eta enpresen tamainak gora egin ahala, ehuneko horrek behera egiten du.
- Enpresa horien % 16k du zuzendari orokor emakumea. Enpresa ertainetan, are txikiagoa da ehuneko hori (% 6). Nazioartekotze maila ere kontuan hartu beharreko faktorea da; izan ere, zenbat eta nazioartekoagoa izan enpresa, orduan eta emakume gutxiago daude zuzendaritza orokorreko arduretan.
- Zuzendaritza taldeetan gizonen presentzia da nagusi, emakumeak soilik % 32 dira, eta ratioak okerrera egiten du, enpresaren tamaina handitu ahala.

Azterlan honek, hortaz, nazioartekotutako enpresetan genero arrakala identifikatzeko aukera ematen du, nagusiki, ardura handieneko lanpostuetan, nazioartekotze arloko langileen egituraren eta baita zuzendaritza orokorrean ere. Hauek izan daitezke arrakala horien arrazoiak eta etorkizun hurbilean landu beharko liratekeen faktoreak: genero estereotipoak bai lanean eta bai kontziliazioan eta zaintzan, enpresa egituraren maskulinizazioa, eta enpresen kulturen berdintasun ikuspegirik ez egotea. Era berean, azterlanak agerian uzten du emakumeen lidergo eredurik ez dagoela eta sektore jakin batzuetan emakumeen profilak falta dira (adibidez, STEM arloan). Faktore horiek *B-WOMENIN Global Meeting & Expanding 2024* programaren bidez ari dira lantzen gaur egun. Programa Basque Trade & Investment erakundeak garatu du, SPRIrekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean. Hitzaldiak eta ekitaldiak antolatzen ditu oztupo horiei buruz gogoeta egiteko eta beren lan ibilbidea nazioartekotzean garatu nahi duten emakumeen arteko harremanak errazteko.

Iturria: SPRI (2023) eta Basque Trade & Investment, SPRI eta Eusko Jaurlaritza (2024).

BTI eta SPRIren *Basque Women in Global* azterlanak genero arrakalak identifikatu ditu nazioartekotutako enpresetan, nagusiki, ardura handieneko lanpostuetan, zuzendaritza orokorrean eta nazioartekotze arloko egituraren

Lan baldintzak sektoreen arabera desberdinak izateak dituen ondorioz gainera, lanbideen arabera desberdintasunak ere hartu behar ditugu kontuan. Hain zuzen ere, 3-3. taulan lanbideak haiek aurrera eramateko behar den trebetasun mailaren arabera antolatu dira. Taula horretan ikus daiteke goiko kategorian (kudeatzaileak, profesionalak eta teknikariak) emakumeen proportzio handiagoa dagoela adin tarte guztietan, 56-64 urte arteko taldean izan ezik. Hala ere, 3-8. grafikoak erakusten digu emakumeak oso sektore gutxitan direla nagusi kudeatzaile, profesional eta teknikarien lanpostuetan: Jarduera profesionalak, zientifikoak, teknikoak eta administratiboak sektorean eta Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasunean. Gainera, kategoria horren analisi desagregatuagoak erakusten digu soilik emakumeen % 3 dagoela zuzendaritzako eta gerentziako lanpostuetan. Gizonezkoetan, berriz, % 4.4 da ehuneko hori. Emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da osasun arloko eta irakaskuntzako teknikarien eta profesional zientifiko eta intelektualen kategorian (sektore horietan, ikusi berri dugun bezala, emakumeak gehiengo dira).

Emakumeak enpresa munduan gero eta gehiago sartzeak ez du ekarri erabakiak hartzen dituzten lanpostuetan emakume gehiago egotea

Bertako jatorriko pertsonak ari dira trebetasun maila handiagoa eskatzen duten lanbideetan lanean eta atzerritar jatorrikoek presentzia handiagoa dute oinarritzko lanbideetan

Emakumeek erabaki postuetan duen presentziari dagokionez, Bizkaiko Emakume Enpresaburu eta Zuzendarien Elkarteak (AED, 2024) azpimarratzen du emakumeak enpresa munduan sartzeak ez duela ekarri erabakiak hartzen dituzten lanpostuetan emakume gehiago egotea. Euskal Autonomia Erkidegoan, emakumeak ez dira enpresetako Administrazio Kontseiluetako postuen laurdenera ere iristen (% 22), eta kopuru hori ez da aldatu azken urtean. Administrazio Kontseiluen buruari dagokionez, enpresetako postu gorena izanik, % 13 besterik ez dago emakumeen eskuetan, eta ez da aldaketa esanguratsurik izan 2021az geroztik. Nabarmentzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko 50 langile edo gehiagoko enpresen % 15ek baino ez duela % 40 edo emakume gehiago Administrazio Kontseiluetan. Tamaina horretako enpresetan, zuzendaritza postuetan dauden emakumeen ehunekoa % 24 inguruan dago, eta emakumeen % 11k baino ez du zuzendari nagusiaren ardura.

Lanbideak adinaren arabera aztertuz gero ikusten da adinaren arabera aldea ez direla gizonen eta emakumeen artekoak bezain esanguratsuak (3-3. taula). Emakumeen kasuan, nabarmentzekoa da adineko emakumeen artean handiagoa dela oinarritzko lanbideetan aritzen direnen ehunekoa, eta hori ez da gertatzen beste adin batzuetako emakumeetan. Horrek, segur aski, lotura izango du emakume gazteenen hezkuntza maila hobetzearekin, aukera ematen baitie trebetasun maila handiagoa eskatzen duten lanbideetan aritzeko.


Azkenik, eta 3-3. taulari begiratuta, ikus daiteke bertako jatorriko pertsonak ari direla trebetasun maila handiagoa eskatzen duten lanbideetan lanean, atzerritar jatorriko pertsonak baino neurri handiagoan. Horrela, Espainian jaioetako pertsonak presentzia handiagoa dute kudeaketako jardueretan eta jarduera profesioaletan eta teknikoetan. Aitzitik, atzerrian jaioetakoek presentzia handiagoa dute oinarritzko lanbideetan. Hori oso argia da emakumeetan, askotan garbiketako edo etxeko langile gisa aritzen baitira.

3-3. TAULA Biztanleria landuna, lanbidearen, generoaren eta jatorriaren arabera (16-64 urte arteko landunen %, 2023)

Jatorria	Gizonak				Emakumeak			
	Espainia	Europako gainerako herrialdeak	Amerika gainerako herrialdeak	Munduko gainerako herrialdeak	Espainia	Europako gainerako herrialdeak	Amerika gainerako herrialdeak	Munduko gainerako herrialdeak
Kudeatzaileak, profesionalak eta teknikariak	41.0	25.8	11.9	4.6	47.2	34.4	12.3	12.1
Administrariak, zerbitzuetako langileak eta salmentetakoak	19.5	8.2	29.8	19.5	39.0	33.9	54.2	51.5
Nekazaritzako eta eskulangintzako langile kualifikatuak	19.9	40.8	25.3	50.6	2.1	1.2	2.5	0.0
Instalazioetako eta makineriako operadoreak, eta muntatzaileak	14.9	23.2	15.3	10.7	2.3	5.0	0.9	0.0
Oinarritzko lanbideak	4.7	0.0	17.4	14.7	9.4	25.6	30.0	36.4

Adina	Gizonak			Emakumeak		
	16-34	35-55	56-64	16-34	35-55	56-64
Kudeatzaileak, profesionalak eta teknikariak	36.2	37.7	37.1	50.8	41.6	36.0
Administrariak, zerbitzuetako langileak eta salmentetakoak	23.7	19.4	17.0	36.6	41.7	42.1
Nekazaritzako eta eskulangintzako langile kualifikatuak	20.7	22.2	22.6	1.9	1.9	2.9
Instalazioetako eta makineriako operadoreak, eta muntatzaileak	13.0	15.2	17.0	1.2	3.0	1.0
Oinarritzko lanbideak	6.4	5.3	6.4	9.4	11.8	18.0


Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estatistika Institutuko Biztanleria aktiboaren inkestako datuak erabilia.

3-8. GRAFIKOA Kudeatzaileak, profesionalak eta teknikariak, sektorearen eta sexuaren arabera (% , 2023)

Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estatistika Institutuko Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak erabilia.

Soldatapekoen lan baldintzak kontratu motaren arabera ere badira (3-9. grafiko). Kasu honetan, atzerritar jatorriko biztanleen artean, aldi baterako kontratuen tasak eragin handiagoa du munduko gainerako herrialdeetako gizonengan eta emakumeengan, eta Ameriketatik etorritako gizonengan. Emakumeen kasuan, ordea, bertakoek dute behin-behinekotasunik handiena, munduko gainerako herrialdeetako

Batez ere gazteen artean ikusten da aldi baterako kontratuen proportzio handiena

3-9. GRAFIKOA Kontratu mota (16-64 urte arteko soldatapekoen %, 2023)

Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estatistika Institutuko Biztanleria aktiboaren inkestako datuak erabilia.

Europatik kanpo jaiotako pertsonen % 9.2k adierazten du enplegu irregularrak baino ezin dituela eskuratu

koez gainera. Adinaren arabera, batez ere gazteenen artean ikusten da aldi baterako kontratuen proportzio handiena. Bestalde, langileen % 1.5ek baino ez du aldizkako kontratu finkoa, eta kontratu hori ohikoagoa da emakumeen artean (batez ere, zaharrenen artean) gizonen artean baino (maizago ikusten da gizon gazteetan).

Azpimarratzekoa da datu horietan ez direla kontuan hartzen kontraturik gabe lan egiten duten pertsonak. Egoera horrek, ziurrenik, atzeritar jatorriko pertsonei eragiten die gehien, batez ere administrazio egoera irregularrean daudenei. Atzeritar jatorriko biztanleen inkestako datuek adierazten dutenez, atzeritar jatorriko langileen % 6.1 ez dago Gizarte Segurantzaren afiliatuta. Eta soldatapeko langileen % 5.5ek ez du kontraturik. Ehuneko horiek % 8 eta % 7.4ra iristen dira, hurrenez hurren, Amerikatik etorritako pertsonetan. Egoera horretan, ez dute inolako babes juridiko eta sozialik. Beraz, prekarietatea 3-9. grafikoak erakusten duena baino handiagoa da atzeritar jatorriko pertsonen artean. Horrek lotura izan dezake bizi duten salbuespeneko egoerarekin edo administrazio egoera irregularrarekin; izan ere, Atzeritar jatorriko biztanleen inkestako datuen arabera, Europatik kanpo jaiotako pertsonen % 9.2 adierazten du enplegu irregularrak baino ezin dituela eskuratu. Pertsona horien egonkortasuna hobetzeko eta lan merkatuan modu erregularrean sartzea errazteko bide bat haien administrazio egoera erregularizatzea da. Horretaz hitz egiten dugu 3-3. laukian.

3-3. LAUKIA Errotzeagatiko bizileku baimena, gizarte eta lan inklusioa errazten duen tresna gisa

Administrazio egoera irregularrean dagoen pertsona batek errotzeagatiko bizileku baimena jaso dezake Espainiara iritsi denetik bizileku baimenik izan ez badu (irregularitasun sakona) edo aurretik errotzeaz bestelako arrazoi batengatiko baimena izan badu baina mugaegunera iritsi aurretik berritxerik edo aldatzerik izan ez badu (gerora sortutako irregularitasuna). Espainiako Estatuan, errotzea arautzen duen indarreko araudia uztailaren 26ko 629/2022 Errege Dekretua da. Dekretu horrek ordura arteko hiru errotze motak (gizartekoa, familiakoa eta lanekoa), neurri batean edo bestean, aldatu egin zituen eta prestakuntzaren arabera errotzea erantsi zuen (OPI-Immigrazioaren Behatoki Iraunkorra, 2024).

Errotzeagatiko behin-behineko bizileku baimena emateko bi baldintza bete behar dira. Lehenengoa, lurraldean gutxieneko denbora bat eramatea. Bigarrena, salbuespeneko arrazoi edo inguruabarren bat egotea, esate baterako, aldeztu aurretik iraupen jakineko lan harreman bat edukitzea (lanaren arabera errotzea); espainiar herritarrekin familiako loturak izatea (famiaren arabera errotzea); lan kontratu bat edukitzea eta azken urteetan bizi izan den tokiko bizitzan integratuta dagoela egiaztatzea (gizartearen arabera errotzea); edo kualifikazio jakin batzuk eskuratzeko konpromisoa hartzea eta ondoren, kualifikazio horiekin lotutako kontratu bat edukitzea (prestakuntzaren arabera errotzea). Baimen bakoitzari dagokion bizileku baimena funtsezkoa da, atzeritarrak Espainian izango duen dokumentu egonkortasuna zehazten duelako (OPI, 2024):

- **Familiaren arabera errotzea:** bost urtez lan egiteko baimena ematen du.
- **Gizartearen eta lanaren arabera errotzea:** hasierako bizileku eta lan baimena, urte baterako.
- **Prestakuntzaren arabera errotzea:** prestakuntza jakin bat egiteko urtebeteko bizileku baimena, luzatzeko aukerarekin. Prestakuntza amaitu ondoren, bi urteko bizileku eta lan baimena ematen da, prestakuntza horri lotutako lan kontratu bat badago.

Errotzeagatiko behin-behineko bizileku baimena emateko bi baldintza bete behar dira: (i) lurraldean gutxieneko denbora bat eramatea; eta (ii) laneko, familiako, gizarteko edo prestakuntzako salbuespeneko arrazoi edo egoeraren bat egotea

OPIren arabera (2024), 2 386 pertsonak lortu zuten errotzea 2013an Euskal Autonomia Erkidegoan. Hamar urteren buruan, kopuru hori boskoiztu egin da eta, 2023aren amaieran, 12 039 pertsonak lortu zuten errotzea. 2013an, gizartearen araberrako errotzea zen baimen gehien-gehienaren bidea (% 90); 2023an, ordea, % 43ra jaitsi zen haren pisua eta familiaren araberrako errotzeak hartu du garrantzi handiagoa (% 32). Prestakuntzaren araberrako errotzeari dagokionez, ezarri zenetik urtebete pasatxo igaro ondoren, % 20.3ko pisua du Euskal Autonomia Erkidegoan: 2 439 pertsona errotu dira bide horretatik, Estatuan baino askoz ere gehiago (errotzeen % 11). Hala ere, datuek ez dute aukerarik ematen jakiteko zer ehuneko dagoen lotuta lehen fasearekin (prestakuntza) eta zer bigarrenarekin (lan kontratua).

2023aren amaieran Euskal Autonomia Erkidegoan errotzeagatiko bizileku baimenak zituzten pertsonak generoaren arabera banatuz gero, ikus daiteke errotzeagatiko baimenak zituzten pertsona guztien % 48.6 emakumeak zirela. Emakumeak gehiengoa ziren gizartearen araberrako errotzean (% 52.4) eta, bereziki, familiaren araberrakoan (% 57.2), eta heren bat ingurura jaisten da haien pisua lanaren araberrako errotzeetan (% 36.5). Azkenik, emakumeak % 29.4 baino ez ziren prestakuntzaren araberrako errotzearen kasuan.

Adinari dagokionez, % 70 inguru 25 eta 44 urte tartean zeuden. Ehuneko hori % 76.6ra iristen da familiaren araberrako errotzeetan. Bestalde, lan egiteko adinean dauden pertsona gazteenak (16-24 urte) errotutako pertsonen % 11.8 ziren. Baina ehuneko hori % 18.5era igozen da prestakuntzaren araberrako baimena duten pertsonen kasuan.

2023an Euskal Autonomia Erkidegoan errotzeagatiko lehen bizileku baimena zuten pertsonak batez beste denbora gehiagoz egon dira egoera irregularrean Espainian baino (3.3 urte EAEn eta 2.9 urte Espainian). Hala ere, bi kasuetan batez besteko denbora hori 2013az geroztiko laburrena da. Denbora hori zertxobait txikiagoa zen emakumeen artean (3.3 urte) gizonen artean baino (3.4 urte). Horrek esan nahi du errotze neurriak eraginkorrak izan daitezkeela atzerritarrek administrazio egoera irregularrean ematen duten batez besteko denbora murrizteko. Hala ere, adierazi behar da errotzea eskatzen duten pertsonen egoera irregularrean emango luketen denbora errotzea eskatu ahal izateko behar den gutxieneko denboraren araberrakoa dela, eta hori bi urte (prestakuntzaren eta lanaren araberrako errotzea) eta hiru urteren (gizarte errotzea) artean dago.

Gizarte inklusioari dagokionez, errotzeagatiko bizileku baimena lortzen duten atzerritarrentzako ondorio desiragarrienetako bat lan merkatuan sartu ahal izatea da, horrek gizarte inklusioa erraztuko baitu. Ildo horretatik, 2023aren amaieran errotzeagatiko bizileku baimena zuten pertsonen artean, % 58.8 zegoen Gizarte Segurantzaren afiliatuta Euskal Autonomia Erkidegoan, Espainia osoan baino gutxiago (% 60.2). Datu horien arabera, oraindik ere hobetzeko tartea dago errotzeagatiko bizileku baimena duten pertsonen laneratzean, laneratze hori lotuta egon baitaiteke pertsona horien kualifikazio mailarekin edo kualifikazio horiek eta lan esperientzia ez aitortzearekin. Oro har, kolektibo horren egoerari arreta integrala emateko estrategia bat behar dela ere adierazten du horrek.

Ildo horretatik, atzerritarren laneratze faktore garrantzitsu bat Espainiatik kanpo egindako ikasketak homologatzeko aukera da. Homologazio hori administrazio prozedurek eta itxaronaldi luzeek baldintzatzen dute, izapide hori orain arte Estatuaren eskumena izan delako. Baina 2024ko uztailaren 1etik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoak kudeatuko ditu erkidegoko udalerriren batean erroldatuta dauden pertsonen atzerrian lortu dituzten goi mailako hezkuntza tituluak homologatzeko edo baliokidetzeko eskaerak. Hori egiteko eskumena duen erkidego bakarra da, gainera (44/2024 Dekretuko Erregelamendua, apirilaren 16koa²⁰). Eskumen hori Euskal Autonomia Erkidegora transferitzeak prozesuaren itxaronaldiak murrizteko aukera dakar eta atzerritar kualifikatuak ekoizpen sistemarekin lotzen ditu, eta, horrela, gizarteratzea eta laneratzea errazten dira, baita enpresek lanpostu hutsak betetzea ere.

Iturria: Geuk egina, OPI (2024) datuak erabilia.

EAEn errotzea lortu duten pertsonen kopurua 2013koa halako bost izan da 2023an. Hala, 2 386 izatetik 12 039 izatera igaro dira

2023an EAEn errotzeagatiko lehen bizileku baimena zuten pertsonak batez beste 3.3 urtez egon dira egoera irregularrean, 2013az geroztiko denborarik laburrena


Tituluak homologatzeko edo baliokidetzeko eskaerak kudeatzeko eskumena transferitzeak atzerritar kualifikatuak ekoizpen sistemarekin errazago lotzeko aukera dakar

²⁰ Txosten hau idazteko garaian, Auzitegi Gorenak, 2024ko uztailaren 23ko Autoaren bidez, erabaki du kautelaz etetea apirilaren 9ko 366/2024 Errege Dekretuaren indarraldia. Errege Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari irailaren 26ko 2808/1980 Errege Dekretuan irakaskuntzaren arloan transferitu zitzaizkion eginkizunei eta zerbitzuei beste batzuk gehitu zaizkie, zehazki, atzerriko goi hezkuntzako sistemen esparruan lortutako tituluen homologazioa eta baliokidetzaren aitortpena. Hortaz, une honetan, geldituta daude aipatutako tituluak Euskal Autonomia Erkidegoan homologatzeko eta baliokidetzak aitortzeko eskaeren onarpena eta gainerako izapideak.

Lanaldi partzialarekin lan egiteko erabakiak hartzean, zaintzari lotutako zereginak eragin handiagoa dute emakumeengan gizonengan baino, eta horrek ondorioak ditu bai gaur egungo diru sarreretan eta bai etorkizunekoetan

Lan baldintzetan kontuan hartzeko azken elementu bat lanaldiaren iraupena da, pertsonak jasotzen duten soldata baldintzatzen duen faktorea. 3-10. grafikoan ikus daitekeen bezala, lanaldi osoa edukitzea ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino, eta adinekoen artean gazteen artean baino. Jarduerarik ezaren kasuan bezala, lanaldi partziala izateko arrazoiak ez dira berdinak kolektibo guztientzat. Nahi ez den partzialtasuna handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino, eta gizonen artean, handiagoa da Ameriketatik etorritako gizonetan. Lanaldi partziala izateko erabakiak hartzean, zaintzari lotutako zereginak ere eragin handiagoa dute emakumeengan gizonengan baino. Garrantzitsua da azpimarratzea horrek ondorioak dituela bai gaur egun, emakumeek gizonekin alderatuta jasotzen duten batez besteko soldata murrizten baitu, eta bai etorkizunean, emakumeen kottizazio oinarria txikiagoa izango baita eta horrek erretiro pentsioari eragin baitiezaioke.

3-10. GRAFIKOA Lanaldi mota (osoa edo partziala) eta arrazoi nagusia, lanaldi partziala bada (16-64 urte arteko soldatapekoen %, 2023)




Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estatistika Institutuko Biztanleria aktiboaren inkestako datuak erabilia.

3.2.3 Inklusioa eta ikasketa mailak

Pertsonen lan egoera, neurri handi batean, lortutako ikasketa mailekin lotuta dago eta horiek, atal honetan aztertutako gainerako elementuak bezala, aldatu egiten dira taldeen arabera. 3-11. grafikoak erakusten digu unibertsitateko ikasketek presentzia handiagoa dutela emakumeen artean gizonen artean baino. Baina oinarritzko hezkuntza mailak oso antzekoak dira, gizonek batxilergoko eta lanbide heziketako ikasketa gehiago dituztelako, emakumeekin alderatuta. Agerikoa da, halaber, bertako biztanleek atzeritarrek baino prestakuntza maila handiagoak dituztela, batez ere Europatik edo Amerikatik ez datozenekin alderatuta. Gainera, 35-55 urteko pertsonak dute prestakuntza mailarik handiena; izan ere,

adin txikiagokoen artean, oraindik ere prestakuntza jasotzen ari diren pertsonak daude.


3-11. GRAFIKOA Biztanleriaren hezkuntza maila (16-64 urte arteko biztanleriaren %, 2023)



Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estatistika Institutuko Biztanleria aktiboaren inkestako datuak erabilia.

Atzerritar jatorriko pertsonen kasuan, prestakuntzaren zati bat Euskal Autonomia Erkidegora iritsi ondoren eskuratu zuten. Zehazki, lortu beharreko ikasketa maila jatorriaren arabera da (3-12. grafikoa). Europatik etorritako atzerritarrek batez ere unibertsitate mailako ikasketak egiten dituzte; Amerikatik etorritakoek, lanbide heziketakoak; eta munduko gainerako herrialdeetakoak modu orekatuan banatzen dira bigarren mailako ikasketen, lanbide heziketaren eta unibertsitate ikasketen artean.

3-12. GRAFIKOA Atzerritar jatorriko 18 urte edo gehiago biztanleriaren artean Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketa arauak egin dituen edo egiten ari den ehunekoa, lortu nahi den ikasketa mailaren arabera (ikasten ari den biztanleriaren %, 2023)



Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren Atzerritar jatorriko biztanleen estatistikako datuak erabilia.

Lanbide Heziketak funtsezko zeregina du gizarte inklusioan, ikasketak goiz uzteari aurre egiten eta kolektibo kalteberak laneratzen lagundu baitezake

Lanbide Heziketari dagokionez (LH), CaixaBank Dualizaren eta Orkestraren Lanbide Heziketako Behatokiaren 2023ko txostenak (Gamboa Navarro *et al.*, 2023), hain zuzen ere, lanbide heziketak gizarte inklusioan duen funtsezko zeregina aztertzen duen, ikasketak goiz uzteari aurre egiten eta kolektibo kalteberak laneratzen lagundu baitezake. Txosten horren arabera, 2021-2022 ikasturtean, Euskal Autonomia Erkidegoan, lanbide heziketako ikasleen % 11.4 atzerritarra zen (Espainian baino ehuneko handiagoa, bertan ez baitzen % 8.3ra iristen). Gainera, atzerritarren pisua handiagoa zen oinarritzko lanbide heziketan, ziklo horretan % 30.5era iristen baita ehunekoa. Txostenak emakumeek lanbide heziketan duten parte hartzea ere aztertzen du. Euskal Autonomia Erkidegoan, parte hartze hori gizonena baino txikiagoa da, ikasleen % 34.6 emakumeak ziren aipatutako ikasturtean.


Arlo zientifiko-teknikoetako prestakuntza bultzatzea eta, bereziki, emakumeak prestakuntza mota horretara hurbiltzea oso interesgarria da Euskal Autonomia Erkidego-rako. Eustaten arabera, 2022/2023 ikasturtean ikasleen % 28 zegoen matrikulatuta STEM arloetako unibertsitateko graduiko ikasketetan eta ikasle horien % 34 emakumeak ziren. Lanbide heziketari dagokionez, CaixaBank Dualizaren eta Orkestraren Lanbide Heziketaren Behatokiaren arabera, ikasturte berean, ikasleen % 50.6 zegoen matrikulatuta STEM lanbide familietan eta horietatik % 10.9 besterik ez ziren emakumeak.

Prestakuntza aurreratua izan arren, lanpostuak ez datoz beti pertsonen duten prestakuntza mailarekin bat. Horrela, Lana, familia eta norberaren bizitza bate-ratzeari buruzko inkestaren arabera, emakume landunen % 16.4k adierazten du bere lanpostuan eskatzen dena baino prestakuntza maila handiagoa duelako. Gi-zonetan, ehuneko hori % 11.8ra jaisten da, eta atzerritar jatorriko pertsonen ar-tean, Atzeritar jatorriko biztanleen estatistikaren arabera, % 21.8ra igotzen da (% 27.4ra, Amerikan jaiotakoaren artean). Beraz, badirudi ez direla behar bezala aprobeztatzen ez emakumeen gaitasunak eta ez atzeritar jatorriko pertsonenak, eta horrek pertsona horien ongizateari eta lurraldearen lehiakortasunari kalte egi-ten dio. Horixe erakusten digu 3-13. grafikoak. Bertan ikusten da hirugarren mai-lako hezkuntza duten pertsonen ehuneko handi bat trebetasun maila txikiagoa eskatzen duten lanbideetan ari dela lanean. Egoera horrek gehiago eragiten die bertako pertsonen (haien hezkuntza maila handiagoa delako), baina eragina du, halaber, oinarritzko lanbideetan —bereziki, instalazioetako eta makineriako opera-doreak eta muntatzaileak— lanean ari diren Europako gainerako herrialdeetan eta Ameriketako jaiotako pertsonengan. Gehiegizko kualifikazioa maizago azaltzen da gazteen artean.

Pertsonak duen prestakuntza mota ez da beti egokitzen merkatuak, etengabeko bi-lakaeran, behar duenera. Horregatik, ikasketa maila handia izan ala oraindik lortu ez, garrantzitsua da prestakuntza jasotzen jarraitzea. 3-14. grafikoak etengabeko ikaskuntzaren inguruko datuak ematen dizkigu. Oro har, gizonen baino hezkuntza maila handiagoak edukitzeaz gainera, emakumeek gehiago jarraitzen dute presta-kuntza jasotzen. Adinak aurrera egin ahala prestakuntzak behera egiten badu ere, 56 eta 64 urte arteko gizonen eta emakumeen % 9k baino gehiagok prestakuntza mo-taren bat jasotzen jarraitzen du. Atzeritar jatorriko pertsonen ere egiten dute hori, kasu batzuetan, gainera, bertakoek baino neurri handiagoan. Halaxe gertatzen zaie Europako gainerako herrialdeetako gizonen eta Amerikako emakumeen. Izan daiteke hasieran hezkuntza maila txikiagoa dutelako eta haien ikasketak homologatuta ez daudelako.


Ez dira behar bezala aprobeztatzen ari ez emakumeen gaitasunak eta ez atzeritar jatorriko pertsonenak

3-13. GRAFIKOA Biztanleria landunaren hezkuntza maila, lanbidearen arabera (16-64 urte arteko biztanleria landunaren %, 2023)



Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estatistika Institutuko Biztanleria aktiboaren inkestako datuak erabilia.

3-14. GRAFIKOA Etengabeko ikaskuntza (25-64 urte arteko biztanleriaren %, 2023)



Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estatistika Institutuko Biztanleria aktiboaren inkestako datuak erabilia.

3.2.4 *Laburpena*

Azterketak oso errealitate konplexua erakusten digu, baina errealitate hori ongi ulertzea kritikoa da lurraldearen lehiakortasun prozesuetan pertsona guztien inklusioa lantzeko

Giza kapitalaren palankan, inklusioa aztertu nahi izan dugu, generoaren, adinaren eta jatorriaren arabera. Azterketa horrek argi uzten du hiru elementu horiek pertsonen enplegarritasuna baldintzatzen dutela eta lan merkatuan sartzeko erabakietan, lanpostu bat lortzeko aukeretan eta lan baldintzetan eragina dutela. Azterketak oso errealitate konplexua erakusten digu, baina errealitate hori ongi ulertzea kritikoa da ekonomia eta ongizate emaitza onen azpian dauden lurraldearen lehiakortasun prozesuetan pertsona guztien inklusioa lantzeko. Hauek dira azterketa horretatik atera ditugun ezaugarri nagusiak:

- **Landunen tasak**, orokorrean, txikiagoak dira emakumeen artean eta atzerrian jaiotakoen artean.
- Emakumeak nagusi dira **zaintzari lotutako zereginetan** eta gizonen parte hartzea oso txikia da zeregin horietan. Horrek eragin zuzena du emakumeak lan munduan sartzeko aukeretan, bereziki munduko gainerako herrialdeetan jaiotakoen artean.
- **Enplegua bilatzea mugatzen duten arrazoiak** desberdinak dira adinaren eta jatorriaren arabera. Gazteenentzat, prestakuntza jasotzen jarraitzea da lanik ez egiteko arrazoi nagusia. Gaixotasunak mugatzen ditu lan aukerak erdiko adin tartean, batez ere gizonetan; eta emakumeetan, gaixotasunez gainera, zaintza ere aipatzen da. Erretiroak garrantzia hartzen du adineko pertsonengan, baina gehiago gizonen artean emakumeen artean baino. Atzeritar jatorriko pertsonak beste oztopo batzuk dituzte lana aurkitzeko, horien artean aipatzekoak dira lan esperientzia, heziketa maila eta jatorrizko herrialdea.
- **Lan egoerari** dagokionez, pertsona gehienek sektore pribatuan egiten dute lan, jatorria, adina eta generoa edozein direla ere. Sektore publikoan lanean ari direnen artean, handiagoa da emakumeen ehunekoa. Bestalde, autonomoen eta enpresaburuen artean, handiagoa gizonen ehunekoa, bereziki Europatik eta munduko gainerako herrialdeetatik etorriak. Hala eta guztiz ere, bai emakumeek bai gizonak nahiago dute sektore publikoan lan egin.
- Jatorriak eta adinak **jarduera mota** baldintzatzen dute. Gizonak presentzia handiagoa dute industria sektorean, eta emakumeek administrazio publikoan (hezkuntzan eta osasunean), batez ere zaharrenen artean. Amerikatik eta Europako gainerako herrialdeetatik etorritako pertsonak merkataritzan, garraioan eta ostalaritzan aritzen dira bereziki. Munduko gainerako herrialdeetatik etorritako gizonak eraikuntzan gehiago egiten dute lan.
- Bertako jatorriko pertsonak ari dira **trebetasun gehien eskatzen duten lanbideetan** lanean, kudeaketako lanetan, profesioaletan eta teknikoetan ari baitira. Atzeritarrak, berriz, oinarritzko zereginetan aritzen dira, batez ere emakumeen kasuan. Jarduera profesionalen, zientifikoen, teknikoen eta administratiboen eta Administrazio publikoaren, hezkuntzaren eta osasunaren sektoreetan bakarrik dira nagusi emakumeak gerentzia-postuetan, profesioaletan eta teknikarietan. Emakumeak enpresa-munduan gero eta gehiago sartzeak ez du esan nahi erabakiak hartzeko postuetan duten presentzia gero eta handiagoa izan denik.
- **Aldi bateko kontratuek** eragin handiagoa dute emakumeen artean gizonen artean baino, eta, gizonen artean, handiagoa da atzeritar jatorrikoen artean duten eragina. Emakumeen kasuan, ordea, bertakoek dute aldi bateko kontratuen pro-

portziorik handiena, munduko gainerako herrialdeetako ez gainera. Kontratu mota horrek presentzia handia du, halaber, gazteen artean, batez ere emakumeetan.

- Atzerriar jatorriko pertsonen artean, **kontraturik gabeko edo gizarte segurantzako afiliatorik gabeko enpleguen presentzia** nabarmentzen da. Ziurrenik, pertsona horien administrazio egoera irregularraren ondorio izango da hori eta legezko kontratuak ez egitea ekarriko du. Ondorioz, zalantzan egongo da pertsona horien babes juridikoa eta soziala.
- **Lanaldi osoa** ugariagoa da gizonen artean eta adineko pertsonen artean. Nabarmentzekoa da emakumeek gizonen baino nahi ez den partzialtasun handiagoa dutela; errealitate horren azalpen posible bat izan daiteke zaintza lanek emakumeen artean garrantzi handiagoa dutela.
- Ez dira behar bezala aprobetxatzen ez emakumeen **gaitasunak** eta ez atzerriar jatorriko pertsonenak, eta horrek pertsona horien ongizateari eta lurraldearen lehiakortasunari kalte egiten dio. Atzerriar jatorriko herritarrek tokiko biztanleek baino prestakuntza maila txikiagoak dituzte. Atzerriar jatorriko herritarrek prestakuntza horren zati bat Euskal Autonomia Erkidegora iritsi ondoren eskuratu dute. Europar jatorriko pertsonak erabakitzen dute goragoko mailako ikasketak egitea (unibertsitate mailako ikasketak) eta horien atzetik Amerikatik etorritakoak daude (lanbide heziketa).
- Emakumeek gizonen baino gehiago hartzen dute parte **bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan**. Zenbait kasutan (besteak beste, Europako gainerako herrialdeetan jaiotako gizonetan eta Amerikatik etorritako emakumeetan) atzerriar jatorriko pertsonak ere tokikoek baino gehiago hartzen dute parte ikaskuntza jarduera horietan; agian hezkuntza maila apalagoetatik abiatzen direlako, ikasketak homologatuta ez dituztelako edo zaintzari lotutako lana eta egitekoak aurrera eramateko ikasketak edo ziurtagiri profesionalak behar dituztelako.

3.3 Gizarte kapitala: lehiakortasun inklusiborako palanka

Gizarte eta erakunde kapitalaren palankak gizarte elkarreraginak egituratzen dituzten arauen eta erakundeen sistema adierazten digu. Eta sistema horrek eragina du lurralde baten balio ekonomikoa eta ongizatea sortzeko prozesuan. Atal honetan, lurralde bateko lehiakortasun prozesuei begiratuta, pertsonen inklusioari eragiten dioten elementu batzuk aztertuko ditugu, pertsonen jatorria kontuan hartuta. Ez da generoaren edo adinaren arabera bereizitako emaitzarik aurkeztuko, ez delako alde bereziki esanguratsurik agertu.


Aztertuko dugun lehen dimentsioa pertsonenganako eta erakundeekiko konfiantza da. Dimentsio hori garrantzitsua da, pertsonen inklusioa bermatzeko lehiakortasunaren azpian dauden dinamika ekonomikoetan eta sozialetan (3-15. grafikoa). Konfiantza orokorra (1etik 10erako eskalan) zertxobait txikiagoa da atzerriar jatorriko pertsonen artean (5.5) Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoek (5.9) edo Espainiako gainerako erkidegoetan jaiotakoek artean baino (5.8). Erakundeekiko konfiantza²¹, ordea, handiagoa da atzerrian jaiotakoek artean (5.9) Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoek ar-

Konfiantza orokorra zertxobait txikiagoa da atzerriar jatorriko pertsonen artean EAEn jaiotakoek artean baino; erakundeekiko konfiantza, ordea, handiagoa da atzerrian jaiotakoek artean

²¹ Erakundeez hitz egitean, mota askotakoak hartzen dira kontuan: nazioarteko erakundeak (Nazio Batuen Erakundea, esate baterako), sindikatuak, Eusko Jaurlaritza, banketxeak, Europako erakundeak (Europako Batzordea, adibidez), ongintzako erakundeak (Caritas, esate baterako), epaitegiak, Ertzaintza, Espainiako gobernua, gobernu kanpoko erakundeak (horien artean, Greenpeace edo Mugarik gabeko Medikuek), Polizia Nazionalea eta Guardia Zibila, Eliza Katolikoa, armada, alderdi politikoak, udalak eta hedabideak.

tean (4.7) eta Espainiako beste autonomia erkidego batzuetan jaiotakoen artean baino (5.2). Horren arrazoia izan daiteke EAEko eta Espainiako erakundeekiko duten konfiantza jatorrizko herrialdeetako erakundeekiko dutena baino handiagoa dela.

3-15. GRAFIKOA Konfiantza motak, jatorriaren arabera, 2022



Iturria: Geuk egina, Eustaten Kapital sozialari buruzko inkesta erabilita.

3-4. taulak lagunen eta senideen sareetan sakontzen du. Alde batetik, atzerritar jatorriko pertsonak sare zabalaren (familia osatzen duten pertsonak, aldizka harremanetan dauden senitartekoak eta lagunen sare zabala) eta sare hurbilaren (harreman hurbileko senitartekoak eta hurbileko lagunak) batez besteko tamainarik txikiena dute. Hala ere, sare horretako harreman pertsonen maiztasuna bertakoenaren oso antzekoa da.

3-4. TAULA Sare zabala eta sare hurbila, jatorriaren arabera, 2022

	Euskal Autonomia Erkidegoa	Espainiako gainerako erkidegoak	Munduko gainerako herrialdeak
Sare zabalaren tamaina (batez beste)	24.8	23.0	19.2
Sare hurbilaren tamaina (batez beste)	12.6	11.5	8.8
Sareko harreman pertsonalak (batez beste)	5.0	4.3	4.7

Iturria: Geuk egina, Eustaten Kapital sozialari buruzko inkesta erabilita.

Atzerritarrek (7.6) bertakoek (7.1) eta Espainiako beste erkidego batzuetakoek (7.4) baino independentzia handiagoa dute, batez beste

Lagunen eta senideen sare horiekin lotuta, laguntza eskuratzeko aukerari lotutako adierazleak ere aztertu ditugu, hiru esparrutan: finantzak, osasuna, eta arlo emozionala (3-5. taula). Horietan guztietan, atzerritar jatorriko pertsonen gizarte kapitala Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainiako gainerako erkidegoetan jaiotakoena baino txikiagoa da. Finantza laguntza da eskuratzeko zailena, gainera. Laguntzak eskuratzeko zailtasunekin lotuta, beste adierazle batek iradokitzen digu Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerritar jatorriko pertsonak bertakoek eta Espainiako beste erkidego batzuetakoek baino independentzia handiagoa dutela batez beste (zehazki, atzerritarrek, 7.6; bertakoek, 7.1; beste erkidegoetakoek, 7.4).

3-5. TAULA Finantza laguntza, osasun laguntza eta laguntza emozionala, 2022


	Euskal Autonomia Erkidegoa	Espainiako gainerako erkidegoak	Atzerria
Finantza laguntza eskuratzeko aukera (batez beste)	5.1	4.8	3.8
Osasun arazoaren aurrean laguntza eskuratzeko aukera (batez beste)	6.3	5.9	5.1
Laguntza emozionala eskuratzeko aukera (batez beste)	5.8	5.6	4.8

Iturria: Geuk egina, Eustaten Kapital sozialari buruzko inkesta erabilita.

Azkenik, interes soziopolitikoari dagokionez, ez dago alderik atzerritar jatorrikoen eta bertakoen artean. Baina atzerrian jaiotako pertsonen hauteskundeetan parte hartze txikiagoa dute batez beste (2.3), Espainian nazionalizatutako herritarretara mugatzen baita gai publikoetan parte hartzeko eskubidea (3-16. grafikoa).

Interes soziopolitikoari dagokionez, ez dago alderik atzerritarren eta bertakoen artean, baina atzerrian jaiotako pertsonen hauteskundeetan parte hartze txikiagoa dute, batez beste

3-16. GRAFIKOA Interes soziopolitiko eta parte hartze politikoa, (0-10, 2022)



Iturria: Geuk egina, Eustaten Kapital sozialari buruzko inkesta erabilita.

Laburbilduz, eskura dauden datu mugatuekin, gizarte eta erakunde kapitalari lotutako hainbat ezaugarri zehaztu daitezke eta haien ondorioak aztertu, adin eta jatorri desberdinetako pertsonen lurraldearen lehiakortasun eta ongizate prozesuei lotutako inklusioan.

- Atzerritar jatorriko pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainiako gainerako erkidegoetan jaiotakoek baino **konfiantza orokor** txikiagoa dute.
- Atzerritarrek **konfiantza handiagoa dute erakundeetan** Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainiako gainerako erkidegoetan jaiotakoek baino.
- Bertakoek babesa bilatzeko **sare pertsonal** zabalagoak dituzte, baina harreman pertsonalen maiztasuna antzekoa da bi taldeetan.
- Atzerritar jatorriko pertsonen ez dute iritzi onik **finantza eta osasun laguntzak eta laguntza emozionalak eskuratzeko aukeren inguruan**. Horren ondorioz, atzerritar jatorriko pertsonen bertakoek baino **independentzia pertsonal** handiagoa dute.
- **Gai soziopolitikoekiko** interesa oso antzekoa da, jatorria edozein dela ere, baina atzerritar jatorriko pertsonen askoz ere neurri txikiagoan hartzen dute parte hauteskundeetan, bertakoek eskubide berdinak ez dituztelako.

3.4 Inklusioa ongizatearen adierazleetan

Aurreko bi ataletan, pertsonen inklusioa aztertu dugu, generoaren, adinaren eta jatorriaren arabera, giza kapitalaren eta gizarte kapitalaren palanka dinamikoetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren lehiakortasunaren azpian dauden prozesuetako parte hartzearen ezaugarriak ulertu nahian. Atal honetan, inklusioa ongizatearen emaitzen ikuspegitik aztertuko dugu eta, hala, lehen kapituluko analisia aberastuko dugu, inklusioa ongizate emaitzetan aztertzeko, berriro ere generoaren, adinaren eta jatorriaren arabera.

Gazteenek (16 eta 24 urte artekoek) dute bizitzarekiko gogobetetasun handiena


3.4.1 Bizitzarekiko gogobetetasuna

Bizi kalitatearekiko sentimendu subjektiboa bizitzarekiko gogobetetasunaren adierazlearekin neur daiteke. Nahiz eta gizonen bizitzarekiko gogobetetasuna emakumeena baino zertxobait handiagoa izan (10etik 7.4 eta 7.2, hurrenez hurren), ezin dugu genero arrakalaz hitz egin, ez baitago alde argirik. Bestalde, gogobetetasunak behera egiten du adinean aurrera egin ahala; hori dela eta, gazteenek (16 eta 24 urte artekoek) dute gogobetetasun mailarik handiena.

3.4.2 Bizitza materiala

Lurralde batean bizi diren pertsonen bizitzetako alderdi materialek agerian jartzen dituzte pertsonen arteko eta pertsona taldeen arteko desberdintasunak, ongizateari dagokionez. Errenta pertsonalaren eta familiarenaren estatistikako datuen arabera, 2021eko datuekin, pertsonen errenta pertsonalak gora egiten du adinean aurrera egin ahala. Bilakaera horren inflexio puntua 55 eta 59 urteko tartean dago, adin horretan behera egiten hasten baita, lan bizitza amaitzearekin batera (3-17. grafikoa). Generoari dagokionez, arrakala gero eta handiagoa da. Alderik handiena 70 eta 74 urte arteko adin tartean ikusten da, adin horretan, emakumeen errenta gizonen errentaren ia erdia da.


3-17. GRAFIKOA Errenta erabilgarria generoaren eta adinaren arabera (2021)



Iturria: Geuk egina, Eustaten Errenta pertsonalaren eta familiarenaren estatistika erabilia.

Adin talde gazteenetik hasita, generoari lotutako soldata arrakala antzeman daiteke, eta arrakala hori handitzen doa, adinarekin

Bestalde, 3-18. grafikoak lanaren bidez eskuratutako errenta baino ez du erakusten. Errenta hori handitzen joaten da gizonen eta emakumeen bizitzan, 45-49 urteko adin tartera iritsi arte. Hortik aurrera, hamarkada batez bere horretan gelditu edo pixka bat jaisten da, eta, ondoren, azken bosturtekoan (60-64 urte), nabarmen egiten du behera. Adin kohortetik gazteenetik hasita, generoari lotutako soldata arrakala antzeman daiteke. Arrakala hori hurrengo adin kohorteetan handitzen joaten da, 39 urtera iritsi arte; berrogei urtekoen artean egonkortu egiten da, eta, ondoren, berriro ere handitu egiten da, oso nabarmen 50-54 adin tartean eta mantsoago, adin horretatik aurrera. Desberdintasun horiek gizonen eta emakumeen egiten dituzten lan motekin dute lotura, lehenago ikusi dugun bezala.

3-18. GRAFIKOA Lanaren errenta, generoaren eta adinaren arabera (2021)

Iturria: Geuk egina, Eustaten Errenta pertsonalaren eta familiarenaren estatistika erabilita.

Giza kapitalaren palanka aztertzean sektore, lanbide edo kontratuetan aldeak daudela ikusi ahal izan dugu. Alde horiek pertsonen jasotzen dituzten soldatetan ere nabaritzen dira. Horrela, 3-6. taularen lehen blokean ikusten da zerbitzuen sektorean lan egiten duten pertsonen, batez beste, orduko %8.6 gutxiago kobratzen dutela industrian lan egiten duten pertsonen baino. Arrakala are handiagoa da pertsonen batez besteko irabaziaz aztertuta, zerbitzuen sektorean industrian baino kontratu partzial gehiago daudelako. Bestalde, kualifikazio ertain eta txikiko lanbideetan aritzen diren pertsonen kualifikazio handikoetan aritzen direnek (kudeatzaileak, profesionalak eta teknikariak) baino %40 gutxiago kobratzen dute, bai lan egindako ordu bakoitzeko eta bai batez besteko irabazian. Faktoreen konbinazio horren eta beste elementu batzuen eraginez, atzerrikako nazionalitatea duten pertsonen Espainiakoei baino %34.3 gutxiago kobratzen dute. Era berean, soldata arrakala handiagoa da pertsona zenbat eta gazteagoa izan.

Dagoeneko 1. kapituluari aipatu dugu generoari lotutako soldata arrakala %8.8 dela lan egindako ordu bakoitzeko. Batez besteko irabazian neurtuta, alde hori %16.5era igotzen da, emakume gehiagok duelako lanaldi partziala. Hori guztia lan egiten duten pertsonen gertatzen zaie. Baina landunen tasa emakumeen artean gizonen artean baino txikiagoa denez, errenta erabilgarriari lotutako arrakala are handiagoa da, dagoeneko aipatu dugun bezala. Nolanahi ere, generoari lotutako soldata arrakalaren azterketa ezin da mugatu faktore horiek banaka hartzeraz. 3-6. taulako bigarren blokean ikusten den bezala, talde horietako bakoitzaren barruan ere ikusten dira soldata arrakalak. Hala, generoari lotutako soldata arrakala, lan egindako ordu bakoitzeko, oso antzekoa da industria eta zerbitzuetan eta ekonomian, oro har. Eta batez besteko irabazian begiratuta, arrakala pixka bat txikiagoa da industrian. Genero arrakalak bereziki handiak dira kualifikazio txikiko lanbideetan, ziur aski gizonetan industriako peoiak sartzen direlako kategorian horretan eta emakumeetan, etxeko langile asko daudelako, askoz ere soldata txikiagoekin. Soilik aldi baterako kontratuetan ikusten da gizonen soldata emakumeena baino txikiagoa dela, beharbada gizonen dituzten aldi bateko lanpostuak bereziki prekarioak direlako.

Generoari lotutako soldata arrakalak bereziki handiak dira kualifikazio txikiko lanbideetan

3-6. TAULA Soldata arrakala, sektorearen, lanbidearen, kontratu motaren, nazionalitatearen, adinaren eta sexuaren arabera (% , 2022)

		Erreferentziako taldearekiko		Emakumeak vs gizonak	
		Lan egindako ordu bakoitzeko	Batez besteko irabazietan	Lan egindako ordu bakoitzeko	Batez besteko irabazietan
Guztira				% 8.8	% 16.5
Sektorea	Industria	--	--	% 8.7	% 10.9
	Zerbitzuak	% 8.6	% 16.1	% 8.4	% 15.1
Lanbidea	Kualifikazio handia	--	--	% 9.3	% 13.7
	Kualifikazio ertaina	% 38.9	% 39.4	% 15.3	% 22.4
	Kualifikazio txikia	% 38.0	% 40.1	% 25.6	% 39.7
Kontratua	Mugagabea	--	--	% 12.0	% 19.6
	Aldi batekoa	-% 2.0	% 4.5	-% 10.2	-% 5.2
Nazionalitatea	Espainiarra	d.e.	--	d.e.	% 17.3
	Atzerritarra	d.e.	% 34.3	d.e.	% 19.3
Adina	25-34 urte	d.e.	% 27.9	d.e.	% 11.4
	35-44 urte	d.e.	% 12.6	d.e.	% 15.9
	45-54 urte	d.e.	% 3.3	d.e.	% 21.0
	55 urte eta gehiago	d.e.	--	d.e.	% 18.2

Oharra: Balio positiboek adierazten dute aztertutako taldearen irabaziak erreferentziazko taldearenak baino % hori txikiagoak direla.

Iturria: Geuk egina, INE-Espainiako Estatistika Institutuko Soldata egituraren urteko inkestako datuak erabilia.


Erreferentziazko pertsona gizona duten etxeen % 2.9 pobrezia egoeran dago, eta ehuneko hori % 5.5era igotzen da, erreferentziazko pertsona emakumea bada, edo % 20.5era, atzerrian jaiotakoa bada

Lehen kapituluari azaldu dugun bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko pobrezia eta gizarte bazterketa maila txikia da, beste lurralde batzuekin alderatuta. Pobrezia tasa erreala %4 da, eta zertxobait handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino.²² Hala ere, gizonen eta emakumeen arteko aldea esanguratsuagoa da etxeko erreferentziazko pertsonaren sexua kontuan hartzen denean: erreferentziazko pertsona gizona den etxeen % 2.9 pobrezia egoeran dago eta ehuneko hori % 5.5era igotzen da, erreferentziazko pertsona emakumea bada.²³ Pobrezia erreala adinaren arabera aztertuz gero (3-19. grafikoa) ikusten da pobrezia eragin handiagoa duela gazteen etxeetan (% 6.1) eta txikiagoa, adinekoenetan (% 1.7). Baina alderik esanguratsuenak jatorriaren araberrak dira: erreferentziazko pertsonak atzerrian jaiotakoak diren etxeetako pobrezia (% 20.5) erreferentziazko pertsonak Espainian jaiotakoak diren etxeetako pobrezia (% 1.9) baino nabarmen handiagoa da.

²² Pobrezia erreala pobrezia dimentsio batean edo bestean (mantentzea edo metatzea) azaltzen diren oinarritzko beharrak estaltzeko nahikoa baliabiderik ez izateko arriskua dakarten eta biztanleriaren eguneroko bizitzan nahikoa konpentsaziorik ez duten adierak adierazten ditu, gutxienez ongizate mailara iristea eta pobrezia kanpo bizitzea eragozten dutenak. (Eusko Jaurlaritza, Justizia eta Giza Eskubideen Saila, 2024).

²³ Erreferentziazko pertsona terminoak adierazten du etxean edo bizikidetzan unitatean informazioa emateko erreferente dena (Eusko Jaurlaritza, Justizia eta Giza Eskubideen Saila, 2024).

3-19. GRAFIKOA Pobrezia erreala, adinaren arabera (% , 2022)



Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Pobrezia eta gizarte beharren inkestako datuak erabilia.

Atzerritar jatorriko pertsonen dagokienez, Atzerritar jatorriko biztanleen estatistikak aukera ematen du herritar horien diru sarreraren tipologia identifikatzeko, hiru eremu geografiko handitan banatuta (3-7. taula). Pertsonen jatorrizko eremu bakoitzak bere berezitasunak dituela esan daiteke. Hala, Europan jaioetakoen % 18k aitortu du ez duela diru sarrerarik, eta % 12k adierazi du pentsioren bat jasotzen duela. Amerikako kontinentean jaioetako pertsonen % 23k ez zuen diru sarrerarik 2023an, eta kopuru hori % 29ra igotzen da munduko gainerako herrialdeetako pertsonen artean. Hala ere, talde guztien diru sarreraren iturri nagusia lana edo errentak dira. Horrek esan nahi du migratzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan, finantza ikuspegitik, modu jasangarrian integratzen direla. Beste datu batzuek ere ondorio horretara eramaten gaituzte: Amerikako eta munduko gainerako herrialdeetako pertsonen % 2 inguruk bakarrik ditu ordaindu gabeko zorrak, nahiz eta herritar horien % 27.3k (Amerika) eta % 9.8k (munduko gainerako herrialdeak) zorpetu behar izan duten Euskal Autonomia Erkidegorako bidaia egin ahal izateko.

Atzerritar jatorriko pertsonen diru sarreraren iturri nagusia lana edo errentak dira, eta horrek esan nahi du migratzaileak EAEn, finantza ikuspegitik, modu jasangarrian integratzen direla

3-7. TAULA Atzerritar jatorriko pertsonen diru sarrerak, jatorriaren arabera (% , 2023)

	Europa	Amerika	Munduko gainerako herrialdeak
Lana edo errenta	% 64	% 67	% 49
Langabezia	% 4	% 3	% 4
Pentsioak	% 12	% 3	% 5
DSBE eta beste laguntza batzuk	% 2	% 5	% 13
Diru sarrerarik gabe	% 18	% 23	% 29

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Atzerritar jatorriko biztanleen estatistikako datuak erabilia.

Pertsona migratzaileen gizarte eta finantza integrazioa nolakoa den jakiteko beste adierazle bat etxebizitza jabetzan edukitzea da. Euskal Autonomia Erkidegoan, 2023ko datuei erreparatuta, atzerritar jatorriko biztanleriaren artean bertakoen artean baino pisu askoz handiagoa du etxebizitza alokairuan hartzeak (3-8. taula). Alde handia dago etxebizitza jabetzan eta erabat ordainduta duten etxeen ehunekoan, pertsonen jatorriaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoan, etxeen % 54k du etxebizitza jabetzan eta erabat ordainduta, eta Europaz kanpoko beste herrialderen batean jaioetakoen % 3.3 besterik

Etixerik gabeko pertsonen % 72.4 atzerritar jatorrikoak dira; gehienak (% 76.7) gizonak dira eta erdia baino gehiago (% 56), 18 eta 29 urte artekoak

ez dago egoera horretan. Egoera hori bi arrazoiarekin lotuta egon daiteke: alde batetik, atzerritar jatorriko herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoan igarotzen duten denbora eta, beste alde batetik, etorkinek dituzten kalitate txikiagoko enpleguak, soldata txikiagoak eta prekarietate handiagoa dakartenak (ikus 3.4.3. atala). Azpimarratzekoa da, halaber, 2022an etxerik gabeko pertsonen % 72.4 atzerritar jatorrikoak direla. Horietatik gehienak (% 76.7) gizonak dira eta erdia baino gehiago (% 56), 18 eta 29 urte artekoak.

3-8. TAULA Etxebizitzaren jabetza, jatorriaren arabera (2023)

	Euskal Autonomia Erkidegoko etxeen batezbestekoa	Europa	Amerika	Munduko gainerako herrialdeak
Jabetzan eta erabat ordainduta	% 54	% 12.6	% 3.7	% 2.9
Jabetzan, ordaintzen bukatu gabe	% 26	% 34.2	% 19.4	% 14.5
Alokairuan	% 14	% 45.1	% 63	% 66.7
Beste egoera bat (doan lagata, etab.)	% 2	% 3.4	% 4.3	% 3.5
Partekatua	--	% 4.7	% 9.6	% 12.3

Iturria: Geuk egina, EUSTATEko Etxebizitza beharren eta eskarien inkesta eta Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Atzerritar jatorriko biztanleen estatistika erabilia.

Etxebizitzaren funtsezko beste alderdi bat bere egoera da, tenperatura egokia izatea, mantentze lanei aurre egin ahal izatea eta espazio arazorik ez izatea. 2023an, adierazle horiek guztiak okerragoak dira atzerritar jatorriko pertsonen etxebizitzetan Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza guztien multzoan baino. Gainera, munduko gainerako herrialdeetatik datozen pertsonen etxebizitzek dute egoerarik okerrrena: hezetasun handiagoa dute (% 29.3), neguan hotza dute (% 39), mantentze lanetako gastuak ordaintzen atzeratzen dira (% 21.3) eta azalera desegokia dute (% 45) (3-9. taula). Etxebizitzaren inguruan zarata arazoak egoteari dagokionez, bertako jatorriko pertsonen etxebizitzetan du eraginik handiena arazo horrek (% 8.1). Etxebizitzen inguruan gerta daitezkeen gizarte arazoei begiratuta, berriz, Amerikako jatorriko pertsonak ikusten dituzte arazo gehien (% 7.5), eta haien atzetik datoz munduko gainerako herrialdeetako pertsonak (% 6.1).

3-9. TAULA Etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak eta ingurua, jatorriaren arabera (2023)

	EAEko etxebizitzak (2022)	Europa	Amerika	Munduko gainerako herrialdeak
Hezetasun arazoak	% 12.4	% 17.5	% 22.8	% 24.6
Neguan hotza	% 8.2	% 15.6	% 35.9	% 39
Atzerapenak mantentze lanen ordainketetan	% 4.6	% 6.2	% 19.7	% 21.3
Azalera desegokia	% 13.3	% 20.8	% 30.4	% 45
Zarata arazoak etxebizitzaren inguruan	% 8.1	% 7.4	% 6.6	% 5.9
Gizarte arazoak etxebizitzaren inguruan	% 5.4	% 3.8	% 7.5	% 6.1

Iturria: geuk egina, Pobrezia eta gizarte beharren Inkesta eta Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren Atzerritar jatorriko biztanleen estatistika erabilia.

2023an EAEn antzemandako etxebizitza premien % 83 emantzipatu gabeko 18 eta 44 urte arteko pertsonenak ziren eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dute

Bestalde, etxebizitza eskuratzea ere erronka garrantzitsua da Euskal Autonomia Erkidegoko gazteentzat. Etxebizitza beharrei eta ezaugarriei buruzko inkestak jasotzen duenez, 2023an Euskal Autonomia Erkidegoan antzemandako etxebizitza premien % 83 emantzipatu gabeko 18 eta 44 urte bitarteko pertsonenak ziren, lehen etxebizitza eskuratu nahian zebiltzanenak, hain zuzen ere. Emantzipatzeko batez besteko

adina 29.3 urtekoa zen 2023an, 2021ean baino 0.4 urte gutxiago, eta Europako batezbestekoa baino 3 urte gehiago.

3.4.3 Enplegua

Enplegua inklusiorako faktore kritikoa da, bizitza materiala baldintzatzen duten baliabide ekonomikoak eskuratzeko aukera emateaz gainera, aztertu berri dugun bezala, errealizazio profesionalerako eta pertsonalerako aukerak ere ematen dituelako. Gainera, lanari eskaintzen diogun denboraren proportzioa handia denez, lanarekiko gogobetetasunak (edo gogobetetasun ezak) eragin handia izan dezake gure ongizatean. 3-10. taulan ikus daitekeen bezala, 2023an ez da alde handirik ikusten gizonen eta emakumeen artean, lanarekiko gogobetetasunari dagokionez: emakumeen % 8.1ek eta gizonen % 8.2k adierazten dute ez daudela gogobeteta lanarekin.²⁴ 2018arekin alderatuta, ehuneko horrek portzentajezko 1.1 puntu egin du gora emakumeetan eta 21.9 puntu, gizonetan. Gainera, emakume baino gizon gehiagok adierazten dute lanean gatazka egoerei aurre egin behar dietela (% 7.8 eta % 5.5, hurrenez hurren).

Ez da alde handirik ikusten emakumeen eta gizonen artean, lanarekiko gogobetetasunari dagokionez


Adin tarteei buruz antzeko azterketa egiteko, Eustaten Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkestak lanarekiko gogobetetasunaren berri ematen du. 3-20. grafikoan ikus daitekeenez, ia ez dago alderdik lanarekiko gogobetetasun orokorrean, adin tarte batzuetatik besteetara. Hala ere, 35 urtetik gorako pertsonak lanarekiko gogobetetasun handiagoa dute, egonkortasunari erreparatuz gero, baina gogobetetasun txikiagoa, laneo sustapenari begiratuz gero.

3-10. TAULA Lanarekiko gogobetetasun eza, generoaren arabera (2023)

	Gizonak	Emakumeak
Lanarekiko gogobetetasun eza	% 8.2	% 8.1
Lanarekiko gogobetetasun ezaren bilakaera 2018-23 (p. p.)	1.9	1.1
Laneo gatazka egoerak	% 7.8	% 5.5

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun inkesta erabilita.

3-20. GRAFIKOA Lanarekiko gogobetetasuna, adinaren arabera (2023)



Iturria: Geuk egina, Eustaten Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeko inkesta erabilita.

²⁴ Euskal Autonomia Erkidegoko Osasunari buruzko 2023ko Inkestatik ateratako datuak estandarizatuta daude, 2022an Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren adinaren arabera banaketa kontuan hartuta.

Prekarietatea murriztu egiten da adinean aurrera egin ahala, baina emakumeetan gizonetan baino handiagoa da adin tarte guztietan

Enpleguaren dimentsioaren aztertzean, beste alderdi garrantzitsua bat lan prekarietatean ikusten den genero arrakala da. Arrakala hori portzentajezko 4 puntukoa zen 2023an: emakumeen % 31.5ek eta gizonen % 27.6k adierazten dute lanean egoera prekarioak dituztela.²⁵ Prekarietatea murriztu egiten da adinean aurrera egin ahala, baina emakumeetan gizonetan baino handiagoa da adin tarte guztietan. 2023an, 15 eta 24 urte arteko emakumeen % 86.2k eta gizonen % 69.9k adierazi zuten lanean egoera prekarioak zituztela; 45-64 urte arteko gizonen eta emakumeen kasuan, berriz, % 22.5ek eta % 27.3k, hurrenez hurren.

Hautemandako lan prekarietatean eta lanarekiko gogobetetasun ezean ikusten diren alde horiek azaldu ditzakeen enpleguaren elementuetako bat 3.2. atalean landu dugu, giza kapitalari buruz aritu garenean. Ikus daitekeenez, enpleguen baldintza objektiboak, oro har, okerragoak dira emakumeen artean eta, zenbait alderditan, bereziki gazteenen artean. Horrek prekarietateari buruzko hautemateak berresten ditu, baina, hala ere, ez du islarik gogobetetasun mailetan. Horrek esan nahi du gogobetetasunean beste faktore batzuek ere eragiten dutela, bai objektiboak eta bai subjektiboak.

3.4.4 Gizarte bizitza


Etxeko lanari eta zaintzari eskainitako denborak eta norberaren bizitza eta lana bateratzeari lotutako elementuek eragin handia dute gizarte bizitzarekiko gogobetetasunean, beste egiteko batzuei eskaini ahal diegun denbora baldintzatzen baitute: beste pertsona batzuekiko harremanak, aisia, kirola, zaletasunak, etab.

2023an emakume landunek egunean 4.7 ordu ematen dituzte seme-alaba adingabeak zaintzen eta gizonak, 3.6 ordu

Lehenik eta behin, seme-alaba adingabeak zaintzeari eskainitako eguneko orduak aztertuta, 2023an emakume landunek 4.7 ordu ematen zituzten seme-alabekin eta gizonak, 3.6 ordu. Emakume landunek egunean ordu gehiago ematen dituzte etxeko lanetan: 2 ordu; gizon landunek, aldiz, 1.6 ordu. Mendeko pertsonen zaintzari dagokionez, gizon landunek egunean 1.9 ordu ematen dituzte zaintzan eta emakume landunek, berriz, egunean 2.3 ordu. Jakina, biztanleria landuna adinean gora joan ahala, egunean ordu gehiago eskaintzen dizkio zaintza mota horri.

Adinaren arabera, 16 eta 24 urte arteko landunek eskaintzen diete ordu gehien (6 ordu) seme-alaben zaintzari eta horien atzetik, 25 eta 44 urte arteko landunak daude (4.6) (3-21. grafikoa). Izan ere, adin horretan izaten dira ohikoenak zaintza behar du-

3-21. GRAFIKOA Biztanleria landunak etxeko lanetan emandako orduak, adinaren arabera (2023)



Iturria: Geuk egina, Eustaten Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeko inkesta erabilia.

²⁵ Euskal osasun inkestan lan prekarietatea Mini EPRES galdetegia erabiliz neurtzen da, sei faktore konbinatuta: aldi batekotasuna, soldata, ahalduzkerik eza, zaurgarritasuna, eskubideak eta eskubideak gauzatzea (Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila, 2024).

ten seme-alaba txikiak. Adingabeak zaintzeari denbora gehiago eskaintzeak dakar emakumeek pentsatzea amatasunarekin, aitatasunarekin edo eszedentziarekin lotutako gaiek gizonei baino kalte handiagoa eragiten dietela.

Gizonek eta emakumeek etxeko hiru lan mota horiei eskaintzen dieten eguneko denborarekiko duten gogobetetasun maila antzekoa da (3-11. taula), baina aldea ikusten da norberaren bikotekideak egiten dituen lanekiko gogobetetasunean: gizonen gogobetetasuna (7.6) emakumeena baino handiagoa da (6.2), eta horrek adieraz dezake gizonak emakumeak baino gusturago daudela etxeko lanen banaketa orokorrarekin.

Gizonak emakumeak baino gusturago daude etxeko lanen banaketa orokorrarekin

3-11. TAULA Generoaren arabera kontziliazioarekin lotutako lanei eskainitako denborarekiko gogobetetasun maila (2023)


	Gizonak	Emakumeak
Seme-alaba adingabeak zaintzea	6.6	6.6
Etxeko lanak	6.4	6.2
Mendeko pertsonak zaintzea	5.8	5.5
Ezkontidearen/bikotekidearen etxeko lanak	7.6	6.2

Iturria: Geuk egina, Eustaten Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeko inkesta erabilita.

Seguru asko, zaintza lanei eta etxeko lanei eskainitako denboraren desberdintasun horien ondorioz, emakumeek beren bizitza pertsonalari eskaintzen dioten denborarekiko gogobetetasuna (5.6) gizonena baino txikiagoa da (6.1). Hala ere, adin tarteak handitzen denean eta lanik egiten ez duten pertsonak ere kontuan hartzen direnean, sexuen arabera aldeak desagertu egiten dira; izan ere, Norberaren ongizateari buruzko inkestaren arabera, gizonen batez besteko gogobetetasuna 6.6 da eta emakumeena, 6.5. 65 urtetik gorako adin tarteak gozatzen du gehien aisialdiaz (7.6) eta horien ondoren, gazteenak daude. Lan egiteko adinean dauden pertsonak dute gogobetetasun mailarik txikiena aisialdiarekin, bereziki, 35 eta 49 urte artekoek (5.7) (3-22. grafikoa).

65 urtetik gorako pertsonen tarteak gozatzen du gehien aisialdiaz, eta, horien ondoren, gazteenek

3-22. GRAFIKOA Aisialdirako denborarekiko gogobetetasuna, adinaren arabera (2023)




Iturria: Geuk egina, Eustaten Norberaren ongizateari buruzko inkesta erabilita.

Atal hau amaitzeko, gizarte bizitzan eragina duten faktore psikosozial batzuen aldakuntza aztertuko dugu, generoaren eta adinaren arabera. 2023an, gizarte babesik eza 2013ko eta 2007ko balioetara itzuli da, bai gizonen artean eta bai ema-

kumeen artean. Babes konfidentzialik eza (inguruan zerbait kontatzeko pertsonak edukitzea) portzentajezko 0.1 puntu handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (% 10.7 eta % 10.6, hurrenez hurren), eta babes afektiborik eza (maitasuna eta enpatia erakustea) 0.1 puntu handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (% 9.2 eta % 9.1, hurrenez hurren). 2018arekin alderatuta, adin tarte guztietan egin du behera bai gizarte babesak eta bai babes afektiboak (3-23. grafikoak).

3-23. GRAFIKOA Faktore psikosozialak, generoaren eta adinaren arabera (2018-2023)



Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun inkestako datuak erabilita.

3.4.5 Osasuna

Atal honetan, pertsonen beren osasunarekiko duten hautematea aztertuko dugu, generoaren eta adinaren arabera bereizita, ongizatearen dimentsio kritiko honi lotutako inklusioa hobeto ulertzeko. 2023an, beren osasuna ontzat hartzen duten emakumeen ehunekoa (% 78.1) gizonena baino txikiagoa da (% 82.0). Gainera, hautemate horrek okerrera egiten du adinarekin, bai emakumeen artean eta bai gizonen artean. 3-12. taulan ikus daitekeenez, 2023an okerrera egin du norberak bere osasun egoera ona dela uste izateak adin talde guztientzat eta bi sexuetan.

Osasunarekiko hautemateak behera egin du adin talde guztientzat eta bi sexuetarako, 2018 eta 2023 urteen artean

Gero eta kezka handiagoa sortzen du osasun mentalak, zehazki, antsietate eta depresio sintomak edukitzeak. Osasun mentalak nabarmen egin du okerrera, bi sexuetan. Osasun mental txarrak kalte egiten die pertsonaren ongizateari eta funtzionamendu kognitibo, portaerazko, emozional, sozial eta harremanetakoari, bai eta haren osasun fisikoari eta izaerari ere. Ondorioz, eragina izan dezake pertsona batek lanean parte hartzeko duen gaitasunean; izan ere, produktibitatea eta errendimendua jaistea ekar dezake, segurtasunez lan egiteko gaitasunak behera egitea, edo lanpostu bati eusteko edo lortzeko zailtasunak handitzea. Osasun mental txarra dute emakumeen % 26.5ek eta gizonen % 17.7k. Gainera, antsietate eta depresio sintomak dituzten pertsonen ehunekoa handiagoa da adinekoen artean. Era berean, ehuneko hori handiagoa da emakumeen artean, adin tarte guztietan. Bilakaerari dagokionez, kezkagarria da 2018 eta 2023 urteen artean behera egin duela osasun ona dutela uste duten pertsonen proportzioak, bai gizonen artean eta bai emakumeen artean, adin tarte guztietan. Eta, horrekin batera, antsietate eta depresio sintomak dituzten herritarren proportzioak gora egin du, modu orokorrean (3-12. taula).

3-12. TAULA Norberak bere osasunari buruz duen hautematea, sexuaren eta adinaren arabera, 2018-2023

	Gizonak					Emakumeak				
	15-24 urte	25-44 urte	45-64 urte	65-74 urte	75 urte eta gehiago	15-24 urte	25-44 urte	45-64 urte	65-74 urte	75 urte eta gehiago
Norberak osasun ona izatearen hautematearen bilakaera (p.p.)	-4.8	-3.3	-5.6	-3.4	-1.9	-3.3	-4.8	-5	-3.8	-3.1
Osasun mentalaren bilakaera (antsietate eta depresio sintomak edukitzea) (p.p.)	7.9	6.8	8.5	9.3	7.1	5.8	0.7	9.7	7.8	7.6

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun inkesta erabilita.

3.4.6 Laburpena

Inklusioa ongizatearen emaitzen bost dimentsioetan —bizitzarekiko gogobetetasuna, bizitza materiala, enplegua, gizarte bizitza eta osasuna— nola bermatzen den aztertu dugu, generoaren, adinaren eta jatorriaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoaren gaur egungo egoeran hainbat ezaugarri nabarmendu behar dira.

- Gizonek emakumeek baino **bizitzarekiko gogobetetasun** handixeagoa dute.
- Emakumeek, oro har, gizonek baino errenta txikiagoa dute, eta oso gazteek eta oso adinekoek ere **baliabide material** gutxiago dituzte.
- Soldata arrakala** nabarmena da bertakoen eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonen artean, eta arrakala hori handiagoa da gazteen artean. Bestalde, generoari lotutako soldata arrakala handiagoa da kualifikazio txikiko lanbideetan. Hori izan daiteke lanbide horietako emakumeak nagusiki zaintza lanetan aritzen direlako eta kualifikazio txikiko lanetan aritzen diren gizonak, ordea, industrian aritzen direlako.
- Pobrezia erreala** ez da soilik sexuaren eta adinaren arabera aldatzen, jatorriaren arabera ere aldatzen da. Emakumeak buru dituzten etxeek pobrezia handiagoa dute gizonak buru dituztenek baino; era berean, 35 urtetik beherako pertsonak buru dituzten etxeek adinekoak buru dituzten etxeek baino pobrezia handiagoa dute. Nolanahi ere, atzeritar jatorriko pertsonak buru dituzten etxeek dute pobrezia arriskurik handiena.
- Zailtasun ekonomiko horiek **etxebizitza eskuratzeko aukeretara** iristen dira gero, bi ikuspegitik. Alde batetik, agerikoa da Euskal Autonomia Erkidegoan jaio-tako pertsonak etxebizitza bat jabetzan eskuratzeko duten zailtasuna, bereziki, gazteek. Hala ere, etxebizitza bat jabetzan eskuratzeko are zailagoa da atzeritar jatorriko pertsonentzat. Pertsona horiek etxebizitza alokairuan izaten dute nagusiki. Beste alde batetik, atzeritar jatorriko pertsonak erabiltzen dituzten etxebizitzak egoera okerragoan daude, hezetasunari eta hotzari dagokienez.
- Etxebizitza bat eskuratzeko oztopoek **gazteen emantzipazioa** zailtzen dute.
- Emakumeek **lanarekiko gogobetetasun** txikiagoa dute, baina gizonek lanarekiko duten gogobetetasunak emakumeenak baino gehiago egin du okerrera. Era berean, emakumeek gizonek baino gatazka egoera gutxiago dituzte lanean.
- Desberdintasunak ikusten dira gizon eta emakumeen artean **etxeko lanen banaketan**, bereziki, seme-alaba adingabeen zaintzan. Emakume landunek gizonek

Soldata arrakala nabarmena da bertakoen eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonen artean, eta arrakala hori handiagoa da gazteen artean

Etxebizitza bat eskuratzeko oztopoek gazteen emantzipazioa zailtzen dute

Antsietate eta depresio sintomak dituzten pertsonen kopuruak gora egin du azken urteetan, eta horrek eragina izan dezake gizarte harremanetan, harreman emozionaletan eta enpleguan

baino ordu gehiago eskaintzen dizkiote egiteko horri egunero. Gizonek eta emakumeek etxeko lan mota desberdinei eskaintzen dieten denborarekin duten gogobetetasun maila antzekoa da; baina bikoteetan etxeko lanak nola banatzen diren ikusirik, gizon landunen gogobetetasun maila haien ezkontideena edo bikotekideena baino handiagoa da. Horrek ekar dezake emakume landunek gizon landunek baino gogobetetasun maila txikiagoa izatea aisiako gelditzen zaien denborari begiratuta.

- Gizonek **bere osasun egoeraren hautemate** hobea dute edozein adinetan. Antsietate eta depresio sintomak dituzten pertsonen kopuruak gora egin du azken urteetan, eta horrek eragina izan dezake gizarte harremanetan, harreman emozionaletan eta enpleguan. Gainera, kopuru hori handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.

Ondorioak eta gomendioak

Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko Txostenek bi helburu dituzte. Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko lehiakortasunaren eta ongizatearen gaur egungo egoeraren ezaugarriak argitu nahi ditugu, horretarako lurraldean lortu ditugun emaitzen eta etorkizuneko lehiakortasunean eta ongizatean eragina izango duten palanken egoeraren inguruko ahalik eta ikuspegi eguneratuena emanez. Beste alde batetik, urtero gai zehatz eta berritzaile bat aztertu nahi izaten dugu, garrantziko egungo testuinguruan, aurrean ditugun erronka eta aukera zehatzak identifikatzeko eta horietan aurrera egiteko gomendioak emateko.

Aurten, inklusioan sakondu nahi izan dugu. Erronka konplexua da, eta ongizatea helburu duen gure lehiakortasun esparruan zeharkako ardatz gisa azaltzen da. Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoan ditugun erronkak hobeto ulertzen ahalegindu gara, bai lehiakortasuna eraikitzeke prozesua eta bai ongizateari lotutako emaitzak benetan inklusiboak izan daitezzen. Izan ere, lehiakortasun inklusiboa eta ongizate inklusiboa txanpon beraren bi aldeak direla uste dugu, eta ezin direla bata bestea gabe ulertu. Ongizatearen emaitzak inklusiboak izatea ziurtatu nahi badugu, lehiakortasuna eraikitzen duten prozesuetan inklusioa sustatu beharko dugu, eta alderantziz.

Ongizatearen emaitzak inklusiboak izatea ziurtatu nahi badugu, lehiakortasuna eraikitzen duten prozesuetan inklusioa sustatu beharko dugu, eta alderantziz

Ekonomia eta enpresa lehiakortasuna

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia eta enpresa lehiakortasuna, oro har, oso sendoa da gaur egun ere. Pandemiaren osteko urteetan, Euskal Autonomia Erkidego biztanleko BPGk (42.149 € EAPan 2023an) Europar Batasuneko batezbestekoarekin (% 111) eta Espainiarekin (% 115) zuen alde positiboa handitu egin da, eta Alemaniarekin (% 96) zuen alde negatiboa, txikitu. Bilakaera horretan eragina izan du produktibitatearen hobekuntzak, bai ekonomia osoan eta bai manufaktura sektorean. Hobekuntza horren eraginez, unitateko lan kostuek behera egin dute eta enpresa errentagarritasuna hobetu da (horrek, bide batez, ondorio positiboak ditu zerga bilketan eta enpresek inbertitzeko duten gaitasunean).

EAEko ekonomia eta enpresa lehiakortasunak, oro har, oso sendoa izaten jarraitzen du

Gainera, nahiz eta ekintzailtza tasa orokorrak (TEA) Espainiako edo Europako mailen azpitik jarraitu, emaitzak onak dira ekintzailtza teknologikoan eta hazkunde handiko enpresetan. Era berean, 5 pertsonatik gorako lantaldea duten enpresen kopuruak ere gora egin du, eta, beraz, enpresen batez besteko tamaina handitzen ari da. Horri esker, errazagoa da enpresen tamainak baldintzatzen dituen lehiakortasunerako

Berrikuntza estrategikoa da ETEentzat, kritikoa baita epe ertain eta luzera ekonomiaren produktibitatearen igoera iraunkorrak sortzeko

estrategiak lantzea, hala nola nazioartekotze edo berrikuntza estrategiak. Hain zuzen ere, nazioartekotzearen emaitzei dagokienez, pandemiaren osteko gailurraren ondoren esportazioek 2023an behera egin bazuten ere, Euskal Autonomia Erkidegoak EB-27ren batezbestekoarekiko duen kokapena nabarmen hobetu da azken urteetan, baita 2023an ere.

Enpresa txiki eta ertainen berrikuntzan, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoan ahuleziak izaten jarraitzen dugu. Hala eta guztiz ere, produktuko eta prozesuko berrikuntza egiten duten ETEen ehunekoak gora egin du. Bereziki enpresa txikietan ikusten da alderik handiena Europako parekoekin, eta enpresa ertainetan desabantailak irauten du, bereziki, antolaketako eta marketineko berrikuntzetan. ETEen estrategiak arrisku eta disrupzio maila txikikoak dira, eta berritzeko ikusten dituzten oztupoek zerikusi handiagoa dute berrikuntzaren kostu altuekin eta enpresan beste lehentasun batzuk egotearekin jakintzarekin baino.

Berrikuntza eta ekoizkortasuna sustatzea: Berrikuntza estrategikoa da enpresa txiki eta ertainentzat, kritikoa baita epe ertain eta luzera ekonomiaren produktibitatearen igoera iraunkorrak sortzeko. Kultura berritzailea sustatzen jarraitu behar da, horretarako berrikuntzari lotutako kostuak murrizten lagunduz, erregulazioak eta tramitazioak sinplifikatuz, eta antolaketako eta marketineko berrikuntzak bultzatuz, produktuko eta prozesuko berrikuntzen osagarri. Ahalegin horiek, bereziki, tamaina txikiagoko enpresetan egin behar dira.

Ongizatea

Ongizateari dagozkion adierazleetan, askotariko egoerak ditugu. Euskal Autonomia Erkidegoa Europar Batasuneko batezbestekoaren pare edo gaineratik dago 17 adierazletatik 11tan, baina adierazleen erdietan gutxi gorabehera, azken urtean bilakaera negatiboa izan du

Ongizateari dagozkion adierazleetan, askotariko egoerak ditugu. Euskal Autonomia Erkidegoa Europar Batasuneko batezbestekoaren pare edo haren gainetik dago datu alderagarriak dituzten 17 adierazleetatik 11tan. Horrek agerian uzten du, beste lurraldeekin alderatuta, ongizate maila altuak ditugula. Hala ere, adierazleen erdietan gutxi gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoak bilakaera negatiboa izan du azken urtean.

Nabarmentzekoa da enpleguaren dimentsioan bilakaera ona izan dela eta, horri esker, Europarekiko aldea murriztu ahal izan da. Helduen ikaskuntzan ere bilakaera ona da. Baina gazteen hezkuntza emaitzek okerrera egin dute, PISA txostenaren emaitzei begiratuz gero. Gizarte bizitzan, pertsonenganako konfiantzaren bilakaera positiboa azpimarratu behar dugu, nahiz eta delituek nolabaiteko gorakada izan. Osasunaren dimentsioari dagozkion emaitzek oso onak izaten jarraitzen dute, beste lurraldeekin alderatuta. Nolanahi ere, adierazleetan atzera egin dela nabaritzen da. Bizitza materialean ere egoera ona da, oro har, baina elementu batzuk kezkarriak dira, esate baterako, etxeetako errentaren medianak azken bi urteetan behera egin duela, nahiz eta biztanleko BPG hazi. Ingurumenaren dimentsioan bilakaera okerragoa izan da, bai termino absolutuetan (berotegi efektuko gasen eta airearen kutsatzaileen isuri maila handitu egin dira) eta bai EB-27ko batezbestekoarekin alderatuta ere.

Ongizate mailak diru sarrera mailen eta hezkuntza mailen arabera nola aldatzen diren aztertuz gero, ikusiko dugu etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak handiak direla, baita diru sarrera egonkorrak eta unibertsitate ikasketak dituztenen edo lanbide finkoa dutenen artean ere. Bestalde, osasun mentalari begiratuta, antsietate eta depresio sintomak ikusten dira diru sarrera baxuak dituztenen artean.

Ongizatearen mehatxuei aurre egitea: Euskal Autonomia Erkidegoan ongizate maila altuak lortu eta azken urteetan tradizioz ahulak izan diren arlo batzuetan, esate baterako, enpleguan adierazleak nabarmen hobetu arren garrantzitsua da ongizate horren gaineko mehatxuez jabetzea. Mehatxu horien artean aipatzekoak dira osasunari lotutako joera negatiboak eta desberdintasunak, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak eta gazteen hezkuntza arloko emaitzak. Nolanahi ere, erronka handienak ongizatearen ingurumen dimentsioan ditugu. Dimentsio horretan, guztiz premiazkoa da gure gizartean modu ordenatuan eta izan ditzakeen gizarte eraginak zainduz trantsizio berdea bizkortzea, Lehiakortasunari buruzko iazko Txosteneko (Orkestra, 2023) ondorioetan aipatzen guden bezala.

Garrantzitsua da EAEn lortu diren ongizate maila altuen gaineko mehatxuez jabetzea

Lehiakortasunerako eta ongizaterako palankak

Palanka dinamikoen gainean lan egin dezakete gobernuek, enpresek eta beste eragile batzuek lehiakortasunaren eta ongizatearen emaitzak hobetzeko. Kapital fisikoaren, gizarte kapitalaren, eta, bereziki, giza kapitalaren palanketan egoera ona da Euskal Autonomia Erkidegoan. Giza kapitalaren palankan, Europar Batasunean baino maila hobea dugu abiapuntu eta hobera egin da, gainera, hezkuntzarekin eta enpleguarekin lotutako adierazle guztietan. Kapital fisikoaren palankaren bilakaera ere positiboa da, oro har. Gauza bera gertatzen da lankidetzarekin lotutako alderdiekin ere, gizarte kapitalaren palankan. Aldagai horretan, bilakaera positiboa da, bai absolutua eta bai alderatua; gobernuaren kalitatearen hautematean, ordea, emaitzek okerrera egin dute.

Kapital fisikoaren, gizarte kapitalaren, eta, bereziki, giza kapitalaren palanketan egoera ona da

Finantzaketaen palankak denetariko irudiak erakusten dizkigu: enpresen ondare garbiak eta atzerrian metatutako inbertsioak bilakaera ona dute, baina atzerriko inbertsioaren sarrerako stockak behera egin du, eta horrek kanpoko finantzaketa erakartzeko nolabaiteko zailtasuna adieraz dezake.

Erronka handienak jakintzaren eta kapital naturalaren palanketan daude. Jakintzaren palankan, ingurumen teknologietako patenteen norabidea positiboa da, eta argitalpen maila, nahiz eta zertxobait jaitsi den, Europako eta Alemaniako batezbestekoaren gainetik dago. Erronka nagusiak I+Gko gastuaren mailan eta patenteetan ditugu, eta, horrekin batera, digitalizazioarekin lotutako arlo espezifikoetan. Digitalizazioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoak indarguneak ditu biztanleriaren gaitasun digitaletan eta, batez ere, azpiegiturretan, baita zerbitzu publikoen digitalizazioaren elementu batzuetan ere. Baina gabeziak ikusten dira IKT espezialistetan eta enpresa digitalizazioaren zenbait alderditan, esate baterako makrodatuen, hodeiaren eta adimen artifizialaren erabileran.

Kapital naturalaren dimentsioan azpimarratzekoa da aztertutako adierazle gehienetan Euskal Autonomia Erkidegoa batezbestekoaren gainetik badago ere, azken urteko hobekuntza EB-27ko batezbestekokoa baino txikiagoa izan dela. Erronkarik handiena energia berriztagarrien kuotan dugu, EB-27ko batezbestekoaren azpitik baitago eta, gainera, okerrera egin baitu, EBn baino neurri handiagoan. Beraz, azken hamarkadan aldea ez da murriztu. Energia berriztagarrien presentzia handiagoko energia sistema baterantz joateko erronkak aldaketa teknologikoak, sozialak eta portaerazkoak eskatzen ditu. Eta horrek, gainera, ongizate inklusiboa erraztu dezake, hainbat bidetatik, esate baterako kontsumitzailearen ahalduntzea, enplegu aukera berriak sortzea edo airearen kalitatea eta pertsonen osasuna hobetzea bultzatuz.

Agerikoa da kapital naturalaren eta jakintzaren palankak indartzeko ekintzei eta estrategiei lehentasuna emateko beharra

Lehiakortasun digital-teknologiko-berdea sustatzea: Lehiakortasunerako eta ongizaterako beste palankak ahaztu gabe, euskal ekosistemako eragileek ekintzak eta estrategiak lehenetsi behar dituzte, kapital naturalaren eta jakintzaren palankak indartzeko. I+Gn inbertitzearekin eta jakintza berria merkaturatzearekin batera, jasangarritasunarekiko eta digitalizazioarekiko sentsibilitate berezia landu behar da, gure industriak lehiakortasun digital-teknologiko-berde baterako trantsizioaren abangoardian jartzeko aukera izan dezan. Gainera, energia eta erregai berriztagarrien presentzia handiagoa duen energia-sistema bateranzko erronkak hainbat bidetatik erraztu dezake ongizate inklusiboa, hala nola kontsumitzaileen ahalduntzea, enplegu-aukera berriak sortzea edo airearen kalitatean eta pertsonen osasunean ondorio positiboak izatea.

Inklusioa, lehiakortasunaren eta ongizatearen motorra, testuinguru demografiko aldakor batean

2024an, 1970eko hamarkadaren hasierako biztanleriaz oso bestelakoa dugu Euskal Autonomia Erkidegoan. Alde batetik, lan egiteko adinean dauden pertsonen proportzioa antzekoa bada ere (% 60), gazteen ehuneko handiaren ordezkari kolektibo handiagoa dugu gaur egun. Beste alde batetik, mende honen hasieran Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren %2 besterik ez zen atzerrian jaioa eta 2023an, ordea, kopuru hori % 12koa da. Eta azkenik, atzeritar jatorriko pertsonen profila dibertsifikatzen joan da eta gaur egun, atzeritar jatorriko 10 pertsonatik 3 inguru jatorri amerikarrek emakumeak dira, 2 jatorri bereko gizonak dira, beste bi munduko gainerako herrialdeetako gizonak dira (batez ere Magrebekoak) eta beste hirurak munduko beste herrialde batzuetako emakume bat eta jatorri europarrek gizon bat eta emakume bat izango lirake.

Biztanleria askoz ere zaharragoa da orain eta, jatorriari begiratuta, askoz ere anitzagoa. Eta horrek ondorio garrantzitsuak ditu inklusioak gure lurraldeko lehiakortasunean eta ongizatean duen rolean

Biztanleria askoz ere zaharragoa da orain eta, jatorriari begiratuta, askoz ere anitzagoa. Eta horrek ondorio garrantzitsuak ditu inklusioak gure lurraldeko lehiakortasunean eta ongizatean duen rolean. Lehiakortasun inklusiboa lurralde bateko pertsona guztiek, beren onena emanaz, merkaturako eta merkatutik kanpo balioa sortzen parte hartzeko prozesua dela ulertuko dugu. Lehiakortasun inklusiboa duten lurraldeetan, pertsona guztiek aukera izan beharko lukete eskuragarri dituzten ongizate emaitzak eraikitzen parte hartzeko.

Beraz, inklusioa lehiakortasunaren eta ongizatearen motor gisa aztertzeko, funtsezkoa da parte hartzearen eta sarbidearen alderdiak lantzea. Inklusioa, sarbide gisa, ongizatearen emaitzekin lotzen da; inklusioa, parte hartze gisa, berriz, lehiakortasunerako palanka dinamikoekin lotzen da, batez ere giza kapitalarekin eta gizarte kapitalarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko inklusioaren ardatzean sakontzeko, txosten honetan pertsonengan jarri dugu arreta; izan ere, pertsonen bizi dute, azken batean, desberdintasuna eta bazterketa eta haiek har dezakete parte lehiakortasuna eta ongizatea eraikitzen. Pertsona guztien inklusioa aztertzea oso konplexua dela aitortuz, gure azterketarako inklusioa pertsonen adinaren, generoaren eta jatorriaren arabera nola aldatzen den landu dugu. Hiru ezaugarri demografiko horiek lotura dute Euskal Autonomia Erkidegoko lehiakortasunerako eta ongizaterako erronka eta aukera kritiko batzuekin.

Dibertsitatea besarkatzea: Egoera demografikoa aldakorra den garai hauetan, garrantzi berezia du lehiakortasun prozesuetan pertsona guztien inklusioa lortzeko aktiboki lan egiteak. Generoari, migratzaileei, adin desberdinetako pertsonen eta abarri lotutako inklusio horrek jardura tasak handitzeko eta enpresek belaunaldi arteko erreleboari eta mota guztietako talentua bilatzeko erronkei erantzuteko aukerak handitzen ditu eta, horrela, lehiakortasuna eta ongizatea sortzen laguntzen du. Gainera, garrantzitsua da aniztasun hori enpresetan eta beste erakunde batzuetan kudeatzen (eta gidatzen) ikastea, erakundeen errendimenduan, berrikuntzan edo nazioartekotzean izan ditzakeen onurak aprobetxatzeko.

Inklusioak
—generoari,
migratzaileei, adin
desberdinetako
pertsonen eta
abarri lotuta—
jardura tasak
handitzeko eta
enpresek talentua
bilatzeko erronkari
erantzuteko
aukerak handitzen
ditu

Inklusioa, lehiakortasuna eraikitze prozesuetan parte hartze gisa ulertua

Giza kapitalaren palankan, inklusioa aztertu nahi izan dugu, generoaren, adinaren eta jatorriaren arabera. Azterketa horrek argi uzten du hiru elementu horiek pertsonen enplegarritasuna baldintzatzen dutela eta lan merkatuan sartzeko erabakietan, lanpostu bat lortzeko aukeretan eta lan baldintzetan eragina dutela.

Landunen tasak, orokorrean, txikiagoak dira emakumeen artean eta atzerrian jaio-takoen. Emakumeei dagokienez, zaintzarekin lotutako etxeko zereginen denbora gehiago eskaintzeak eragin zuzena du lan merkatuan sartzeko aukeretan. Atzeritarrek beste oztupo batzuk dituzte lana aurkitzeko, horien artean daude lan esperientzia, heziketa maila eta egoera erregularizatzeko prozesuak.

Garatutako lan jardura motari dagokionez, gizonen presentzia handiagoa dute industria sektorean eta emakumeek administrazio publikoan (hezkuntza eta osasunean). Jatorri amerikarrek eta Europako gainerako gizon eta emakumeek okupazio handiagoa dute merkataritzan, garraioan eta ostalaritzan, eta gainerako munduan jaio-tako gizonen erakuntza gehiago lan egiten dute. Atzerriko emakumeek, eta bereziki amerikarrek, presentzia handiagoa dute beste zerbitzu batzuetan, etxeko langileak barne. Bertako pertsonen dituzte trebetasun gehien eskatzen duten lanbideak, kudeaketako lanetan, profesioetan eta teknikoetan ari baitira. Atzeritar jatorrikoak, berriz, oinarritzko zereginetan aritzen dira. Emakumeak enpresa-munduan gero eta gehiago sartzeko ez da bat etorri hauek erabakiak hartzeko postuetan duten presentzia handiagotzearekin.

Kontratu motari dagokionez, aldi bateko kontratuak gehiago eragiten diete emakumeei gizonen baino, eta gizonen artean, gehiago atzeritar jatorrikoen bertakoei baino. Kontratu mota horrek presentzia handiagoa du, halaber, gazteen artean. Gainera, lanaldi osoa ohikoagoa da gizonen eta adineko pertsonen artean; emakumeek, berriz, nahi gabeko partzialtasun handiagoa dute. Atzeritar jatorriko pertsonen artean, kontraturik gabeko edo gizarte segurantzako afiliatorik gabeko enpleguak nabarmentzen dira, ziurrenik pertsona horien duten egoera juridiko irregularragatik.

Gaitasunei dagokienez, bertako biztanleek atzeritar jatorrikoen baino prestakuntza maila handiagoa dute. Gainera, hirugarren mailako prestakuntza handiagoa da emakumeen artean, gizonen handiagoa hirugarren mailakoa ez diren derrigorrezkoen ondoko ikasketetan eta emakumeek gizonen baino neurri handiagoa jarraitzen dute prestakuntza jasotzen. Hala ere, gizonen (% 11.8), emakumeen (% 16.4) eta atzeritar jatorriko pertsonen (% 21.8) adierazten dute lanpostuan eskatzen dena baino prestakuntza maila handiagoa dutela. Beraz, badirudi ez direla behar bezala aprobetxatzen

ari pertsonen gaitasunak, batez ere emakumeenak eta atzerriar jatorriko pertsonenak, eta horrek eragina du pertsona horien ongizatean eta lurraldearen lehiakortasunean.

Azkenik, gizarte eta erakunde kapitalaren palankan ikusten da atzerriar jatorriko pertsonak, oro har, EAEn jaiotakoek baino konfiantza txikiagoa dutela pertsonengan, baina konfiantza handiagoa erakundeetan. Bestalde, bertakoek sare pertsonal zabaloak dituzte eta haietan bilatzen dute laguntza. Era berean, erraztasun gehiago dituzte finantza eta osasun laguntza eta laguntza emozionala eskuratzeko. Egoera horien ondorioz, atzerriar jatorriko pertsonak bertakoek baino independentzia pertsonal handiagoa dute. Gai soziopolitikoekiko interesa oso antzekoa da, jatorria edozein dela ere, baina atzerriar jatorriko pertsonak askoz ere neurri txikiagoan hartzen dute parte hauteskundeetan, guztiek ez dutelako botoa emateko eskubiderik.

Ez gara
aprobatzen ari
EAEn bizi diren
pertsona guztien
parte hartzea
edo gaitasunak,
bereziki,
emakumeenak eta
atzerriar jatorriko
pertsonenak

Pertsona guztien gaitasunen gainean eraikitzea: Gure azterketak adierazten du ez direla aprobetxatzen Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztien parte hartzea edo gaitasunak, bereziki, emakumeenak eta atzerriar jatorriko pertsonenak. Talde horiek parte hartzeko dituzten oztopoak landu behar dira, haien gaitasunak eta lurraldearen beharrak kontuan hartuta. Emakumei dagokionez, oztopo horiek zaintza lanen banaketarekin ere lotuta daude; atzerriarren kasuan, berriz, beste jarduerak batzuk dira garrantzitsuagoak: administrazio egoerari irtenbideak bilatzea, sare pertsonalak sustatzea, eta enpresen beharrek inbentariatuta egongo diren prestakuntzako laguntzak eta aukerak eskuratu ahal izango dituztela ziurtatzea (bereziki, lanbide heziketako sistemaren bidez).

Inklusioa, ongizatearen emaitzetarako sarbide

Inklusioa ongizatearen emaitzen bost dimentsioetan —bizitzarekiko gogobetetasuna, bizitza materiala, enplegua, gizarte bizitza eta osasuna— nola bermatzen den aztertu dugu, generoaren, adinaren eta jatorriaren arabera.

Alde batetik, bizitzarekiko gogobetetasunari dagokionez, ez dago alde handirik emakumeen eta gizonen artean. Bizitza materialean, ordea, emakumeek, oro har, gizonak baino errenta txikiagoak dituzte, eta pobrezia erreala handiagoa da emakumeak buru dituzten etxeetan. Era berean, errentak txikiagoak dira eta pobrezia handiagoa da gazteen artean eta, bereziki, atzerriar jatorriko pertsonak buru dituzte etxeetan dago pobrezia arrisku handiena. Bertako eta atzerriar jatorriko pertsonen artean soldata arrakala nabarmena da (% 34.3) eta bai eta ere 25-34 urte bitarteko gazteen artean (% 27.9) 55 urte edo gehiago dituzten pertsonekin alderatuz. Emaitza horiek etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunetan ere islatzen dira: etxebizitza bat jabetzan edukitzea zaila da, bereziki gazteentzat, eta are zailagoa atzerriar jatorriko pertsonentzat.

Enpleguaren eremuan, emakumeek gogobetetasun txikiagoa dute lanarekiko, baina gizonen gogobetetasunak emakumeenak baino gehiago egin du okerrera. Bestalde, osasunari dagokionez, gizonak beren osasun egoeraren inguruko hautemate hobea dute emakumeek baino, edozein adin tartetan. Gainera, emakume gehiagok dituzte antsietate eta depresio sintomak gizonekin alderatuta, bereziki 45-64 urteko adin tartetan. Eta horrek eragina izan dezake gizarte harremanetan, harreman emozionalean eta lan harremanetan.

Azkenik, gizarte bizitzari dagokionez, desberdintasunak ikusten dira gizon eta emakumeen artean etxeko lanen banaketan, bereziki, seme-alaba adingabeen zaintzan. Emakume landunek gizonak baino ordu gehiago eskaintzen dizkiote egiteko horri egunero.

Ongizateko emaitzetan inklusioa handitzea: Ongizate maila, oro har, handia bada ere, ongizatearen dimentsioetako batzuk ez dira berdin iristen gizarteko talde guztietara, eta horrek arreta berezia eskatzen du, benetan inklusioa izango den ongizatea lortzeko. Bereziki, hiru alderditan jarri beharko genuke arreta: diru sarreretan dagoen genero arrakala gainditzeko lan egin behar da, gazteek eta atzerritarrek etxebizitza bat eskuratzeko dituzten zailtasun handiei irtenbideak bilatu, eta osasun mentaleko arazoek emakumeei gizonezkoei baino gehiago zergatik eragiten dieten hobeto ulertu.

Diru sarreretan dagoen genero arrakala gainditzeko lan egin behar da, gazteek eta atzerritarrek etxebizitza bat eskuratzeko dituzten zailtasun handiei irtenbideak bilatu, eta osasun mentalak okerrera egitearen arrazoiak hobeto ulertu

Laburbilduz, Txosten honek gure lurraldean lehiakortasun ekonomikoaren eta ongizatearen emaitzak, beste lurralde batzuekin alderatuta, onak direla erakusten digu eta, gainera, nahiko inklusiboak. Aurreko urteetako Txostenen emaitzak indartuz, erronka handienak jakintzaren eta kapital naturalaren palanketan eta berrikuntzako eta ingurumeneko emaitzetan ditugu. Lehiakortasunari lotutako erronka horiek eta beste batzuk gaur egungo egoera demografiko aldakorrean landu ahal izateko, bereziki garrantzitsua da modu aktiboan lan egitea lehiakortasun prozesuak pertsona guztientzat inklusiboak izateko. Horrela, hobeto aprobetxatuko ditugu gaur egungo gaitasun guztiak. Horrekin batera, pertsonen gaitasunak sendotu ditzakegu, bizitza osoaren zeharreko hezkuntzaz baliatuta. Bestalde, gure enpresetan eta erakundeeetan aniztasuna egoki kudeatzen ere ikasi behar dugu eta lidergo egokiak sortu, aniztasuneko testuinguru hauetan. Inklusioaren dimentsioak lantzeko plan eta politika ugari daude, bakoitzak bere zeregina du prozesu honetan. Eta ongizate inklusioa sortuko duen lehiakortasun inklusioa bilatzerakoan, garrantzitsua izango da bien arteko loturak, kontraesanak eta sinergiak lantzea, lurraldeak ekonomia eta enpresa lehiakortasunaren ikuspegitik dituen beharrak eta lurralde horretako pertsonen ongizatearen beharrak lerrokatzeko.

Erreferentzia bibliografikoak

- Aasland, A. eta Fløtten, T. (2001). Ethnicity and social exclusion in Estonia and Latvia. *Europe-Asia Studies*, 53(7), 1023-1049.
- AED (2024). *Avance de la presencia de mujeres en los órganos de dirección de las empresas de Euskadi*, https://www.aedbiz.org/wp-content/uploads/2024/02/AED_OBSERVATORIO-MUJER_PRESENTACION-26-02.24-2024.pdf
- Alkorta, M., Elola, A. eta Wilson, J. R. (2024). La innovación en las pymes de Euskadi: Análisis y reflexión a partir de la encuesta de innovación/Berrikuntza Euskadiko ETEetan: analisia eta hausnarketa berrikuntza inkesta oinarri hartuta, *Orkestrako Koadernoak*, 07/2024, <https://doi.org/10.18543/ECII3722>
- Basque Trade & Investment, SPRI eta Eusko Jaurlaritza (2024). *Presencia de la mujer en la Internacionalización empresarial vasca – Basque Women in Global*, https://www.spri.eus/archivos/2024/05/pdf/resumen_resultados_estudio_mujeres-en-internacionalizacion_basquetrade-1.pdf
- Bisquerra (2013). *Cuestiones sobre bienestar*. Síntesis argitaletxea.
- Borgström, D., Canto-Farachala, P., Hagen, A. L., Norvoll, R., Rådmark, L. eta Lorenzen, S. B. (2024). *Handbook of Youth Citizen Social Science. Working with Young People and the Local Community for Social Change*, <https://doi.org/10.5281/zenodo.10566411>
- Bradbury H. (2023). *How to do action research for transformations*, Cheltenham: Edward Elgar.
- Butkevičienė, E., Pučėtaitė, R., Vaičiūnienė, J., Norvoll, R., Canto, P., Lorenz, U., Juricek, S., Freiling, I., Matthes, J., Jørgensen, M. S., Pataki, G., Czeglédi, A., Gatti, F. eta Procentese, F. (2021). *Report on the conceptual, innovative, evaluation and ethical framework for youth citizen social science* (1. bertsioa), <https://doi.org/10.5281/zenodo.6089150>
- Canto, P., Oleaga, M. eta Ugalde, E. (2023). Competitividad para el bienestar: Contribución del modelo vasco de inclusión sociolaboral para personas con discapacidad/Ongizatea helburu duen lehiakortasuna: desgaitasuna duten pertsonen gizarte eta lanerako inklusiorako euskal ereduaren ekarpena, *Orkestrako Koadernoak*, 04/2023.
- Caramizaru, E. eta Uihlein, A. (2020). *Energy communities: An overview of energy and social innovation*, Europar Batasuneko Argitalpen Zerbitzua, <https://data.europa.eu/doi/10.2760/180576>
- DellaValle, N. eta Czako, V. (2022). Empowering energy citizenship among the energy poor, *Energy Research & Social Science*, 89 (102654), <https://doi.org/10.1016/j.erss.2022.102654>
- Durkheim, E. (1964). *The Division of Labour in Society*, New York: The Free Press.
- El referente (2024). *Informe Empresas Tech e Innovadoras España 2024*, <https://elreferente.es/informe-empresas-tech-espana-2024/>
- ELGE, Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Erakundea (2020). *Promoting an Age-Inclusive Workforce: Living, Learning and Earning Longer*, Paris: OECD Publishing, <https://doi.org/10.1787/59752153-en>

- ELGE (2023a). *Towards a triple transition: Strategies for transformational European development action*, Paris: OECD Publishing.
- ELGE (2023b). *Boosting Social Inclusion in Spain: Improving Pathways and Co-ordination of Services*, Paris: OECD Publishing, <https://doi.org/10.1787/56b604a0-en>
- Esping-Andersen, G. eta Billari, F. C. (2015). Re-theorizing family demographics, *Population and development review*, 41(1), 1-31, <https://doi.org/10.1111/j.1728-4457.2015.00024.x>
- Europako Batzordea (2020). *A New Industrial Strategy for Europe*, COM(2020)102.
- Europako Batzordea (2021). *Updating the 2020 New Industrial Strategy: Building a Stronger Single Market for Europe's Recovery*, COM(2021)350/2.
- Europako Batzordea (2023a). *Regional Innovation Scoreboard 2023*, Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Zerbitzua, <https://data.europa.eu/doi/10.2777/70412>
- Europako Batzordea (2023b). *2030 Digital Decade: Report on the state of the Digital Decade 2023*, Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Zerbitzua, <https://data.europa.eu/doi/10.2759/318547>
- European Council (2020). *The clean air package: Improving Europe's air quality*, <https://www.consilium.europa.eu/en/policies/clean-air/#:~:text=The%20clean%20air%20package%20aims,-for%20emissions%20and%20air%20pollution>
- Eusko Jaurlaritza, Osasun Saila (2024). *Metodología. Encuesta de salud del País Vasco 2023*, https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/enc_salud_23_metodologia/es_def/ad-juntos/Metodologia-encuesta-salud-2023.pdf
- Eusko Jaurlaritza, Justizia eta Giza Eskubideen Saila (2024). *Gizarte premien inkesta 2022 PGDI modulua — pobrezia. Emaita nagusiak*, https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/epds_ens_2022/es_epds2012/INFORME_2022_cas.pdf
- Falk, I., Golding, B. eta Balatti, J. (2000). *Building communities: ACE, lifelong learning and social capital*. Melbourne: Centre for Research and Learning in Regional Australia, University of Tasmania Launceston.
- Franco, S., Sánchez, A. eta Wilson, J. R. (2024). Economía y sociedad digitales del País Vasco: DESI 2023/Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia eta gizarte digitalak: DESI 2023. *Orkestrako Koadernoak*, 01/2024, <https://doi.org/10.18543/DVOC9093>
- Gamboa-Navarro, J.P., Moso Díez, M., Albizu Echevarria, M., García Blázquez, I., Mondaca Soto, A., Murciego Alonso, A., Navarro Arancegui, M. (2023). Espainiako Lanbide Heziketako Behatokia. 2023ko txostena: Lanbide Heziketa gizarte erronken aurrean. Euskal Autonomia Erkidegoko separata. CaixaBank Dualiza. https://www.observatoriofp.com/downloads/2023/regional-reports/Observatorio_2023_Separata_Pais_Vasco.pdf
- Garmendia-Lazcano, A., Baselga-Pascual, L., Gil de San Vicente, I., Sisti, E. eta Aizpuru Arruti, I. (2023). Grupos empresariales en Euskadi/Enpresa taldeak Euskal Autonomia Erkidegoan, *Orkestrako Koadernoak*, 05/2023, <https://doi.org/10.18543/MLBS9812>
- Gidley, J., Hampson, G., Wheeler, L. eta Bered-Samuel, E. (2010). Social Inclusion: Context, theory and practice, *The Australian Journal of University Community Engagement*, 5(1), 6-36.
- Goldscheider, F. K. (2000). Men, children and the future of the family in the third millennium, *Futures*, 32(6), 525-538. [https://doi.org/10.1016/S0016-3287\(00\)00005-7](https://doi.org/10.1016/S0016-3287(00)00005-7)
- Graafland, J. (2023). Economic freedom and life satisfaction: A moderated mediation model with individual autonomy and national culture, *European Journal of Political Economy*, 79, 102448, <https://doi.org/10.1016/j.ejpoleco.2023.102448>
- Gray, M. eta James, A. (2007). Connecting gender and economic competitiveness: lessons from Cambridge's high-tech regional economy, *Environment and Planning A*, 39(2), 417-436, <https://doi.org/10.1068/a37406>
- Immigrazioaren Behatoki Iraunkorra (OPI) (2024). *Estadística de personas con autorización de residencia por arraigo - Metodología*, https://www.inclusion.gob.es/documents/3976286/3994811/Metod_Arraigo.pdf/4349f817-9518-fe54-09bc-7149752df473?t=1713360053088



- Impicciatore eta Semenza (2017). Ageing and its determinants: potentialities and challenges for employment in Southern Europe, *International Journal of Work Innovation*, 2(2-3), 121-142, <https://doi.org/10.1504/IJWI.2017.091367>
- Inglehart, R., Foa, R., Peterson, C. eta Welzel, C. (2008). Development, Freedom, and Rising Happiness: A Global Perspective (1981–2007), *Perspectives on Psychological Science*, 3(4), 264-285, <https://doi.org/10.1111/j.1745-6924.2008.00078.x>
- Izulain, A. (2024). La influencia de los valores sociales en el desarrollo de visiones de futuro sobre competitividad al servicio del bienestar: El caso del País Vasco (argitaratu gabeko eskuizkribua).
- Kamp, B, Carrillo, F. eta Pescarín, F. (2024). Análisis de la inversión extranjera directa en la economía vasca y sus empresas y valoración de su efecto sobre la competitividad/Euskal ekonomia eta enpresetako atzerriko zuzeneko inbertsioaren analisisa eta lehiakortasunean duen eraginaren balioespena, *Orkestrako Koadernoak*, 04/2024. <https://doi.org/10.18543/UNQI4092>
- Kamp, B. eta Ruiz de Apodaca, I. (2023). Leveraging (in)formal early-mover and diligent-follower advantage mechanisms to attain international niche market leadership: insights from Basque «hidden champions», *Competitiveness Review*, 33(6), 1013-1045, <https://doi.org/10.1108/CR-10-2022-0158>
- Levitas, R., Pantazis, C., Fahmy, E., Gordon, D., Lloyd, E. eta Patsios, D. (2007). *The Multi-Dimensional Analysis of Social Exclusion*, Bristol: Department of Sociology and School for Social Policy, Bristol Institute for Public Affairs, University of Bristol.
- Lorenz, U., Norvoll, R., Gatti, F., Hagen, A. L., Procentese, F., Ridley, J., Turda, M. eta Wilson, S. (2024). *Policy Brief: Recommendations for Youth Citizen Social Science and Future Policymaking for Social Inclusion of Youth*, <https://doi.org/10.5281/zenodo.10566858>
- Mascareño, A. eta Carvajal, F. (2015). *Los distintos rostros de la inclusión y la exclusión*, Washington D.C, CEPAL.
- McDonald, P. (2000). Gender equity in theories of fertility transition. *Population and development review*, 26(3), 427-439, <https://doi.org/10.1111/j.1728-4457.2000.00427.x>
- Monitor Deloitte, E.DSO eta Eurelectric (2021). *Connecting the dots: Distribution grid investment to power the energy transition*, <https://www.eurelectric.org/publications/connecting-the-dots/>
- Moyano, R. (2020). Brecha social y brecha digital. Pobreza, clima educativo del hogar e inclusión digital en la población urbana de Argentina, *Signo y Pensamiento*, 39(77), 1-14.
- Orkestra (2021). *Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2021eko Txostena: Ongizatea helburu duen lehiakortasuna eraikitzea*. Orkestra – Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak.
- Orkestra (2022). *Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2022ko Txostena: Lehiakortasunaren oinarriak ziurgabetasun garaian*. Orkestra – Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak.
- Orkestra (2023). *Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiakortasunari buruzko 2023ko Txostena: Ingurumenaren aldetik jasagarria izango den lehiakortasunerako trantsizioa*. Orkestra – Lehiakortasunerako Euskal Institutua, Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak.
- Prati, F., Crisp, R. J. eta Rubini, M. (2020). 40 Years of Multiple Social Categorization: A Tool for Social Inclusivity. *European Review of Social Psychology*, 32(1), 47-87, <https://doi.org/10.1080/10463283.2020.1830612>
- Procentese, F. eta Gatti, F. (2024). Citizen Social Science for Social inclusion, lan honetan: Borgström, D., Canto-Farachala, P., Hagen, A. L., Norvoll, R., Rådmark, L. eta Lorenzen, S. B. (2024), *Handbook of Youth Citizen Social Science. Working with Young People and the Local Community for Social Change*, <https://doi.org/10.5281/zenodo.10566411>
- Rodríguez Enríquez, C. M. (2015). Economía feminista y economía del cuidado: Aportes conceptuales para el estudio de la desigualdad. *Nueva Sociedad*, 256.

- Simon, H. (2009): *Hidden champions of the 21st century: success strategies of unknown world market leaders*, London: Springer.
- Simon, H. (1996): *Hidden champions: lessons from 500 of the world's best unknown companies*, Boston: Harvard Business School Press.
- Solheim, M. C. eta Herstad, S. J. (2018). The differentiated effects of human resource diversity on corporate innovation, *International journal of innovation and technology management*, 15(05), 1850046.
- Solheim, M. C. eta Fitjar, R. (2018). Foreign Workers Are Associated with Innovation? But Why? International Networks as a Mechanism, *International Regional Science Review*, 4(3), 311-334.
- SPRI, Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapenerako Saila (2023). *Impacto de la mujer en la competitividad industrial, 2023*, https://www.spri.eus/archivos/2023/11/pdf/2023_spri_impact-of-women-in-industrial-competitiveness-2.pdf
- Talmage, C. eta Knopf, R. C. (2017). Rethinking diversity, inclusion, and inclusiveness: The quest to better understand indicators of community enrichment and well-being, *New dimensions in community well-being*, 7-27.
- Trepte, S. eta Loy, L. S. (2017). Social Identity Theory and Self-Categorization Theory, en *The International Encyclopedia of Media Effects*, <https://doi.org/10.1002/9781118783764.wbieme0088>
- Verme, P. (2009). Happiness, freedom and control, *Journal of Economic Behavior & Organization*, 71(2), 146-161, <https://doi.org/10.1016/j.jebo.2009.04.008>
- Venohr, R. eta Meyer, K. E. (2007). *The German miracle keeps running: how Germany's HCs stay ahead in the global economy*, Berlin: Berlin School of Economics.
- Valero, B., Alcantarilla, R., Marcuello, C. eta Díaz Foncea, M. (2021). *Las comunidades energéticas como herramienta de transformación social*, https://ecodes.org/images/que-hacemos/MITERD-2023/Informe_MITERD_Comunidades_Energéticas.pdf
- Verna, A. (2020). Critical review of literature of the impact of workforce diversity (specifically age, gender and ethnic diversity) on organizational competitiveness, *Asian Journal of Management*, 11(1), 125-130.
- Yang, W., Roig, M., Jimenez, M., Perry, J. eta Shepherd, A. (2016). *Leaving no one behind: The imperative of inclusive development*. New York: United Nations.
- Zhao, J., Dong, K., Dong, X. eta Shahbaz, M. (2022). How renewable energy alleviate energy poverty? A global analysis, *Renewable Energy*, 186, 299-311, <https://doi.org/10.1016/j.renene.2022.01.005>


1. eranskina

Ekonomia eta enpresa emaitzen adierazleen bilakaera


Ekonomia eta enpresa errendimendua:




Lanaren ageriko produktibitatea lan egindako ordu bakoitzeko (€ orduko)



Manufaturako lanaren ageriko produktibitatea landun bakoitzeko (k€ pertsona bakoitzeko)




Manufaturako lanaren ageriko produktibitatea lan egindako ordu bakoitzeko (€ orduko)







Enpresa errentagarritasuna:

Unitateko lan kostua (ULK) ekonomia osoan (landun bakoitzeko %)





Unitateko lan kostua (ULK) manufaktura sektorean (landun bakoitzeko %)







Berrikuntza eta ekintzailetza:




Prozesuko berrikuntza duten ETEak (CORE est. %)




ETE berritzaileen produktu berrien/hobetuen salmentak (salmenta guztien %)



Jarduera ekintzaileen tasa (18-64 urte arteko biztanleriaren %)




Hazkunde handiko enpresak (10 langile baino gehiagoko enpresen %)




Nazioartekotzea:


Ondasunen nazioarteko esportazioak (BPGren %)




Ondasunen nazioarteko merkataritza saldoa (BPGren %)




Energiaz bestelako ondasunen nazioarteko esportazioak
(BPGren %)




Energiaz bestelako ondasunen nazioarteko merkataritza saldoa
(BPGren %)



Ondasunen eta zerbitzuen nazioarteko esportazioak
(BPGren %)




Ondasunen eta zerbitzuen nazioarteko merkataritza saldoa
(BPGren %)




2. eranskina

Ongizatearen adierazleen bilakaera


Bizitzarekiko gogobetetasuna:




Bizitza materiala:




Pobrezia edo bazterketa arriskuan dauden pertsonen proportzioa (AROPE) (%)



Sarreraren S80/S20 kintilen ratioa




Etxebizitza temperatura egokian mantendu ezin duten pertsonak (%)




Enplegua:


Langabezia tasa (15-74 urte arteko biztanleriaren %)



Lanarekiko gogobetetasun maila (0-10)




Generoari lotutako soldata arrakala lan egindako ordu bakoitzeko (%)




Gizarte bizitza:


Pertsonen duten denborarekiko gogobetetasuna (0-10)



Pertsonenganako konfiantza (0-10)




Jabetzaren aurkako delituen indizea (100 000 biztanleko)




Ikaskuntza:


Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailako hezkuntza (25-64 urte arteko biztanleriaren %)






Etengabeko ikaskuntza (25-64 urte arteko biztanleriaren %)





Matematiketako, irakurketako eta zientzietako batez besteko nota PISA txostenean




Osasuna:

Hautemandako osasun egoera (osasun ona edo oso ona duten pertsonen %)**Bizi itxaropena jaiotzeaz (urteak)****Airearen kutsadurak (PM2,5) eragindako heriotza goiztiarrak** (100 000 biztanleko)

Ingurumena:

Berotegi efektuko gasen isuriak (biztanleko CO₂ tona baliokideak)**Airearen kutsadura** (PM2.5 partikulen urteko batez besteko kontzentrazioa, ug/m³)



3. eranskina

Inklusioa ongizatearen ikuspegitik

Eranskin honetan inklusioari begiratu diogu, ongizatearen ikuspegitik, generoa, diru sarrerak eta ikasketa maila kontuan hartuta.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen banaketa ikasketa mailaren eta jarduera ekonomikoarekiko harremanaren arabera (2023)

	Emakumeak				Gizonak			
	Ikasketa-rik gabe/Lehen mailako ikasketak	Lanbide ikaske-tak	Bigarren mailako ikaske-tak	Uniber-tsitateko ikaske-tak	Ikasketa-rik gabe/Lehen mailako ikasketak	Lanbide ikaske-tak	Bigarren mailako ikaske-tak	Uniber-tsitateko ikaske-tak
Diru sarreraren batekin edo errenta propioekin	13.1	38.6	13.6	34.7	7.1	21.1	12.2	59.6
Diru sarrera eskasekin/ezegonkorrekin	16	41	12.1	31.1	6.7	18.9	13.6	60.8

Enpleguari lotutako ongizatea diru sarreraren eta ikasketa mailaren arabera (2023)

	Diru sarreraren maila (kintila)									
	Emakumeak					Gizonak				
	VI (txikia)	IV	III	II	I (handia)	VI (txikia)	IV	III	II	I (handia)
Lanarekiko gogobetetasun eza (%)	11.4	11.1	8.1	4	4.1	13	9	9.7	11.3	2.7

	Ikasketa maila							
	Emakumeak				Gizonak			
	Lehen hez-kuntza	Behe mailako bigarren hezkun-tza	Goi mailako bigarren hezkun-tza	Unibertsi-tatea	Lehen hez-kuntza	Behe mailako bigarren hezkun-tza	Goi mailako bigarren hezkun-tza	Uniber-tsitatea
Lanarekiko gogobetetasun eza (%)	6	8.5	10.4	5.4	2.8	16.5	10.3	5.7

Norberaren osasunaren inguruko hautematea diru sarreraren eta ikasketa mailaren arabera (2023)



	Diru sarrerak									
	Emakumeak					Gizonak				
	V (txikia)	IV	III	II	I (handia)	V (txikia)	IV	III	II	I (handia)
Osasunarekin lotutako bizi kalitatea (%)	72.3	72.2	76.2	76.3	77.8	76.3	75.1	76.5	78.4	79.8
Osasun mentala (antsietate eta depresio sintomak) (%)	27.8	29.9	22.3	20.9	24.5	26.9	18.9	18.1	16.5	10.3

	Ikasketa maila							
	Emakumeak				Gizonak			
	Lehen hezkun-tza	Behe mailako bigarren hezkun-tza	Goi mailako bigarren hezkun-tza	Uniber-tsitatea	Lehen hezkun-tza	Behe mailako bigarren hezkun-tza	Goi mailako bigarren hezkun-tza	Uniber-tsitatea
Osasunarekin lotutako bizi kalitatea (%)	77.8	76.3	76.2	72.2	79.8	78.4	76.5	75.1
Osasun mentala (antsietate eta depresio sintomak) (%)	24.5	20.9	22.3	29.9	10.3	16.5	18.1	18.9


4. eranskina

Lehiakortasunerako palankak


Kapital naturala:




Energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumo gordinen (%)



Ingurumen ondasunen eta zerbitzuen sektoreko enplegua (enplegu guztiaren %)




Ingurumen ondasunen eta zerbitzuen sektoreko balio erantsi gordina (BEG guztiaren %)




Kapital fisikoa:


Kapitalaren eraketa gordina (BPGren %)



Kapitalaren eraketa gordina ekipo ondasunetan (guztizko kapitalaren eraketa gordinaren %)




Kapital fisikoaren stocka (BPG zenbat aldiz)




Finantzaketa:


Ondare garbia aktiboekiko (mediana, %)



Atzerriko zuzeneko inbertsioaren (AZI) sarrerren stocka (BPGren %)




Atzerriko zuzeneko inbertsioaren (AZI) irteeren stocka (BPGren %)




Jakintza:


I+Gko gastua guztira (BPGren %)




EPO patente zientifikoak milioi bat biztanleko batezbestekoa (hiru urteko)



WOS argitalpen zientifikoak milioi bat biztanleko
(hiru urteko batezbestekoa)




EPO patenteen ehunekoa ingurumen teknologietan
(patente guztien %)




Giza kapitala:


Medikuak (100 000 biztanleko)




Goi mailako bigarren hezkuntza edo hirugarren mailako hezkuntza duen 25-34 urte arteko biztanleria (ISCED 3-8) (%)




Hirugarren mailako hezkuntza duen 25-34 urte arteko biztanleria (ISCED 5-8) (%)




Enplegu tasa (15-64 urte arteko biztanleriaren %)



IKTetako gaitasunak dituzten enplegatuen ehunekoa (%)




IKTetako gradudunen ehunekoa (%)




Gizarte kapitala:


Gobernuaren kalitatearen indizea



I+Dn lankidetzan aritzen diren enpresa txiki eta ertainak (CORE establezimenduen %)



Industriarekin lankidetzan egindako argitalpenak (hiru urteko batezbestekoa) (argitalpenen %)



Taulen zerrenda

1-1. taula	Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia eta enpresa lehiakortasunaren emaitzak.	6
1-2. taula	Euskal Autonomia Erkidegoaren errendimendua ongizate emaitzetan .	12
1-3. taula	Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urteko pertsonen banaketa, ikasketa mailaren eta jarduera ekonomikoarekiko harremanaren arabera (2023).	18
1-4. taula	Euskal Autonomia Erkidegoaren errendimendua lehiakortasunerako palanketan	20
2-1. taula	Inklusioa ongizatearen dimentsioetan.	39
2-2. taula	Inklusioa giza kapitalaren eta gizarte eta erakunde kapitalaren palanketan	40
3-1. taula	Enplegua aurkitzeko zailtasunak (16-66 urte arteko biztanleria langabea, 2023).	51
3-2. taula	Biztanleria landuna, sektorearen arabera (% , 2023).	53
3-3. taula	Biztanleria landuna, lanbidearen, generoaren eta jatorriaren arabera (16-64 urte arteko landunen %, 2023).	56
3-4. taula	Sare zabala eta sare hurbila, jatorriaren arabera, 2022.	66
3-5. taula	Finantza laguntza, osasun laguntza eta laguntza emozionala, 2022 . . .	66
3-6. taula	Soldata arrakala, sektorearen, lanbidearen, kontratu motaren, nazionalitatearen, adinaren eta sexuaren arabera (% , 2022).	70
3-7. taula	Atzerritar jatorriko pertsonen diru sarrerak, jatorriaren arabera (2023) . .	71
3-8. taula	Etxebizitzaren jabetza, jatorriaren arabera (2023)	72
3-9. taula	Etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak eta ingurua, jatorriaren arabera (2023).	72
3-10. taula	Lanarekiko gogobetetasun eza, generoaren arabera (2023)	73
3-11. taula	Generoaren araberako kontziliazioarekin lotutako lanei eskainitako denborekiko gogobetetasun maila (2023)	75
3-12. taula	Norberak bere osasunari buruz duen hautematea, sexuaren eta adinaren arabera, 2023.	77

Grafikoen zerrenda

1-1. grafikoa	Enpresa dinamismoa (2013-2022)	9
1-2. grafikoa	Biztanleko BPGren eta etxeetako errenta baliokidearen mediana- ren aldakuntza (2013-2022)	13
1-3. grafikoa	Hilaren amaierara iristeko zailtasunak dituzten etxeen bilakaera (etxe guztien %, 2023, 2018 eta 2013) eta diru sarreraren kintilaren arabera (kintil bakoitzeko etxeen %, 2023)	17
1-4. grafikoa	Lanarekiko gogogabetasun eza, diru sarrera mailaren eta ikasketa mailaren arabera (taldearen %, 2023)	19
1-5. grafikoa	Norberak bere osasunarekiko duen hautematea, diru sarrera mailaren eta ikasketa mailaren arabera (taldearen %, 2023)	19
1-6. grafikoa	Gobernuaren kalitatearen indizearen bilakaera Espainiako auto- nomia erkidegoetan	29
3-1. grafikoa	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren bilakaera, adin talde handien arabera (mila pertsona, 1971-2023)	45
3-2. grafikoa	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren bilakaera, jatorriaren arabera (mila pertsona, 2000-2022)	46
3-3. grafikoa	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren bilakaera, jatorriaren eta sexuaren arabera (2000-2022)	47
3-4. grafikoa	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren piramideak (2002, 2023)	47
3-5. grafikoa	Biztanleriaren lan egoera Euskal Autonomia Erkidegoan (16-64 urte arteko biztanleriaren %, 2023)	49
3-6. grafikoa	Pertsona ez-aktiboek enplegurik ez bilatzeko arrazoiak (16-64 urte arteko biztanleriaren %, 2023)	50
3-7. grafikoa	Landunen egoera profesionala (% , 2023)	52
3-8. grafikoa	Kudeatzaileak, profesionalak eta teknikariak, sektorearen eta se- xuaren arabera (% , 2023)	57
3-9. grafikoa	Kontratu mota (16-64 urte arteko soldatapekoen %, 2023)	57
3-10. grafikoa	Lanaldi mota (16-64 urte arteko soldatapekoen %, 2023)	60

3-11. grafikoa	Biztanleriaren hezkuntza maila (16-64 urte arteko biztanleriaren %, 2023)	61
3-12. grafikoa	Atzerritar jatorriko 18 urte edo gehiago biztanleriaren artean Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketa arautuak egin dituen edo egiten ari den ehunekoa, lortu nahi den ikasketa mailaren arabera (ikasten ari den biztanleriaren %, 2023).	61
3-13. grafikoa	Biztanleria landunaren hezkuntza maila, lanbidearen arabera (16-64 urte arteko biztanleria landunaren %, 2023)	63
3-14. grafikoa	Etengabeko ikaskuntza (25-64 urte arteko biztanleriaren %, 2023) .	63
3-15. grafikoa	Konfiantza motak, jatorriaren arabera, 2022.	66
3-16. grafikoa	Interes soziopolitikoa eta parte hartze politikoa, 2022	67
3-17. grafikoa	Errenta erabilgarria generoaren eta adinaren arabera (2021).	68
3-18. grafikoa	Lanaren errenta, generoaren eta adinaren arabera (2021)	69
3-19. grafikoa	Pobrezia erreala, adinaren arabera (2022)	71
3-20. grafikoa	Lanarekiko gogobetetasuna, adinaren arabera (2023)	73
3-21. grafikoa	Biztanleria landunak etxeko lanetan emandako orduak, adinaren arabera (2023).	74
3-22. grafikoa	Aisialdirako denborarekiko gogobetetasuna, adinaren arabera (2023)	75
3-23. grafikoa	Faktore psikosozialak, generoaren eta adinaren arabera (2023). . .	76

Irudien zerrenda

1-1. irudia	Ongizatea helburu duen lehiakortasun esparrua	4
2-1. irudia	Ongizatea helburu duen lehiakortasun esparru sinplifikatua	38
2-2. irudia	Inklusioa, parte hartze eta sarbide gisa.	43

Laukien zerrenda

1-1. laukia	EAEko enpresa txiki eta ertainen berrikuntza	7
1-2. laukia	Gorabidean doazen nazioarteko merkatu nitxoetako liderrak	10
1-3. laukia	Kooperatibek Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeetako ongizateari egiten dioten ekarpena	14
1-4. laukia	Energia trantsizio bidezkoa	22
1-5. laukia	Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa taldeak: begirada dinamikoa ..	24
1-6. laukia	EAEko ekonomiaren eta gizartearen digitalizazioa	25
2-1. laukia	Desgaitasuna duten pertsonen gizarte eta laneko inklusio eredua Euskal Autonomia Erkidegoan	34
3-1. laukia	Belaunaldien arteko erreleboa eta adinaren kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoan	48
3-2. laukia	Emakumea, industria eta nazioartekotzea	54
3-3. laukia	Errotzeagatiko bizileku baimena, gizarte eta lan inklusioa errazten duen tresna gisa	58



Orkestra

LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orquestra.deusto.es